

Zu hemen zaude. goiena



HASI DIRA ARATUSTEAK!

Oñatiko Inauteriak eta Eskoriatzako Urdelardero eguna ospatu zituzten atzo; Oñatin, 300 ikaslek batera egin zuten dantzan lehen aldiz / 32

Oñatin batu ziren 300 ikasleetako bi, lehen planoan, egun horretarako propio egindako jantziekin. IBAI ZABALA

Epeleko zabortegia: ez dago erabakirik

"Proposamen zehatza iritsiko balitz", Epele irekitzea aztertuko luke Mankomunitateak / 5

Elorregiko autobus geltokian komuna jartzeko lanean dabilta Oñatiko eta Arrasateko udalak / 6

Arrasateko musika etxe berriko lanak atzeratu egingo dira, obrak gelditu daudelako / 10

+ puntua

Maidar Larrañaga, sommelier onenen artean

Laura Moran sexologoari elkarrizketa

SINADURAK

	JON ETXEBERRIA / 8		AINHIZE BARRAINKUA / 18
	GAIZKA ERAÑA / 12		ALAZNE GURIDI / 32
	MIKEL IRIZAR / 48		

T-ROC

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoas etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT

Hemen GARBIKETAK

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbitak.com
hemen@hemen-garbitak.com



Emun enpresan 2019ko gestio-plana lantzeko saioa. E. ZILARMENDI

Euskara-sektoreek ia 25.000 enplegu sortzen dituzte Gipuzkoan

Gipuzkoan euskarak duen eragin ekonomikoa eta hizkuntzen industriak EAEn duen egoera aztertu dituen txostena aurkeztu dute; Gipuzkoako ekonomiako enplegu osoaren %7,99 euskara-sektoreek sortua da: 24.848 enplegu, hain zuzen ere

Eneko Azurmendi ARRASATE Gipuzkoako Euskararen Foroak legealdi honetan egindako lehen bilkura baliatuta aurkeztu zuten txostena joan den astean –Siadecok egin du Langunerentzat, Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin–. Euskarak Gipuzkoan ze eragin ekonomikoa duen aztertu dute lan horretan, eta Markel Olano diputatu nagusiak "albiste pozgarriztat" jo du euskarak Gipuzkoan duen eragin ekonomikoa neurtzen duen txosten "mardula eta sakona" edukitzea.

BPGaren %5,34 euskarari lotuta Txostenaren arabera, Gipuzkoako barne produktu gordinaren %5,34 euskararekin zuzenean eta zeharka loturaren bat duten sektore ekonomikoei dagokie. Gipuzkoako BPG 24,4 mila milioikoa da, eta euskarari dago-

kiona, 1,304 mila milioikoa. EAEn dagokionez, BPGren %4,59 dago euskararekin lotuta. "Txikia dirudi, baina turismoa moduko sektore indartsu batek Gipuzkoan %7,6 dauka. Beraz, euskararen inguruko sektoreen lanpostuak eta aberastasuna modu esanguratsuan sortzen dituela esan dezakegu, beste edozein sektore bezain garrantzitsuak bagara ikuspegi ekonomikoa huts batetik", dio Olatz Olasok, Emuneko zuzendariak. Ildo beretik jarraitu du Tokikomemeko zuzendari Alaitz Artolazabalek ere: "Euskararekin er-

GIPIZKOAKO BARNE PRODUKTU GORDINAREN %5,34 EUSKARAREKIN LOTUTA DAGO

lazionaturiko zuzeneko aktibitateak BPGren %3,857koa da eta turismoak EAEn duena %7".

Mari Karmen Arrieta Eskoriatzako Udaleko Euskara teknikaria ere bada Euskararen Foroko kide, eta aitortu du euskarak sortzen dituen datu ekonomikoa "esanguratsua eta aintzat hartu beharrekoa" direla. "Gurean, gainera, hizkuntzen industria egituratuta eta trinkotuta dagoela eta urte gutxian lan mardula egin dela erakusten dute".

Lau jardueradar izan dituzte kontuan txostenean: euskarari dagokion hizkuntzaren industria, kultura eta hedabideen industria, hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak eta administrazio publikoa.

773 lanpostu euskarari lotuta Txostenaren arabera, hizkuntzen industriako enpresa eta erakun-

deek 773 lanpostu sortzen dituzte, zuzenean euskararekin lotuta: gehienak euskararen irakaskuntzako langileak eta itzulpen-gintzaren eta interpretazioaren azpisektorekoak dira, 348 eta 260, hurrenez hurren. Hizkuntzen industrian, euskararekin lotutako jardueraren fakturazio bolumena 45 milioi eta erdikoa da eta 35 milioi pasatxoko balio erantsi gordina sortzen dute.

Datuez harago, boluntario lana Euskal kulturgintzaren eta hedabideen arloan 2.373 lanpostu dira euskararekin zuzenean lotutakoak. Euskara-enplegu handiena duen azpisektorea hedabideena da –821–, komunikazio, kultur eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresen aurretik –634–. Industria horrek 192 milioi eta erdi fakturatzeko dituen urtean eta 118,3 milioiko balio erantsi gordina sortzen du. Sektorean egiten den boluntario lana nabarmendu du Artolazabalek: "Datuez harago, iruditzen zait sektore hauetan musu-truk egiten den lana handia dela oso eta hori ez dagoela kuantifikatuta eta balioan jarrita. Profesionalizatorako jauzi bat eman da, baina oraindik ere bidea dago hor egiteko".

Hezkuntzan, 15.000 enplegatu Ia 15.000 lagun enplegatzen ditu euskarazko irakaskuntza sistematik Gipuzkoan: 14.000 inguru unibertsitate aurreko ikasketetan eta 1.000 unibertsitate mailako gradu eta graduondokoetan. Sektoreak 765 milioi euro inguruko aurrekontua du urtean eta 654 milioi euroko balio erantsi gordina sortzen du.

746 lanpostu administrazioan Euskara-lanpostuak 746 dira Gipuzkoako administrazio publikoetan, euskara zerbitzuetako enpleguaz gain kultura arloetakoaren zati bat ere kontuan hartuta. 199 dira euskara zerbitzuetako enpleguak eta 547 kultura arloan euskararekin lotutakoak direnak. 123,3 milioi euroko aurrekontua du eta 42 milioiko balio erantsi gordina

EUSKAL KULTURA ETA HEDABIDEEN ARLOAN, 2.373 LANPOSTU DIRA ZUZENEAN EUSKARARI LOTUTA DAUDENAK

sortzen du. "Administrazio publikoak ahalegin handia egin du euskara arloan baliabideak sortzen; baliabide propioak, baita: euskara zerbitzuak adibidez; baina baita euskara gainontzeko udal zerbitzuetan zeharlerro gisa txertatzen ere", dio Arrietak.

Horrez gain, azpimarratu du hizkuntza industriaren fakturazio bolumenaren "zati handi bat" administrazio publikoetatik datorrela. "Ukaezina da administrazio publikoak euskararen normalizazio prozesuan egindako lana, oro har, eta, bereziki, Gipuzkoan", gaineratu du.

Bailarako bi enpresa Langunen Langune hizkuntzen industriaren alorreko Euskal Herriko enpresen elkarte da, eta itzulpen-gintza, edukiak, irakaskuntza eta hizkuntzen teknologiaren alorreko enpresak batzen ditu. Zuzendaritzako kide dira, besteak beste, Debagoieneko bi enpresa: Mondragon Lingua eta Emun. Olasok azaldu duenez, Langunek hizkuntzaren industria bultzatu nahi du Euskal Herrian. "Hizkuntzekin lanean dihardugunok sektore garrantzitsu bat osatzen dugu eta sektorearekin kluster moduan funtzionatzen dugu. Itzulpen, hizkuntza irakaskuntza, eduki linguistiko eta hizkuntza teknologien enpresa eta zentro teknologikoei osatzen dugu Langune, eta industrian, osasungintzan eta beste sektore batzuetan hizkuntzaren kudeaketa egoki batek dakartzen onurak erakutsi eta horren inguruko soluzioak eskaini nahi ditugu", nabarmendu du.

Euskararen Foroaren garrantzia Euskararen balioan sinistu eta berau bermatzeko sortu den foro bat da Euskararen Foroa, Artolazabalen esanetan. "Aldundia eta eragile desberdinak batzen ditu, eta, nire ustez, horrelako foroak ezinbestekoak dira hizkuntzarekiko konpromisoak bermatu eta elkarlanerako espazioak sortzeko".

Arrietak ere bat egin du: "Edozein politika egiteko, ezagutza konpartitzea eta jakintza desberdinak batzea ezinbestekoa da, baita hizkuntza politikan ere. Foroak hori ahalbideratu dezake. Gipuzkoari, gainera, euskara gaietan aitzindari eta bide-urratzaile izatea tokatzen zaio, edukietan zein moduetan".

Tokikom-eko webguneen kontsumoa %36 hazi da

Euskarazko tokiko komunikabideek osatzen duten elkartearen baitako 30 hedabide digitaletan –'Goiena.eus' tartean– 36.380.205 ikustaldi izan ziren 2019an; euskarazko medio digital guztiak kontuan hartuta, kontsumoa %19 handitu zen iaz

Eneko Azurmendi ARRASATE

Oso pozik azaldu dira elkarteko kideak 2019ak utzitako datuekin. "Beldurrik gabe esan dezakegu Tokikom-eko bazkide diren toki komunikabideen edizio digitalek osatzen duten sarea oinarri-oinarrizko azpiegitura dela euskarazko edukien eguneroko kontsumoan. 2019ko trafikoko datuak aztertuta, kopuruak oso esanguratsuak dira benetan".

Izan ere, Tokikom-eko bazkideen webguneek 36.380.205 ikustaldi izan zituzten urte guztian, 2018an baino %36 gehiago. Hilabeteko batez bestekoa 3 milioikoa izan zen. Maiatzean goraldi nabarmena izan zen,



Lau erabiltzailearen telefonoetan Tokikom-eko lau hedabide irekita. IBAI ZABALA

udal hauteskundearen bueltan –3,8 milioi ikustaldi– eta abuztuaren berriz, beheakada, udako oporrek lotutakoa –2,3 milioi–.

la 400.000 erabiltzaile hilean

Hilabetero 399.025 erabiltzaile izan dituzte webgune horiek, eta bisiten batez besteko iraupena ere luzatu egin da, bi minutu pasatxora iritsita. 2019an 122 segundokoa izan da batez bestekoa eta 119koa 2018an –Goiena.eus-en, 148 segundo–.

Hori horrela, "irakurketa positiboa" egiten dute. "2018an baino %35 gehiago izan dira toki komunikabideetara hurbildu diren erabiltzaileak, haietako bakoitzak orrialde gehiago irakurri ditu eta denbora gehiago pasatu du webguneetan".

la erdiak, bilatzaileetatik

Tokikom-eko webguneek izandako bisiten %40 baino gehiago bilatzaileetatik iritsi ziren 2019an. "Datu zehatzik ez badugu ere, susmoa daukagu erabiltzaile gehienek, hedabidearen helbidea idatzi baino gehiago, bilatzailean sartzen dutela zuzenean webgunea iristeko".

Bigarren iturri nagusia Facebook da; izan ere, bisiten laurdena baino gehiago sare sozial horren bitartez iritsi ziren. Ondoren, trafiko zuzena izan zen (%21,6), eta Twitterrek bisiten %7 eragin zuen.

Bestalde, 2018ko amaieran, bisiten %64,5 egiten zen gailu mugikorretatik, eta 2019ko abenduan kopuru hori %71,43koa zen, batez beste. Ordenagailu arruntetatik bisiten laurdena egin ziren, eta tabletetatik %4 baino apur bat gutxiago.

171 eduki eguneroko

Komunikabide digitalen ekoizpenari dagokionez, Tokikom plataformaren azken bertsioa erabiltzen duten webguneek 62.416 eduki argitaratu zituzten 2019an; hau da, 171 eduki egun bakoitzeko, batez beste.

Gehienak artikulatuak izan ziren (%56); agendako sarrerak, %19; eta argazki galeriak, %8. Bestalde, sortutako eduki guztiaren %23 galeriak, audioak eta bideoak izan ziren.

Gizartea, kultura eta kirolak izan ziren gai landuenak –edukien %40, %22 eta %17–.



Etorri Txarapeara!

ARETXABALETAN, duplex berriak salgai!

Denetarik izateko pauso batera, inguru lasaia eta bista ederrak.

Duplexak

3 edo 4 gela,
2 edo 3 bainugela,
4 terraza, garajea...
230.000 €-tik (+BEZa)

Beheko solairua

3 gela,
2 bainugela,
2 terraza, garajea...
180.000 € (+BEZa)






San Miguel Inmobiliaria
www.sanmiguelinmobiliaria.com

T. 943 711 781
aretxabaleta@sanmiguelinmobiliaria.com



Zaharren egoitzetako hainbat langilek asteon Arrasaten egin duten agerraldia. AMAIA ARANEGI

"Lan eta bizi-baldintzak hobetu arte", borrokan

Gipuzkoako zaharren egoitzetako langileek 221 egun daramatzate greban, eta aste honetan agerraldia egin dute borrokan jarraituko dutela adierazteko. "Beste behin, gure egoera salatzeraz gero, konponbidea eskatuz, nazkatuta gaude", adierazi dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko Iturbide egoitza aurrean elkartu dira asteon eskualdeko zaharren egoitzetako hainbat langile. Izan ere, *Zaindu nazazu (gutxienez) bi orduz!* kanpaina jarri dute martxan eta eskuorriak banatzen ibili dira, euren errealitatea herritarrei hurbiltzeko. Errealitate hori azaltzeko hainbat puntu azaleratu dituzte: "Langile kopurua herena baino gehiago ez da 1.000 eurora iristen; pertsona bat altxatu, garbitu, jantzi eta pixoihalak jantzeko 15 minutu ditugu; egoitza askotan bi erizain bakarrik daude 140 pertsona artatzeko; gizonezkoek lan egiten duten sektoreekin alderatuz, 6.000 euro gutxiago kobratzen dugu emakume izanagatik, eta eguneko 90 minutuko atentzioa dute gure aitona-amonek".

Hain zuzen ere, azken horretan jarri dute fokua kanpainarekin. "90 minutu gutxiegi dira behar bezalako zaintza egiteko. Gutxienez, 120 minutu beharko

genituzke. Ratio motzak ditugu. Langile askok baja hartu behar izaten dute antsietateagatik edota estresagatik", azaldu dute.

Hori dela eta, dituzten ratioak handitzea eskatzeaz gain, haien lan-baldintzak arautu eta kalitatezko zaintza sistema bat bermatzeko borrokan daudela adierazi dute. "Kontratu partzialak dituzte askok eta horrela ezin dugu lanik egin. Borroka hau denon zaintza eta bizitza erdigunean jartzeko ere bada".

Aldundiaren erantzukizuna

Azaldu dutenez, Markel Olano diputatu nagusiak "behin eta berriz" baieztatu du Aldundiak "berdintasun politiken aldeko apustua egiten duela, ekonomia,

ZAHAR-ETXEETAKO LANGILEEK 'ZAINDU NAZAZU (GUTXIENEZ) BI ORDUZ!' KANPAINA JARRI DUTE MARTXAN

zaintza eta indarkeria matxistaren kontrako borroka ardatz" izanik. "Guk, zaharren egoitzetako langileen lan-baldintzen eta egoiliarren ongizatearen alde greban gaudenok, argi esan nahi diogu gezurretan ari dela hori esaten duenean", diote.

Salatu dute enpresak gero eta etekin handiagoak dituztela langileak "gero eta prekarioagoak" diren bitartean. "Zuen jasagarritasuna gure itolarrian oinarritzen da. Eta ez bakarrik emakumeonean, baita pertsona helduen ongizate faltan ere".

Sektoreko gatazkan gertatzen ari dena "Aldundiaren erantzukizuna" dela adierazi dute, "sektorea %90ean finantzatzen baitu".

Kalean jarraituko dute

Gatazka konpondu arte borrokan jarraituko dutela aldarrikatu dute. "Gure borroka emakume eta jendarte osoarentzat da. Kalean jarraituko dugu gure lan eta bizi-baldintzen benetako hobekuntza lortu arte".

BetiON telelaguntza zerbitzuak lantoki berria ireki du bailaran

6.653 erabiltzailereri zerbitzua hobe emateko helburua dauka Aretxabaletako zentro logistiko berriak

E.A. ARETXABALETA

Euskadiko BetiON telelaguntza zerbitzuak zentro logistiko berria zabaldu du Aretxabaletan, Debagoieneko, Debabarreneko, Durangaldeko, Gorbeialdeko eta Goierriko eskualdeetan bizi diren 6.653 erabiltzaileei "zerbitzu hobe" emateko helburuarekin. Aretxabaletako zentro berriak EAE osoko erabiltzaile guztien %11ri emango die arreta –dagoeneko 56.250 izatera heldu dira–.

Gipuzkoako erdiguneko udalerriei "eraginkortasun handiagoz eta azkarrago arreta emateko" asmoz zabaldu dute zentroa; izan ere, orain arte, ingurune horretako erabiltzaileei hiriburuetako zentroetatik ematen zieten arreta. "Adineko biztanle asko dituen eremu geografiko bati arreta hobe eman nahi diogu. Ingurune hori Euskadiren erdialdean egon arren, pixka bat urrun geratzen zen hiru hiriburuetan kokatuta zeuden bulegoetatik. Orain, zerbitzu hobe jasoko dute erabiltzaileek, baina betiko kalitate-estandar bereberekin", dio Iñigo Mijangosek, telelaguntza zerbitzuaren arduradunak.

Zerbitzua ezagutarazi gura dute

Zentro hau irekita, inguru horretan telelaguntzako zerbitzua gehiago ezagutzera eman nahi dutela adierazi dute arduradunek, zerbitzuaren beharra izan dezaketen erabiltzaileen kopurua handitzeko: "Adibidez, bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonak; mendekotasun mailaren bat aitortuta duten 65 urtetik gorako pertsonak; pertsona desgaituak; eta aurretik banakako balorazioa egin ondoren azaltzen diren beste kasu batzuk".

Oso zerbitzu "erabilgarria"

"Larrialdi-egoerak gerta daitezkeenean laguntza jasotzea, erabiltzaileen senitartekoen artean eragiten duen lasaitasuna eta edozein gorabeheraren aurrean laguntza eskatzeko aukera" dira BetiON zerbitzuaren ia erabiltzaile guztientzako ezaugarri erabilgarrienak, arduradunen esanetan. "Halaber, instalazio teknologikoko prozesuak –adibidez, etxean une oro duten medaila sakagailua– erabiltzaileen itxaropenak asetzen ditu, eta pertsonen %80ri oso positiboa iruditzen zaie".



MAIALEN SANTOS

Bederatzi autobus hibrido berri

Lurraldebus-en autobus zerbitzura bederatzi autobus hibrido berri batuko dira, eta datozen egunetan hasiko dira zerbitzua ematen. Debagoieneko herrietan arituko dira, besteak beste. Gehienez ere, 70 bat pertsona garraiatu ahal izango dituzte; eta horietako 52 joan ahalko dira eserita. CO2 emisioak gutxitzen lagunduko dutela azaldu dute arduradunek.



Epeleko zabortegia joan den egubakoitzean. MIREN ARREGI

Epele zabaldu edo ez, erabakitzeke oraindik

Debagoieneko Mankomunitateak dio ez duela ez Aldundiaren eta ez Eusko Jaurlaritzaren eskaerarik jaso Epele irekitzeko, eta, beraz, proposamen zehatza iritsiko balitz, Mankomunitatean bertan aztertuko litzateke

Miren Arregi ARRASATE

Zaldibarko zabortegiko lur-jausiak eragindako hondakin industrialen kudeaketaren gaineko krisiak eman du zeresana aste honetan ere, eta, testuinguru horretan, behin baino gehiagotan aipatu da Epeleko hondakin industrial ez arriskutsuen zabortegia. Hala, Epeleko zabortegiaren jabe den Debagoieneko Mankomunitateak

oharra kaleratu zuen atzo; momentuz, Epelera ezin dela hondakinik eroan argitu du, eta Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren eskaerarik jasoko balu, gaia Mankomunitateko gobernu batzordean aztertuko dela azaldu. Datorren martitzenean egingo du batzarra Mankomunitateak, nahiz eta gai hau ez dagoen aztergaien artean.

Epelera hondakinik ez

Eguaztenean hasi zen Epelaren izena entzuten Zaldibarko zabortegiak hartzen zituen hondakin ez arriskutsuak hartzeko alternatiba gisa. Gipuzkoako Hondakin Kontsorzioak Gipuzkoako mankomunitateekin egindako bilera baten ondoren esan zuen Epeleko zabortegia dela "aukera bakarra". Bergarako zabortegia-

ren jabe den Debagoieneko Mankomunitatea hori gezurtatzera ateratu da, eta Epele gaur-gaurkoz ez dela irekiko berretsi du. Izan ere, 2018tik itxita dagoen zabortegiarekin zer egin ez dute erabaki oraindik –behin betiko ixtea da aukera bat eta bigarrena, obrak egin ondoren zabaltzea–, eta "zabaltzeak hilabete asko iraungo lukeen obra zibila" egin beharra ekarriko luke, baita "milioi eta erdi eurotik gorako inbertsioa" ere.

Zaborra, EAetik kanpora

Jaurlaritzak, bestetik, Zaldibarrera bideratzen zen zaborra kanpora bidali gura duela jakinarazi zuen eguazten gauean. Elena Moreno Ingurumen sailburuordeak esan du Jaurlaritza harremanetan dela beste zenbait autonomia erkidegorekin. "Euskadik arazo konplexua du industriak sortzen dituen hondakinik", azaldu du Morenok. Zaldibarkoa zen EAeko hondakindegia nagusia: urtero 500.000 tona zabor jasotzen zituen; hau da, hiru lurraldeetan sortzen diren industria jatorriko hondakinik %23. Zaldibarkoaren ostean, arazo larria sortu da. Sailburuordeak iragarri du industria hondakinak kanpora bidaltzea "epe laburreko" irtenbidea litzatekeela, baina jakitun direla "epe erdiko irtenbideez" ere berba egin behar dela, sortzen den hondakin kopurua gutxitzeko helburuarekin.

Badaezpada ere, Debagoieneko Mankomunitateak iritzia eman du gaiaren gainean, ohar bidez: "Epeleko isurtegia industriako hondakin ez arriskutsuak jasotzeko sortu zen eta Epele hondakin arriskutsuak hartzeko, ezta amiantoa ere, egokitzea ezinezkoa da. Beraz, Zaldibarko hondakinak ezingo lirateke Epelera ekarri".

Elgeta, krisi-mahaian

Asteak zabortegiko krisiarekin lotuta eman duen beste albiste bat Elgetatik dator. Atzo goizean Elgetako alkateak lehenengoz hartu zuen parte istripua gertatu zenetik goizero elkartu den krisi-mahaian. Iraitz Lazkano alkateak mahai horretan egoteko hainbat eskaera egin dituela eman du aditzera, eta, azkenean, herenegun, jaso zuela gonbidapena. Elgetak, batez ere, informatuta egon gura du eta eskaera hori eramango du mahai horretara: "Informazioa ahalik eta modu zabalenean jasotzea, neurketak non eta nola egin diren... Azken finean, herritarren osasunari eta segurtasunari lotutako eskaerak".

Atzokoak emandakoaren gainean galdetuta, Lazkanok adierazi du zabortegiko lurraren egonkortasunaz aritu zirela, eta, han esan zuten, une honetan egonkor dago. Airearen kalitatearen gaia gaur tratatuko dutela ere aurreratu du. Ermuan ipinitako kaptadoreak airean detektatutako dioxina eta furano kopuru altuak direla eta Eusko Jaurlaritzak aholkatutako prebentzio neurriekin jarraituko dutela ere iragarri du, horiek bertan behera gelditzen diren arte.

Gaur, egubakoitza, kirol saioak eta Inauterietarako prestatutako ekintzak frontoian egingo dituzte. Eskolako umeek egin behar zuten kalejira, aldiz, ez dute egingo.

**IRAITZ LAZKANO
ELGETAKO ALKATEA
KRISI-MAHAIAN
PARTE HARTZEN HASI
DA ORAINGO ASTEAN**

Maixol Iparragirre askatzea eskatu dute feministek

Preso dauden emakumeek zigor gehigarri bat dutela eta kartzela sistema patriarkala dela salatu dute

M.A ARRASATE

Maixol Iparragirre preso eskoriatzarraren askatasuna aldarrikatzeko, Ibarraundi museoan elkartu dira Debagoieneko hainbat herritako mugimendu feministako kideak. Preso diren

emakumeek zigor gehigarria jasaten dutela salatu dute eta Marixolen berehalako askatasuna eskatzeko atxikimendu kanpainara jarri dute martxan denon artean adostutako adierazpena oinarri hartuta. Kartzela sistema

patriarkalaren tresna bat dela salatzen dute Bilgune Feministatik, eta, horregatik, presoen gaia mugimendu feministetan aztertzen hasi beharrekoa dela azpimarratu. Eskualde mailan bi preso emakume daude, eta, hori dela eta, eskualde mailako dinamika jarri dute martxan. Hala ere, Maixol Iparragirreraren egoera "salbuespenekoa da"; izan ere, Frantziak ipinitako espetxe zigorra beteta zuela Espainiara eroan zuten joan den abuztuan. Urtebetera, epaitu barik dago.



Eskoriatzan, Marixol Iparragirreraren aldeko ekimenean. GOIENA

Komuna jartzeko, ados; non eta nola, ezbaian

Arrasateko EAJk joan den astean esan zuen lidergoa hartu nahi duela Elorregin komuna jartzeko, eta Oñatiko eta Bergarako udalen elkarlana eskatu zuen. Oñatiarrek diote "aspaldi" ari direla lanean; bergararrek, aldiz, "oraindik" ez dutela hausnartu

Maialen Santos DEBAGOIENA

Erabiltzaileen aspaldiko beharra da Elorregiko autobus geltokiko komuna, eta proiektu horretan aurrerapausoak ematea gura dute Oñatiko eta Arrasateko udalek. Arrasateko Udala Gobernuak joan den astean adierazi zuen "lidergoa" hartu nahi duela Elorregin komuna jartzeko; hala, elkarlanerako dei egin zien Bergarako eta Oñatiko udalei, eta gutun bana bidali zien hiruren arteko bilera eskatuz.

Arrasateko aurrekontu parte hartzaileetatik 115.000 euro bideratuko dituzte bidegorrian komunak jartzera, eta Elorregi aukeratu dute horretarako. Joan



Elorregik inguruko herri bakoitzarekin egiten duen muga. ARRASATEKO UDALA

den astean egindako udalbatzan, EH Bilduk EAJren jarrera salatu zuen: "Oñatiko Udala Gobernuak denbora darama elkarlana eskatzen, eta Arrasatek ez dio erantzun baikorrik eman. Orain, EAJk aurre hartu nahi duela dirudi". Arrasateko Udala Gobernuak azaldu du "errekonoiztzen" duela Oñatik egindako lana, baina, komuna "herritarren eskaera" den heinean, "konpromisoa agertu" nahi duela.

Oñatiko Udalak, berriz, adierazi du "aspaldi" ari direla proiektua gauzatzeko ahaleginetan, eta "elkarlanerako prest" azaldu dira, "orain arte bezala". Hain justu, elkarlanerako asmoz zehaztu zuten proiekturako 20.350 euroko partida. Gauzak horrela, uste dute lidergoa "ez dagokiola" inori, eta gaineratu dute Gipuzkoako Aldundiarekin lan egiteko aukera ere "zabalik" dagoela.

Bergarako Udalak, azkenik, herria eremu horretatik kanpo dagoela adierazi zuen; beraz, ez zutela proiektu honetan parte hartzea aurreikusten. Orain, Arrasateko Udaletik gutuna jaso ostean diote "oraindik" ez dutela "hausnartzeko" tarterik izan.

Teleordainketarako 'Abiatu' gailuak aldatu egin behar dira

Abiatu Bidegiren teleordainketarako 62.600 gailu baino gehiago berri behar dira datozen hilabeteetan, 2020aren amaieratik 2021eko martxora bitartean irauungi egingo baitira. Prozesuak 2015ean jaulkitako *Abiatu* gailuei eragingo die; hau da, operatibo dauden 97.000 gailuen %65i. Aintzane Oiarbide Bide Azpigituretako diputatuak aurreratu duenez, *Abiatu*-ren erabiltzaile guztiak gailu berriari buruzko informazioa jasoko dute etxean, baita *Abiatu 2.0* berriekin aldatzeko eman beharreko pausoei buruzkoa ere: "Aldaketa beharrezkoa da, gailuen bizitza erabilgarria 6 urtekoa baita. *Abiatu 2.0* berriak egungo gailuaren abantaila eta deskontu guztiak mantenduko ditu, eta, gainera, Frantziako autobide guztietan eta Via T-ari atxikitako Frantziako aparkalekuetan erabili ahal izango da". Aldaketak ez dakar inolako kosturik; mantentze-tarifak urtean 7 eurokoa izaten jarraituko du.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conef.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Mabiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

Inork ez du sinisten gobernuek zerbait egin dezaketarik

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Zygmunt Bauman soziologo poloniarrek esandako hitzak dira. Begi-bistakoak dira argindar-enpresa gutxi batzuen ikaragarriko irabaziak eta milaka pertsonaren txirotasun energetikoa; hau da, beraien etxea behar bezala berotu ezinik dabiltzala.

Arrakala galanta dagoela, eta detaile honi gehitzen badiogu gobernuko arduradun batzuk beraien kargu publikoa lagatzen dutenean enpresa pribatuen oso ondo ordaindutako lanpostuetan egoten direla, zerbait txarto doan seinale da.

Zygmunt arrazoia eman behar: gauza gutxi itxaron dezakegu gobernuengandik, baina zuk zerbait egin dezakezu, argindarra ez erosi argindar-enpresa handi bati, baizik eta kooperatiba energetiko bati.

Zertarako amestu

JON OTXANDATEGI

DEBAGOIENA

Aurreko batean, estimuan daukadan lagunari urtebetetze eguna zoriontzeko asmoarekin deitu nion; lankide ohia ere bada.

Solasaldia baliatu nuen gure ikastolak duela gutxi argitaratu duen liburuaren berri ba ote zuen galdetzeko. Irakurtzeko aukerarik ez duela izan aitortu zidan berak. Hori aintzat hartuta, konpromisoa hartu nuen gurean ari den bere bilobaren kakoan *Ametsak betetzeko daudelako* liburuaren ale bat uzteko. Hitza hartu zidan. Liburua esku artean neukala, ordea, ezin kakoan besterik gabe utzi, eta mezutxo bat idatzita uztea bururatu zitzaidan.

Zer idatzi pentsatzen nengoela, denboran atzera egin eta nire hezitzaile ibilbidearen hasierara egin

nuen jauzi. Mutil koxkor bat begiztatu nuen, lankide horren alboan; gerora nire erreferenteetako bat izateaz gain, lagun handia egingo nuena. Bera irribarretsu, gogotsu, maitekor eta beti laguntzeko prest nuen. Haurrak maitasunean, lankidetzan eta euskalduntasunean hezteko bidean laguna izaten saiatzen zen.

Bera bezala, ezin ahaztu gainontzeko andereño eta maisuak. Beraien esfortzu, dedikazio eta eguneroko jardunarekin hasi zuten bideari esker gauden lekuan gaude eta.

Arizmendik eraldaketa pedagogikoaren garabidean salto kualitatiboa ematea erabaki du, Konfiantzaren Pedagogia ardatz hartuta. Garabide honetan, guri dagokigu gaurko eta biharko belaunaldiek izango dituzten errokeni erantzunak aurkitzen laguntzea. XXI. mendeko hezkuntzak eta jendarteak XXI. mendeko erantzunak behar dituztelako.

Jendarte justuago, konprometituago, kooperatiboago, euskaldunago eta sozialagoan sinisten dugulako, sinisten dugu subjektu aktiboak izango diren haur-nerabe-gazte eraldatzaileengan.

Gure erreferente izan diren guztiei eskerrak ematea besterik ez zait falta; eta baita orain murgilduta gauden berrikuntza aro honetan ametsak egia bihurtzeko lanean buru-belarri ari diren profesionalei, gurasoei eta kolaboratzaileei. Erantzukizuna handia bezain ederra da; horregatik, bidea denok batera egin nahi dugu, ikastolatik herrira, herritik bailarara eta bailaratik mundura jauzi egin ahal izateko.

Lagunari liburuan idatzitakoa zuentzako eginez: zuek hasitako bideari guk, pasioz, jarraipena ematea nahi diogulako. Ametsak betetzeko daudelako, bada, egin dezagun amets.

Eskerrik asko, Joxe Mari

ENEKO BARBERENA MONDRAGON
ARETXABALETA

Badira jada urte batzuk izenez ezagutzen zintudala; baina, Haurren Hiriaren abaroan, mamitu gabeko izarren hautsean, egin genuen topo egun Oinherri denaren hastapenetan.

Euskarak, Euskal Herriak, hezkuntzak, zu moduko gehiago balitu! Zorrotz eta umoretsu, goxo eta langile, herrigintzaren ekimen eta begirada luzearen jabe.

Besarkada estua senide, lagun eta Hik Hasi familia osoari. Mila-mila esker, Joxe Mari Auzmendi.

Eitzagako isurtegiaren inguruan gutun irekia

IRAIZ LAZKANO GARITAONANDIA
ELGETAKO ALKATEA
ELGETA

Hamabi egun igaro dira Verter Recycling zabortegian luizia gertatu zenetik, eta Joaquin eta Alberto beharginak harrapatu zituenetik. Ondoren, su hartu zuen zabortegiak. Denak ez badira ere, gertatutako nagusiak azaldu nahi nituzke.

Otsailaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak lehenengo aldiz deitu zuen batzarra, eta Eibar, Ermua eta Zaldibarko alkateak gonbidatu zituen. Eskaria egin genuen bileran parte hartzeko, Elgetak zabortegiarekin muga egiten duela azalduz. Prestutasuna dugu parte hartzeko, ahal dugunean laguntzeko, eta informazioa zuzenean jaso nahi dugu, herritarrek ganoraz informatu ahal izateko. Ez dugu erantzunik jaso oraindik.

Otsailaren 12an, Elgetan ere airearen kalitatearen neurketak egiteko eskatu genuen, kea eta usaina nabarmenak izan baitziren. Harrituta jaso nuen herritar baten deia, arratsaldean auzoan airearen kalitatearen neurketak egiten jardun zutela esanez. Ez genuen inolako abisurik jaso.

Otsailaren 14an, nabarmena zen ke usaina. Bide ez ofizialen bitartez jabetu ginen neurketetan dioxinak eta furanoa antzeman zituztela. Osasun Sailak eginiko gomendioen berri ere sare sozialen bidez izan genuen. Ez deirik, ez mezurik, ez erantzunik.

Larunbat goizean, larrialdi zerbitzukoekin jarri ginen harremanetan, dioxinak eta furanoa zirela-eta kezkatuta. Eibarren kea toxikoa bada, Elgetan ez? Zabortegitik 500 metrora bizi diren herritarrei zer erantzun? "Lasai, dioxinek eta furanoak badakite muga non dagoen...?"

Haizeak iparretik joko zuela jakitun, egun horietarako beste herrietan egindako gomendioak -leihoak itxita izatea eta aire librean kirolak ez egitea- geure egin genituen. Gaur, otsailaren 18an, entzun ditugu Elgetari buruz lehen aldiz hitz egiten. Telebistaz. Elgeta gonbidatuta omen dago koordinazio mahaira. Elgetan egingo omen dute informazio bilera. Hori guztia, elgetarrak kontuan izan gabe, Elgetako Udalarekin harremanetan jarri gabe. Etsigarria. Elgetarrok ez dugu hau merezi.

Azkenik, besarkada potolo bat Joaquin eta Albertoren

familiei. Besarkada potolo bat zabortegi horretan arriskuan lan egin duzuenoi, eta lanean diharduzuenoi.

Eskerrik asko Bedelkarri eta komertzio txikiari

IBON LEIBAR, JOSE LUIS LOIDI 'ROSLI'
ETA AMAGOIA LASAGABASTER
BERGARAKO GREBA ASANBLADAREN
IZENEAN
BERGARA

Urtarrilaren 30eko greba orokorrean Bergarako dendari txikiak eta tabernariak izandako jarrera balioan jarri nahi dugu idatzi honen bidez.

Jakin badakigu dendari txiki, ile apaintzaile, saltzaile edo tabernarientzat, azken finean, autonomo txikientzat, norbere negozioa egun batez itxteaz ze eragozpen sortzen dituen. Herriko saltoki handienak ez bezala, lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokarekin bat egin eta ixtea erabaki zenuten, eta hori eskertzekoa da.

Guri dagokigu orain zuekiko elkartasun keinuak egiten jarraitzea. Horregatik, kontsumitu dezagun Bergarako denda txiki, taberna eta bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzten dendetan!

Bergaran bizi, herrixan erosi, danok irabazi.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

JON ETXEBERRIA

Zaldibar

Zaldibarko ezbeharrak, bi pertsonaren desagerpena eragiteaz gain, EAEko hondakinen kudeaketa sistema osoa zalantzan jarri du.

Ardura eta haserre handia sortu du inguruko herrietan –bereziki, Eibarren, Ermuan eta Elgetan– eta lehen mailako garrantzia hartu du politika mailan ere.

Agerian gelditu da hondakinen kudeaketa gure herriko arazo larri bat dela gaur egun.

Hondakin kantitate itzelak sortzen ditugu, horietako asko arriskutsuak, gainera, eta zabortegeak gainezka daude. Zaldibarren ikusitakoak argi uzten du zabortegetan ezarritako kontrolak ez direla nahikoak eta sistemak gabezia nabarmenak dituela. Inork ez daki

oraindik ze hondakin mota dauden pilatuta zabortegean, zergatik erori ziren hondakinak errepidera, eta ezbeharraren ondorengo kudeaketa ere gabeziaz josia egon da.

Ezbehar honek nabarian utzi duen

bezala, arazoa ez da bakarrik ingurugiroan egiten ari garen kaltea, baizik eta ondorio zuzenak ditu gure osasunean ere.

Hala ere, EAEko hamazazpi zabortegeien artean gehienak ekimen pribatuaren bidez kudeatzen dira: hondakinen kudeaketa gutxi batzuen negozio bihurtuta, baina arazorik sortuz gero, kaltea guztiok jasango dugu eta faktura guztion artean ordainduko dugu.

Gertaera honek zalantza asko sortzen ditu: nola daiteke 2020. urtean horrelako kudeaketa eskasa izatea hondakinen inguruan, bere burua aurreratutzat duen gurea bezalako herrialde batean? Gai honen inguruko araudi eta legeak ez al dira nahikoa zorrotzak edo ez al ditugu betetzen?

Gardentasuna eta informazioa nahitaezkoak dira sortutako zalantza guztiak argitzeko, eta baita maila guztietan egon daitezkeen ardura guztiak zuzitzea.

Kaltetu guztiei eta, bereziki, desagertuen senitartekoei, babes osoa zor diegu eta gizarte moduan hausnarketa sakona egin beharra daukagu hondakinen kudeaketa sistema guztia berrikusteko.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Sexu-heziketaz

BEA SEVER

'TTAP'-EN ARGITARATUA

AEBetan kreazionistek eskoletan giza-garapena irakastearen kontra agertu ziren bezala, aspaldi honetan zenbait guraso eta elkarte sexu-heziketaren aurka azaldu dira, familiari dagokiola argudiatuz.

Guraso horien iritzi, hortaz, eduki zehatzetan prestakuntza berezia duten profesionalak baino gehiago daki edozeinek haurra jaio zaiolako, besterik gabe.

Guraso izateak, gainera, seme-alaben gaineko jabetza izatea esan nahi du, antza, eta, ondorioz, gizartean biziko

ez balira bezala, hurrei dagokien edozein erabaki har daiteke.

Baina gizarte bezala, denon erantzukizuna da giza-naturak berezkoa duen aniztasunarekin arazorik izango ez duten herritarrak haztea.

Zenbait pertsonak sexu-heziketa entzuten dutenean zer ulertzen duten irakurtzeak sexuaren gaineko hainbeste urteko hezkuntza gabeziak sortu dituen begirada okertuak uzten ditu agerian.

Errealitatea, berriz, oso bestelakoa da.

Sexuen gaineko formazioen bitartez pertsonen garapenerako eta

elkarbizitarako ezinbestekoak diren gaiak jorratzen dira: norberaren eta besteen ezagutza, onarpena eta begirunea.

Nire burua ezagutzen badut, zer atsegin dudana eta zer ez jakingo dut eta ezetz esateko gai izango naiz; nire burua onartzen badut, autoestimua ona eduki eta presioei aurre egiten jakingo dut; nire burua errespetatzen badut, harreman osasungarriak eraikiko ditut eta mugak jarri.

Sexu-heziketa, beraz, ez doa larrua jotzearekin buruz, baizik eta norberaren sexualitatea modu autonomoan, erantzukizunarekin eta errespetuz bizitzeari buruz.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna
Ilgone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen

aldizkari honetako orrialdeetan

kolaboratzaileek adierazitako

iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Ona da lortu izana nesken futboleko lan hitzarmena"

OIHANA ALDAI FUTBOLARIA

Eneko Azkarate ARETXABAETA Erreginaren Kopa Realarekin irabazita, gorenera heldu ostean, Pozoblancon (Kordoba) ari da Oihana Aldai futbol atezaina (Aretxabaleta, 1992). Emakumezko futbolarietako eta futboleko klubek sinatutako lan hitzarmenaz dihardu. **Historikoa da emakumezko futbolarietako eta klubek sinatutako lan hitzarmena?**

Bai. Beharrezkoa zen geroago eta egitura profesionalagoa daukan sektorean. Bi urte genbiltzan borrokan akordioa lortzeko eta pozgarria da lortu izana.

Gehiago lor zitekeen?

Bai, baina lortu da eta oso ona da lortutakoa. Guk eskatzen genituen gutxienekoak lortu ditugu, baina zerbait badugu lehen ez geneukana. Gehiago lor zitekeela? Bai, baina badugu oinarri bat

Oiartzunen, Zaragozan eta Realean eman dituzu azken lau urteak. Mailarik gorenean. Orain, bigarren mailan zabilte. Eliteko



Oihana Aldai, Andaluzian ateratako argazki baten. O.A.

futbolarietako ez ezik, akordio honek zeuri eta zeure moduko beste batzuei ere egiten dizue mesede?

Akordioa lehen mailako klubean lortu da. Baina klub horietako talde filialetako edo beheko

mailako jokalariei ere eragiten die. Lehen taldearekin partidu jakin batzuk jokatzeko badituzte lan hitzarmena aplikatzen zaie haiei ere. Oro har, nesken futbol osoarendako da ona.

Noiztik diharduzu zuk futbolean?

Etxean hasi nintzen, Aretxabaletan, gazte-gaztetatik, baina 17 urterekin egin nuen debuta lehen mailan, Eibarrekin. Handik itzuli nintzen Mondragoera, bigarren mailara. Azkeneko 10 urteak aritu naiz lehen eta bigarren mailetan.

Gutxieneko lansaria zehazten du akordioak, urtean 16.000 eurokoa. Ondo dago?

Bai. Diru sariari dagokionez, desberdintasun handiak daude jokalarien artean, eta gutxieneko bat izatea ona da. Lehen, ez zegoen halakorik. **Ze beste aspektu nabarmenduko zenuke lan hitzarmenarena?**

Osozunean da inportantea. Bestetik, orain, ondo zehaztu edo arautzen da lanaldia eta horregatik jasotzen den lansaria. Gutxienez, %75eko lanaldia izan behar dute jokalariek. Lehen, txikiagoa izan zitekeen berez lanaldia, nahiz eta gero ordu gehiago sartu. Horretaz gain, beti aldarrikatu izan dugu haurdun geratzeko eskubidea, eta hori jasota geratu da.

Bigarren mailara ere zabaldu beharko litzateke lan hitzarmena?

Bai. Pauso handia izango litzateke. Baina egia da, oraindik ere, bigarren mailako hainbat klub ez

daudela ondo egituratuta, eta, lehenbizi, hori lortu beharko litzateke: egitura eta egonkortasuna klubetan.

Erizaina zara ikasketaz eta ofizioz eta futbola eta lana uztartu izan dituzu. Orain ere bai?

Kordoban, une honetan ez daukat lanik. Denboraldiren erdian, urtarrilean, etorri naiz Kordobara eta maiatzera arte, liga bukatzen den arte, lan bat topatzea ez da samurra izango. Dena den, banabil zerbait topatu guran.

Urte oparoa izan da 2019a: Realerakin Kopa, Urrezko Danborra, DKS...

Oso urte ona izan da, bai. Zeure taldearekin gorenera heltzea oso handia da. Edozeinek ezin dezake hori esan. 2019ko maiatzaren 11ko eguna gorritz markatuta daukat betirako.

Eibarren hasi zenuen denboraldia eta Pozoblancora, Kordobara, joatea erabaki zenuen abenduan, Pozaalbense taldean jokatzeko. Ze eskaini dizu klub horrek etxetik horren urrun joateko?

Beharra neukan Eibartik irteteko. Une zailak bizi izan ditut han. Gauzak ez ziren atera espero nuen bezala. Ikusi nuen ez nengoela toki egokian. Beste premia batzuk nituen. Kostata hartu nuen erabakia, baina animatu nintzen eta oso gustura nago.

ITURRI ONETIK

Soran etxeko hotel eta jatetxea itxi egingo dute

Leintz Gatzagako herri barruan dagoen hotel bakarra, Soran etxean kokatuta dagoena –jaketxea ere bada–, itxi egingo dute hil honen amaieran. Otsailaren 29an. Hala eman dute aditzera Soraneko Loren Larrañagak eta Montse Valeriok. Eskerrak eman dizkiete lagundu dieten guztiei eta urte hauetan guztietan bezero izan diren guztiei. Bestalde, bi hilabete ere ez dira –abenduko azken egunean– Bergaran Zabala jabetxe eta ostatua itxi zutela. Mendeetako erreferentia, Labegarietan.

ALBISTE IZAN ZEN

2006-02-19

Arizmendi Ikastolako San Viatorren, sutea

Arizmendi Ikastolako Arrasateko San Viator gunea erabat kiskali zuen suak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako 200 bat ikasle hartzen zituzten teknologia eskolen eraikinean. Bigarren solairua eta teilatupea erre ziren, eta material guztia ere bai. Teilatuan piztu zen sua zapatutik domekara artean, gauerdian aldean. Lau orduz aritu ziren suhiltzaileak lanean hiru kamioetatik ura botatzen.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Hitzarmena lortu dute emakumeek futbolean

Espainiako futbol ligako emakumeek lehen hitzarmen kolektiboa lortu dute, eta *trending topic* izan da gaia:

@eneritzi: "Zorionak emakume futbolarietako. Bazen garaia!"

@M_unzue6: "Gure lanbide eta kirolerako aurrerapauso garrantzitsua! Oraindik eman beharreko batzuk gelditzen dira! Hau gauzatzeko borrokatu duten guztiengatik!"

@marikazetari: "Irakurketa kluba bertan behera utzi dugu berri on bat dela eta. Zorionak Garazi Murua eta beste emakumeei. Lortu duzue!"



Eraikin berrian, hura diseinatu duen LKS enpresako kide bat, politikariei eta etorkizuneko erabiltzaileei azalpenak ematen. X.G.

Musika etxe berriko lanak atzeratu egingo dira

Enpresarekin duten kontratua betez, obra 100 egun natural atzeratzen bada kontratua eten egingo du Gobernuak, eta beste esleipen bat egin. EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek kezka azaldu dituzte formekiko eta iragarritako urratsekiko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Elkarrekin Arrasatek Juan Arzamendi musika etxeko lanak gelditu daudela plazaratu ostean, Gobernuak prentsa agerraldia egin zuen eguaztenean, musika etxe berriaren lanak gelditu daudela eta. Maria Ubarretxena alkateak eman zituen azalpenak, eta alboan izan zituen, baita ere, etorkizuneko eraikina erabiliko duten Goikobaluko eta Arrasate Musikaleko ordezkariak.

Lehenik eta behin, onartu egin zuten obrak gelditu daudela, eta mezu hau helarazi zuen Maria Ubarretxena: "Obrek atzerapena izango dute, tamalez, baina, nahiz eta atzerapena eduki, obra amaitu egingo da, eta gure konpromisoa adierazten dugu hori bukatzeko".

Obrak zein arrazoirengatik dauden gelditu galdetuta, Udal Gobernuak adierazi zuen ez dutela horri buruzko "informazio ofizialik". Gobernuak urte hasieran sumatu zuen obrak gelditu zirela, eta errekerimendu bat

helarazi zion Lurgoi enpresari. Alkateak adierazi zuen enpresatik jaso duten erantzun ofizial bakarria izan dela obra amaitzeari ez diotela ezetzki esan eta "ekainera arte atzeratuko" aurreikuspena dutela.

Hemendik aurrerako pausoak

Kontratua jasotakoaren arabera, otsailaren 24rako amaituta eduki beharko luke obra Lurgoi enpresari, eta hortik aurrerako atzerapen egun natural bakoitzagatik 2.417 euro ordaindu beharko dizkio enpresari Udalarri, kalte-ordain gisa.

Lanak 5.550.012 eurotan esleitu zirenez, 114 egun atzeratu ostean helduko lirateke atzerapen kalte-ordainak aipatutako %5eko mugara. Hala, ekainaren 17an eten ahalko luke kontratua Udalak, eta, behin hori eginda, alkateak iragarri du beste esleipen bat egingo dutela falta diren obra zatiak beste enpresa bati esleitzeko. Une honetan, lanen %44,64 daude eginda, eta 2.590.112

euroko balioa du orain arte egindako lanak -BEZa barne-. Kostu totalari zifra hori kenduta aterako luke Udal Gobernuak esleipen berria.

Oposizioaren iritzia

Esan bezala, gaia Elkarrekin Arrasatek jarri zuen mahai gainean, aurreko asteko osoko bilkuran. Gobernuak interpelatu zuen, obrak zergatik dauden gelditu galdetuta, eta dagokion batzordean azalpenak emango dizkiotela erantzun zuen EAJko Anuska Ezkurrak.

EH Bilduko Maider Morrasedek Gobernuaren formak kritikatu zituen, batzordean oposizioari azalpenak eman aurretik prentsan azaldu direlako. "Urtarri-

URTARRILETIK LANAK GELDI DAUDE, ETA OTSAILAREN 24RAKO LANAK AMAITUTA EGON BEHARKO LUKETE

laren 27an egindako Hirigintza batzordean gaiari buruz galdetu zuen EH Bilduk. Lanak gelditu daudela eta gaia aztertzen ari zirela adierazi ziguten, eta datu babesaren berme bezala diskrezioa eskatu ziguten. Guk diskrezio hori errespetatu egin dugu, eta tamalgarrira iruditzen zaigu, hala jokatu ostean, gu prentsa bidez informatu behar izatea. Osoko bilkuran esan zuten gaiari buruzko galderak batzordean erantzun zituztela, baina, beste behin, prentsan azaldu dira batzordean azalpenak eman aurretik".

Gaia plazaratu zuen Elkarrekin Arrasateko Igor Urizarrek zalantza azaldu du eurek gaia atera gabe ea Gobernuak azalpenak emango zituen, baina azalpenak eman izana pauso bat dela esan du. Hala ere, azaldu du ez direla behar beste azalpen eman: "Gauza batzuk azaldu gabe geratu dira, gure ustez, eta ez dira behar beste azalpen eman: zenbat kostatuko da esleipen berri bat egitea? Zenbat denbora atzeratuko da? Hori guztia argitu beharra dago, eta Arrasateko herritarrei modu zintzoan azaldu".

Esleipen prozesua

Musika eskolaren lanak 7.500.000 eurotan lizitatu ziren, eta %26 merkeago esleitu zitzaizkion Lurgoi enpresari. Horri buruz zera azpimarratu nahi izan du Udal Gobernuak, ohar bidez: "Lehiaketa publikora hamar enpresa aurkeztu ziren. Prezioari dagokionez, lau enpresa egon ziren Lurgoi enpresari baino prezio merkeagoa aurkeztu zutenak (Moyua, SL Altuna y Uria SA, Iza SA eta Artapena SL); teknikiari, ordea, Lurgoi enpresari atera zuen puntuazio altuena, eta, lehiaketan puntuazio orokorra kontuan izanda, irabazle suertatu zen".

Igor Urizarrek "temerario" hitza erabili zuen osoko bilkuran esleipena definitzeko, baina, eguaztenean emandako datuen arabera, prozesu honetako baja temerarioa %37an zegoen finkatuta; beraz, ez da baja temerarioa egon. Hori definitzeko, enpresen lizitazio prezioarekiko edukitako batez besteko desbiderapena kalkulatu da. Kasu honetan, guztiak zeuden prezio horren azpitik -%22 merkeago, batez beste-, eta ostean %15 gehitzen zaio (%22 + %15 = %37).



Errastiko jatetxea, jendez beteta. IBAI-ARTE

100 lagunetik gora Ibai-arteren afari erromantikoan

Otsailaren 14rako, Ibai-arterek afaria antolatu zuen Bedoñako Errastiko jatetxean, San Valentín ospatzeko. Elkarteko partaideen eta bezeroen artean, ehun pertsonatik gora bildu ziren eta ikuskizunak ere izan zituzten: "Adin ezberdinetako hainbeste mondragoetar elkarrekin afaltzera biltzeko badu meritua; hau ere bada herrigintza", azaldu dute elkarteko ordezkariak.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean elkarretaratzea egingo dute, betiko legez, 12:00etan, Herriko Plazan.

Ludoteka Ibiltaria

Aratusteengatik, asteburu honetan ez da Ludoteka Ibiltaririk egongo. Hilaren 29an egingo dute azken saioa, Musakolan, eta handik aurrera San Andres auzoaren txanda izango da.

Ordutegi bereziak

Musakolako kiroldegia ordutegi aldaketa txiki bat izango du Aratusteen eraginez; martitzenean 19:00etan itxiko ditu ateak, 22:00etan itxi beharrean. Zapatuan normal jardungo dute. Eta BAZek ohiko ordutegia izango du, bai zapatuan, eta baita martitzenean.

Familian Jolasean

Domekan, beste hitzordu bat; 17:30ean, Okendoko ludotekan.

Santa Marinako ludoteka, haurren nahiei egokituta

Gazteen beharrak entzun ostean, kanpo espazioak eraldaketa premia zuela ikusi zuten. Ludotekako txokoak definitu eta landu, ortua sortu eta murala margotu dute, eta, aurrerago, beste bi eremu sortuko dituzte: Lokatz Gunea eta belardiko jolasak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Asteazkenean, Santa Marinako ludotekari egindako hobekuntzen berri eman zuten Txatxilipurdiko eta Udal Gobernuko ordezkariak. "Grisa, hotza eta hezea zen espazio bat argitsua, beroa eta haurren beharrei egokitua izatea nahi genuen. Beraz, haurren eskaera honi heldu genion", azaldu du Itsaso Gallastegi koordinatzaileak. "Parte hartze prozesua ireki genuen honetarako: saioa kanpo espaziotik hasi eta gela lasaian amaitu genuen. Plano baten gainean diseinatu genituen txokoak, bakoitzaren arauak, beharrezko materiala... Luzea izan zen prozesua, baina emaitza ezin hobekia eman zuten", esan du Garazi Azkarate hezitzaileak.

Behin nahierako espazioak definituta, haurrek aurkezpenean egin zieten gurasoei eta Udalari. Ondoren, Udaleko obra lantaldearekin batera zehaztu zen proiektua. Kanpo espazioaren argiztapena, kanpora irteteko atea, ortua, agertokia... etorri ziren jarraian. Haurren segurtasuna bermatzeko, bi lan espezifikoki egin dituzte Santa Marinako ludotekan: alde batetik, kanpoko aparkalekuan pibote batzuk jarri dira harrapaketak ekiditeko; eta beste alde batetik,



Txatxilipurdiko, Pook-eko eta Udal Gobernuko ordezkariak, aurkezpenean. M. BIKUÑA

ludotekatik ortura zuzenean joateko ate bat zabaldu dute

Murala: artistak eta haurrak

Kanpoko espazioari kolorea emateko, Pook Elkartearen laguntzarekin murala margotu dute: Lexuri Doyague, Mari Urizar, Joana Mancisidor, Elena Azkarragaurizar eta Sara Miguelez, hain justu ere. Paraleloa zen beste parte hartze saio bat egin zen haurrekin, murala margotu beharrekia erabakitzeko. Behin haurrekin batera bozetoa eginda, artistek margo-

tu dute kanpo espazioko horma ia osoa. Haurrek ere beraien zatiak margotzeko aukera izan dute.

Prozesu "aberasgarria"

Maria Ubarretxena alkatea eta Garapen Komunitarioko batzordeburu Maitane Muñoz egon ziren egitasmoaren aurkezpenean, eta balorazio hau egin zuen alkateak: "Emaitza bikaina da, baina prozesua are aberasgarriagoa iruditzen zaigu. Haurrak erdigunean jarri eta euren nahietatik abiatu delako".

Interesa piztu du amiantoaren eraginei buruzko hitzaldiak

Hitzaldiaren amaieran, gaiarekin arduratuta zeuden herritarrek galderak egiteko aukera izan zuten

X.G. ARRASATE

Amiantoa hiltzaile isila. Ondorioak Debagoienean izenburupean, solasaldia egin zuten eguaztenean Arrasaten, Kulturako areto nagusian. CCOO, ELA eta LABeko osasun arduradunek, onkologiako erizain Maitane Arteaga eta Asviameko arduradun Jesus Ezkudunekin batera, amiantoaren eraginez kaltetutako biktimen kopuruaz eta hauen egoeraz jardun zuten. Moderatzailea Ainhoa Larrañaga irakaslea izan zen, amiantoaren eraginez hildako baten sende ere badena.

Amiantoaren arriskuak ez minimizatzea, enpresek eta instituzioek euren erantzukizuna onartzea eta biktimen kalteordain funtsa sortzea eta langileen eskubideak bermatzea jorratu zituzten, besteak beste. Maitane Arteaga onkologiako



Hitzaldiaren une bat. AMAIA ARANEGI

erizainak amiantoarekin kontaktua izatearen arriskuak eta honek eragin dezakeen gaixotasunak zeintzuk diren azaldu zituen. Galderen txandan, besteak beste, erradiografiak eraginak detektatzeko nahikoa al diren galdetu zuten.



+ 1.200
bezero baino gehiago

Liderrak zuri esker

24 orduko zerbitzua
Pieza guztiak barne
Euskarazko zerbitzu profesionala

OROTARIKO ZERBITZUA **100€** /hileko

ARRASATE Garaia Berrikuntza Gunea
943 903 450 www.bertako.eus

arbolapeta



arrasate

beinke

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

83 urterekin, gazte asko baino sasoi hobearekin

Amadeo Ezpeleta fin-fin dabil mendian. Iaz, 40 kilometroko eta 2.000 metroko desnibel positiboko hamaika mendi-proba egin zituen, eta, berriki, Euskal Mendi Federazioak aitortza egin dio. "Pozez beterik" jaso du eta "mendian jarraitzeko gogoz" dago

Xabi Gorostidi ARRASATE

Kirol munduan izar distiratsua asko dago, baina, era berean, isiltasunean eta foku mediati-koetatik kanpo, maila eta meritu itzela duten kirolariak ere badaude. Eta horietako bat da, ezberrik gabe, Amadeo Ezpeleta mendizale arrasatearra.

83 urte beteko ditu martxoan eta une honetan duen sasoi puntua goraiatzeko modukoa da. Iaz, adibidez, makina bat mendi probatan hartu zuen parte, eta ez nolanhiko probak, gainera. Euskal Mendizale Federazioak antolatzen dituen Iraupen Luzeko Ibilaldietan aritu da Ezpeleta: 40-48 kilometro arteko lasterketak izaten dira, mendirik mendi egiten direnak, 2.000 metroko desnibel positiboarekin. Era horretako 20 proba antolatzen dituzte denboraldi, eta iaz, Ezpeletak hamaika egin zituen; proben erdia baino gehiago. "Zortzi-bederatzi ordu inguru tardatzen dugu probak egi-



Amadeo Ezpeleta, "ezinbesteko" zaizkion esku makilekin, Monterronen. X.G.

teko, gutxi gorabehera; batzuk azkarrago joaten dira, baina guk gure erritmora egiten ditugu".

Sekreturik ez

Zortzi hamarkadak beteta, halako hankak eta halako gorpu-

tzaldia edukitzeko sekreturik duen galdetuta, hona Ezpeletaren erantzuna: "Ez dut ezer berezirik egiten. Astean bizpahiru aldiz entrenatzeko ohitura dut. Eguraldi ona dagoenean irteten naiz, eta 28-30 kilometroko bueltak



Amadeo Ezpeleta, saria jaso zuen unean. EKAITZ ANDA / EMF

'Shebe Peña' saria, jaso berri

Euskal Mendizale Federazioak urtero ematen dio sari hori Ibilbide luzeko probak egiten dituen norbaiti, eta aurten, Ezpeleta saritu dute. Amurrion pasa den barikuan egindako ekitaldian jaso zuen aitortza: "Oso polita izan zen, eta jarraitzeko indarra ematen dit".

egiten ditut, bospasei ordukoak. Kurtzebarri aldera joaten naiz sarri, Degurixa inguruko parajeak asko gustatzen zaizkit eta".

Lesio aldetik ere zorte ona duela dio: "Ez dut gorputzeko arazo askorik edukitzen. Batzuek edukitzen dute guneren bat edo beste bereziki kaltetuta: orkatilak, belaunak... baina ez da nire kasua. Arazo gutxi ematen dituen auto zahar moduko bat naiz ni". Jana eta edaria zaintzearena gero eta muturrerago eramaten dituzte gaur egungo kirolariak, baina hori ez da Ezpeletaren

kasua: denetarik jaten dut, eta astean pare bat aldiz irteten naiz lagunekin txikiteoan; hori bai, bi edo hiru txikito edaten ditut, gehiago ez".

Berandu hasitako kirolaria

40 urte izan eta 80 urte bete orduko Amadeo Ezpeleta bezala egon nahi duena oraindik garaiz dabil: "Nahiko berandu hasi nintzen ni kirola egiten, 40 urterekin edo. Gazte ezkondu nintzen, eta semeak hazita eduki arte ez nuen kirola egiteko denborarik izaten".

12 urteko arrasatearra, 'Egunean behin' jokoan lehen sailkatu

Izadi Ramos du izena, eta aitortu du etxeko partaide guztien artean jokatzen dutela bere kontutik

X.G. ARRASATE

Egunean behin jokoak gero eta jende gehiago erakartzen du, eta horrek are zailago egiten du kuadrillako, herriko eta sailkapen orokorreko goiko postuetan egotea. Une honetan, 68.000 jokalarik inguru daude, eta horien artean lehena izatea txalotzeko moduko lorpena da. Hala, joan den astean, Izadi Ramos 12 urteko arrasatearrak lortu du sailkapen orokorreko lehen postua. Hain gazte izanda nola lortu duen galdetuta, aitortu du ez duela bakarrik jokatzen: "Etxean



Izadi Ramos, etxekoekin batera. I.R.

lau kide gara, lau kontu ditugu, eta lauron artean jokatzen ditugu partida guztiak". Sekretua konfesatu arren, lortutakoa ez da makala. Zazpi probetan, batez beste, 9,43 galdera asmatu zituzten; 39,86 segundotan erantzun zituzten hamar galderak, eta 593,98 puntu pilatu zituzten. Aste osoan egindako lan finaren ostean, domekan adi-adi ibili ziren sailkapena jarraitzen: "Urduritasunez bizi genituen 00:00ak jo arteko azken uneak, eta poz handia hartu genuen lehenak ginela jakinda. Aste honetan, zerbait egingo dugu ospatzeko".

Arrasaten ia 700 jokalarik

Ttak! taldekoek Arrasateko herri taldea sortu dute hirugarren denboraldirako, eta aste honetarako, jada, 693 jokalarik pilatzea lortu dute.



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

Ke arteko egunak

Kutxatutako ke baltza bolo-bolo dabil haixiek harrotute Zaldibar, Ermua, Eibar, Elgeta eta inguruotan. Zaldibarren dauen zabortege pribatuak, iñungo kontrol barik, bertara ailegau izan dan materixala jaso izen dau atzeneko urtiotan. Amiantue, adibidez, isolatute eta bakarrik gorde biharrien, beste hondakin batzuek nahastute topatu daue.

Ke arteko egunak filmaren protagonistaren antzera, barriro be trill egin dou, ustez, aspaldi atzien itxitako gatazkiaz. Makiñatxo bat buruko min emun euskun zabor dontsuak zatorzulotik urten dau bidien bi hildako eta hamaika guzur ekarritte. Inguruko herritarren eta bertan biharrien dauzen osasune jokuen dauenien, administraziño publikuan jokaerie ez da bape gardena izen; berandu eta txarto ibilli da.

Ordue da, Euskal Herrixen ekoizpen eta kontsumo ohituren gaineko hausnarketa sakona egitteko. Egindako erroriek onartiaz gain, neure ustien, barriro be heldu geikixo oin dala zortzi urte hasitako bidiai, hau da, birziklajian oiñarritutako gizarte ereduaren bidiai.

Ikusmen murriztua herritarrei hurbiltzen

Retinosis Gipuzkoa Begisare elkarteak erakusketa interaktiboa antolatu du aste honetarako Kulturaten, ikusmen murriztua duten pertsonen errealitatea ezagutzeko. Helburua izan da egoera hori bizi dutenen errealitatea ulertzea

Amaia Aranegi ARRASATE

Retinosis Gipuzkoa Begisare elkarteak ikusmen murriztuak eragindako hainbat gipuzkoarrek osatutako elkarte da, eta haiek bizi duten egoera ikustarazteko lanean jarduten dute.

Ikusmen murriztua itsutasuna baino maila bat gutxiago da eta biztanleriaren %2k baino gehiagok sufritzen duen ikusmen-urritasuna da. Endekapenezko gaixotasuna da erretinosi pigmentarioa, eta kanpo ikusmena nahiz ikusmen zorroztasuna murriztuz doa poliki-poliki bitzta guztian zehar. Baina ez da ikusmen murriztu egoerara eramanezko gaixotasun bakarria. Ikusmenarekin lotuta beste hauek ere eragin dezakete: endekapen makularra, erretinosi pigmentarioa, aniridia, kornean orbainak, erretinopatia diabetikoa, glaukoma eta zain optikoan arazoak.

Hala, jendeak egoera hori ulertzeko eta horren ondorioak zein-

tzuk diren ezagutzeko, erakusketa interaktiboa antolatu dute Kulturaten, eta ekintza desberdin asko egin dituzte Arrasaten, ikusmen murriztua herritarrei hurbiltzeko: hitzaldiak eta Udaleko eta Ibai-arte merkataritza elkarteko kideei formakuntza eta sentsibilizazio jardunak eskaini, besteak beste.

Arrasateko komertzioetan ere kanpaina bat jarri dute martxan, eta dendetan *Hemen kontuan dugu* pegatinak jarri dituzte. Pegatina horiek adierazten dute ikusmen murriztua duten pertsonak identifikatzen dituztela eta badakitela haiekin nolako harrera izan behar duten.

Mugikorrerako aplikazioa

Ikusmen murriztua duen pertsona batek nola ikusten duen ulertzea zaila izan daiteke. Ikusmen akatsak ugariak izan daitezke eta ikusmen galera maila ezberdinetan adierazi daiteke. Horregatik, elkarteak

mugikorreko aplikazioa garatu du, *Tengo baja visión* izenekoa, ikusmen murriztua duen pertsona baten lekuan jartzeko aukera ematen duena. Honela dio elkarteko kide Amaia Gereñuk: "Mugikorreko aplikazio hau edonork deskargatu dezake bere mugikorrean. Bertan, sintoma desberdinak daude, eta,



Erakusketaren inaugurazioan, astelehenean, Kulturaten. GOIENA

aplikazio honen bitartez, ikusmen murriztua dugunok mugikortasunean ditugun eragozpenak ezagutu ditzake". Ikusmen birtualeko betaurrekoekin era-

biltzeko, aldiz, *Tengo baja visión VR* deitzen da jaitsi beharreko aplikazioa. Doakoa da eta Android eta Apple mugikorrean dago eskuragarri.



Ikusmen murriztua duten pertsonen daramaten txapa. GOIENA

'Ikusmen murriztua dut' bereizgarria

Elkar ulertzea erraztu eta giza interakzioa hobetzeko asmoz, ikusmen-urritasuna duen pertsona ikusgarri egiteko eta ikusmen murriztua duen pertsona bezala identifikatzea lortzeko, bereizgarri hori sortu du Begisare elkarteak.



Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko kideak eta entrenatzaileak. ARRASATE DRAGOI TALDEA

Arrasateko 150 gimnasta denboraldian barrena

Otsailaren 1ean hasi zen gimnasia erritmikoaren denboraldia, Bergaran, eta Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldeko neskek gogor ari dira lanean. Gimnasia erritmikoa eta aerobikoa eskaintzen du taldeak, baina orain, itzarote-zerrenda dago

Amaia Aranegi ARRASATE

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldean, 5 eta 20 urte bitarteko 150 gimnasta daude. Gimnasia erritmikoan, A mailara arte lehiatzen dira eta aerobikoan, berriz, estatu mailan dagoen maila altuenera arte.

Gimnasia erritmikoan, bana-ka eta taldeka lehiatu daiteke eta neskatila bakoitzaren ezau-garrien arabera antolatzen dituzte taldeak.

Otsailean Bergaran hasi zen denboraldia eta, hain zuzen ere, bertan izan ziren seniorreko A mailakoak, B mailakoak, gazteen B mailakoak eta infantileko A mailakoak, eta aurrera begira beste txapelketa batzuk dituzte, nahiz eta kluba ez dagoen horiei begira. "Kluba ez dago estatuko txapelketei begira, gure helburua ahalik eta gimnasta gehienei gimnasia erritmikoa eta aerobikoa egiteko aukera ematea da, bakoitzak bere mailan", dio Edurne Elkoro entrenatzaileak.

Arrasaten errotuta

Arrasaten errotuta dago kirol hori eta klubak urte asko daramatza herrian gimnasia erritmikoa egiteko aukera eskaintzen: "Poliki-poliki, kirol hau herrian ezagutzera ematen saiatu gara eta klubaren filosofia mantendu dugu. Urtean zehar erakustaldi pare bat egiten saiatzen gara, baita txapelketaren bat ere. Herrian talde bat dagoela ikusteko eta gure lana erakusteko antolatzen ditugu ekintza hauek".

Itzarote-zerrenda

Momentu honetan, itzarote-zerrenda daukate Arrasate Dragoi Taldera sartzeko: "Limite fisikoa daukagu eta, hori

"HELBURU NAGUSIA GIMNASIA ERRITMIKOA ETA AEROBIKOA EGITEKO AUKERA EMATEA DA"

dela eta, taldeetan limite bat jarri behar izan dugu. Eskaera asko ditugu, baina espazio gutxi. Entrenamendu-saioak Uarkape pilotalekuan eta institutuko gimnasioan, Musakolan, egiten ditugu".

Bost pertsona ibiltzen dira entrenatzaile lanetan, bakoitzak bere taldeak dauzka, baina elkarri laguntzen saiatzen dira: "Entrenamenduak mailaren arabera izaten dira. Gaztetxoek astean bi ordu entrenatzen dira eta maila altuenak dituztenak lau ordu eta erdi entrenatzen dira. Baina mailaren arabera da. Aerobikeko taldeak, estatu mailako txapelketara doazenak, gehiago entrenatzen dira, zapa-tuak barne".

Hurrengo txapelketa martxoaren 8an izango da, Donostian: udaberriko torneoa, hain zuzen. Izan ere, martxoan txapelketa asko egongo dira; aerobikeko Euskadiko txapelketa, adibidez. Aste Santu ondoren, final guztiak izango dira.



Eneko Carrascal atleta arrasatearra. GOIENA

Eneko Carrascal atletak zilarra eskuratu zuen asteburuan

Atleta arrasatearrak zilarra eskuratu zuen aurreko asteburuan pista estaliko 23 urtez azpiko txapelketan

A.A ARRASATE

Aurreko asteburuan Salamancan jokaturako 23 urtez azpiko txapelketan, pista estalian, jauzi hirukoitzean zilarra eskuratu zuen arrasatearrak, 15,71 markarekin, bere marka pertsonaletik gertu (15,74).

Abenduko azken astean lesionatu egin zen, eta, bi hilabete entrenatu gabe egon ostean, emaitza onak lortu zituen asteburuan: "Abenduko azken astean lesionatu egin nintzen. Denbora batez ez naiz entrenatu, eta, horregatik, ez nuen uste txapelketa honetara helduko nintzenik.

Txapelketara ea zer pasatzen zen joan nintzen, eta, egia esan, oso ondo joan zen eta oso pozik nago lortutako emaitzekin. Bi hilabete entrenatu gabe egon ostean, berezia izan zen asteburuan bizitako txapelketa".

Hurrengo txapelketak

Asteburu honetan Donostian Euskadiko txapelketa absolutuan arituko da arrasatearra lehian, eta hurrengo asteburuan Espainiakokan: "Denboraldia ondo doa, ondo ikusten dut nire burua, teknika hobetu dut eta helburua marka hobetzea izango da".

Mondrate taldeak etxean jokatu du, domekan

Mondrate domekan etxean lehiatuko da sailkapenean hamahirugarren postuan dagoen Arca-ELG Arkune taldearen aurka. Partidua arratsaldeko seieta izango da, Musakolako kiroldegian.

Ligako hamasei partidu jokatu dituzte jada eta Arrasateko taldea bederatzigarren postuan dago sailkapenean, hogeita hiru punturekin. Aurretik beste hamabi partidu dituzte jokatzeko eta hogeit puntuko aldea daukate lehenengo postuan dagoen Mahastiak Labastida taldearekin.

Domeka honetan etxean jokatu dute, eta, etxean lortutako emaitzei erreparatu, emaitza ona lortzea espero dute.

ARTk igoera faseko laugarren garaipena lortu zuen asteburuan

Arrasate Rugby Taldea Bilbon lehiatu zen zapatuan, mailaz igotzeko aurkari zuzena den Bilboko Unibertsitario B taldearen aurka. Arrasatearrak aurretik joan ziren markagailuan atsedendira arte, eta bueltan, alde hori handitzeko gai izan ziren. Lehen itzulia amaitzeko partidu bakarra falta da eta Arrasateko taldeak bere jarraitzaileekiko aldea handitu egin du. Sailkapenean lehenengo postuan dago hemezortzi punturekin eta bigarren postuan Uni Bilbao, hamar punturekin.

Aste honetan atsedena izango dute Barrutiaren mutilek eta datorren astean Zornotzan jokatu dute.

'Ene ba!' antzerkia Amaia Udal Antzokian

Txalo antzerki taldearen eskutik, Inauterietako domekan 'Ene ba!' antzezlana ikusteko aukera egongo da, 19:30ean, Amaia Udal Antzokian. Eskarmentu handiko bost aktore egongo dira ohol-tza gainean eta umorezko antzezlana eskainiko dute

Amaia Aranegi ARRASATE

Abenduan estreinatuta zuten antzezlana, aurreko asteburuan Bergarako seminarioan izan ziren eta domeka honetan, iluntzeko zazpi erdietan, Amaia Udal Antzokian izango dira. Eskarmentu handiko bost aktore egongo dira ohol-tza gainean: Mikel Laskurain, Ane Gabarain, Asier Sota, Alazne Gutierrez eta Jose Kruz Gurrutxaga.

Begoña Bilbao da zuzendaria eta autore frantses batek idatzitako istorioa kontatzen dute. *El nombre* pelikulako bertsio bat da eta izena asmatzeak dakarren gatazka islatzen du. Honela dio Mikel Laskurain aktore bergararrak: "Familia bateko afari batean kokatzen da istorioa. Antzerkian, nire koinatua eta haurdun dagoen emaztea etxera datoz afaltzera eta umearen izena galdetzerakoan eta horren inguruan hitz egiten hasterakoan hasten da gatazka". Etxe askotan egoten diren haserreak eta egu-



Mikel Laskurain eta Ane Gabarain. TXALO

nerokoak ekarriko dituzte ohol-tza gainera eta bost aktoreen lana nagusituko da antzezlanean; taula gainean etxeko sala egongo da, sofa bat, mahai bat, atea eta testua. Mugimendu aldetik ez da gauza berezirik egongo.

Umorea, protagonista

Txalo antzerki taldearen ezau-garri nagusietakoa umorezko antzezlana egiten dituztela da; ez denetan, baina bai gehienetan. Antzerki hau ere barre egitekoa da: "Ondo pasatzeko eta barre egiteko antzezlana da *Ene ba!* Eskaini ditugun emanaldietan jendea irribarrearekin irten da antzerkitik".

Antzezlana helduei zuzenduta dago eta barre egiteko eta euskaraz disfrutatzeko aukera egongo da. Abenduan estreinatuta zuten eta harrera ona izan du ikuskizunak: "Jendeari asko gustatu zaio gure lana, pozik gaude jasotako iritziarekin".

Eskarmentu handiko bost aktoreak domekan, otsailaren 23an, iluntzeko zazpi eta erdietan Amaia Udal Antzokiko taula gainean izango dira *Ene ba!* umorezko lana eskaintzen. Sarrerak hamar eurotan egongo dira salgai www. arrasate.eus atarian eta leihatilan.

Rat-zinger gaztetxean

Bilboko Rat-zinger musika taldeak kontzertua eskainiko du gaur gaztetxean. Punk eta hardcore estiloko taldea da eta 2009. urtean sortu zen. Elizaren eta faxismoaren aurkako gaiak jorratzen dituzte, besteak beste, eta ehun kontzertu baino gehiago eman dituzte. Gaur, 22:00etan hasita, Piztupunk eta Sr. agente taldeekin izango dira. Sarrera bost euro da.



GOIENA

'Kontrako eztaeririk' liburuan oinarrituta, bertso saio literarioa

Kontrako eztaeririk liburuak Uxue Alberdik hamabost bertsoari egindako elkarrizketak jasotzen ditu. Otsailaren 26an, eguaztena, Danele Sarriugarte idazleak liburuak zenbait parrante hautatu eta haien inguruko gaiak jarriko dizkie Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal eta Oihana Iguaran bertsoari. Literatura eta bat-bateko bertsoak, teoria feminista eta fikziozko egoera konkretuak uztartuko dituzte.

Amaieran, parte hartzaileen eta entzuleen arteko tertulia egiteko aukera izango da. Bertso saio literarioa eguaztenez arratsaldeko zazpitan izango da, Kulturateko areto nagusian.

Arrasate Musikaleko ikasleen Inauteri kontzertua gaur

Arrasate Musikaleko ikasleek Inauteri kontzertua eskainiko dute gaur, arratsaldeko sei eta erdietan, Amaia antzokian. Kontzertuan, musika eskolako talde desberdinak ikusi eta entzuteko aukera egongo da: banda gaztea, orkestra gaztea, metal taldea, hari-taldea, perkusio taldea, folk taldea eta talde mistoak, besteak beste.

Guztira, 120 bat musikari egongo dira agertokian, denek zorroturik joko dute, eta giro alai sortuko da. Sarrera bi euro izango da.

Aratustekak direla eta, martxoaren 1ean, bandak Inauterietako ohiko kontzertua eskainiko du, 12:30ean, Amaia antzokian.

ONDO PASA ARATUSTEETAN

ZATOZ FESTARA!

ARATUSTEAK 2020 ARRASATEN

RUMBA • OKORETEGI • MONTE • TXOKO II • ITZALA • ITURRIOTZ



Xementerio, argazki zaharreko antzerako osaeran: Pitxi Alonso; Jose Antonio Guerrero; Asier Robledo eta Mikel Alonso. J.I.



Xementerio, hastapenetan: ezkerrean, Gorka Arias; kantuan, Iban Elejalde. XEMENTERIO

Xementerio, bizi-bizi berriro

Taldeko abeslari izandako Iban Elejalderen omenez 2016. urtean kontzertua egiteko berriro elkartu eta gero –azkenekotik bederatzirterera–, martxan jarraitzea erabaki zuten 80-90eko hamarkadetako herriko punk talde ezaguneko kideek; eta horretan dira

Julen Iriondo ARAMAIO

Lagun baten galerak batu zituen berriro; eta oroitzen zirela bizi baina, oholtzako zirrara sentitzen jarraitzea nahiago zutelako pentsatu bide zuten, 2016ko uztaileko gau hartatik aurrera ere talde gisa jarraitzen dute eta Xementeriokoek: entseatu eta kontzertuak eman, egurra!

80ko hamarkadako azken urteetan mamitu zen Xementerio, beste talde batzuetan ziharduten musikariak elkartuta; Gorka Arias –ahotsa–, Pitxi Alonso –baxua–, Jose Antonio Guerrero –bateria–, Iban Elejalde –ahotsa– eta Mikel Alonso –gitarra– ziren hasierako kideak [ikus argazki txikia, ezkerretik eskuinera]: "Hasieran, Iban eta Gorka abeslariak ziren, baina gero, gitarra jotzen hasi zen Gorka; geroago, Ibanek utzi egin zuen taldea, eta Ruben Arriolabengoa hasi

zen abeslari. Handik aurrera, 1997an Mexikora joan nintzen ni, eta jotzeari utzi genion. Bueltan, zoritxarrez, Iban hil egin zen, 2006an". Hori litzateke Xementerioren lehen aldiaren nondik norakoaren kontakizuna, taldean hasieratik diharduen Jose Antonio Guerrero bateria jolearen ahotan.


Eta esan daiteke orduan –zorritxar haren ondorioz–, 2006 hartan, hasi zela dena berriro; edo handik hamar urtera, nahibada. Elejalderen heriotzaren urteurrenerako, haren omenezko kontzertua prestatu zuten lagunak; ordurako batu zen, berriro, Xementerio. Beste zortzi urte igaro ziren, ordea, berriz ere elkartzerako; zortzi urte, berriz elkartzeko, urtebete geroago eta taldeko abeslari izandakoaren heriotzaren hamargarren urteurrenagatik egitea

pentsatu zuten omenaldirako prestatzeko. 2015ean entseguekin hasi, eta 2016ko uztailean –herriko jaien barruan–, kontzertua! Eta teoriarik hori amaitu behar zuten denak; teoriarik.

Aspaldiko garaiak gogoan

Arrasate Telebistaren artxiboan arakatuta, 1990ean Iban Elejaldek berak kontatu zuen, garaiak ziren taldearen hastapenak, urte pare bat lehenago; baliabide gutxi eta gogo handiarekin. "Hasi ginen egiten hemen talde batzuk, baina talde haiek desegin egin ziren, eta haietatik denetatik bat sortu zen. Tipo bati eskatu genion bere instrumentuak guri uzteko; utzi zizkigun, hasi ginen entseatzeko, eta badaramatzagu bi urte", zioen Elejaldek.

Utzitako instrumentuekin jardun zuten lehenengo kontzer-



J.I.

"Beste taldeei eskatutakoak ziren tresnak"

J. ANTONIO GUERRERO
BATERIA JOLEA


Guerrero da 80ko hamarkadan hasi zen Xementerio hartatik gaur egun ere taldean dauden hiru kideetako bat.

Nola gogoratzen dituzu hasiera haiek?

Aurretik, beste talde bat genuen guk [Alonso anaiekin], Avalancha izenekoa. Heavyak ginen eta okindegian entseatzeko genuen. Gogoratzen dut oporretatik bueltan bi hauek esan zidatela: "Taldea bat egin dugu, zuk bateria joko duzu". Ez dudana gogoratzen da Gorkak eta Ibanek ze talde zuten aurretik.

Baliabide gutxi eta ilusio handia zenuten.

Bai. Kontzertuetara joaten ginen eta jotzera joandako taldeei eskatzen genizkien instrumentuak hiru abesti jotzeko. Haiek utzi, mahaikoei komentatu eta agertokira.



J.I.

"Izugarrria da Xementerioko kide izatea"

ASIER ROBLEDO
AHOTSA

Robledo da gaur egungo Xementerio taldeko kide gazteena, sorrera hartan ez zegoen bakarra.

Taldea sortu zenean, non zinen zu, zer zinen, bazinen ezer?

Pentsamendua ere ez nintzen; bai, zera! [1994an jaio zen]

Noiz izan zenuen euren berri? Gogoratzen duzu txikitik Xementerioren berri eduki izana?

Bai, noski. Gorka eta Iban familiakoak ditut, eta txikitatik izan dut euren berri, bai.

Eta orain euren parte izate hori?

Izugarrria da, ez dakizu ondo! Horregatik motibatzen naiz hainbeste kontzertuetan eta. Bueno, azkenean, neu horrelakoa izan naiteke edozein kontzertutan, baina desberdina da, motibazio desberdina da.

tuetan. "Diru apur bat atera genuenean, gitarrak eta anplifikatzaileak erosi genituen; bateria erosteko, kreditu bat eskatu genuen bankuan. Lokalari dagokionez, geure lokalean entseatzen genuen hasieran; baina txikia zen, eta beste bat eskatu genion Udalarari, eta kiroldegiko bat utzi ziguten. Baina jendea kexatu egiten zen, eta joan egin ginen handik. Udalarari matraka eman genion, eta zine aretoa utzi ziguten, azkenean", zioen Elejaldek.

Orainaldira itzulita, Jose Antonio Guerrerok berretsi egin ditu Elejalderen duela 30 urteko hitzak: "Osoko bilkuretara eta dena joaten ginen: 'Noiz aztertu behar da hau [lokalarena] osoko bilkuran?'. Eta hantxe agertzen ginen; kar, kar, kar".

Zirraragarria zaie taldekideei Iban Elejalde aipatutakoak esaten ikustea, ATBren irudietan, erreportaje honetarako gaur egungo entsegu lokalean bilduta; zirraragarria, hunkigarria: "Hunkigarria da, baina horrela da bizitza. Badakizu zer esan ohi den: 'Inor ez da hiltzen, ahazten ez badugu'".

Xementerioko kideentzat euren "bizitza" zen garai hartan taldea, Guerrero bateria jolearen arabera: "Hiruzpalau egunez etortzen ginen lokalera astero. Litro batzuk garagardo hartu, hemen sartu eta jo eta su, orduak eta orduak. Nahikotxo abesti egin genituen, eta, garai hartan, gaztetxeekin-eta nahikoa mugimendu egoten zen, kontzertuak, eta kontzertuak, eta kontzertuak. Malaña taldekoekin egin genuen bira bat Euskadin...".

la hogeitau urte igaro ondoren...

1997an utzi zioten Xementeriokoek jotzeari, eta, 2007koaren ondoren, 2016an igo ziren berriro agertokira. Hasiera batean Iban Elejalde gogoratzeko egun bakarrek itzulera behar zuena, baina, ez zen hor geratu: "Asmoa ez zen jarraitzea, baina berotu egin ginen: 'Zer egingo dugu, entseatzen jarraitu? Bai, bai... Agian, beste kontzerturen bat...'. Ruben Arriolabengoa Malagan bizi zen ordurako, eta haren ordeztu Asier Robledo fitxatu zuten talderako. Zein hobeto, hasierako taldeko Gorka Ariasen iloba eta Iban Elejalderen lehengusua baino?"

Zuzenekoan, taula gainean, sentitzen den hori izan zen tal-



2016ko kartela. IBAN ASTONDOA

dekideak jarraitzea bultzatu zituen: "Bai, noski, entseatzea ondo dago, baina onena da jotzea. Hori da soinua, hori! Kar, kar, kar". 20 urte pasa dira, dena dela, eta ez alferrik; gauzak ez dira lehen moduan. "Entseatzeko zailtasun gehiago ditugu: ikasketak, lana...", dio taldeko kide berriak, Asier Robledok, buruarekin ezetz eginaz, gehiago nahia adierazi guran moduan. Guerreroren azalpena, gaur egun ez dutela noraino iritsi helbururik ere, "gozatzea" dela nahi duten bakarra.

APARTEKO HELBURURIK GABE, BAINA KONTZERTUAK EGITEKO GOGOZ JARRAITZEN DUTE



2016ko kontzertuan brindisa egiten. XEMENTERIO

Iban Elejalderen aldeko brindisa

2016an bete ziren hamar urte taldeko abeslari izandako Iban Elejalde hil zela, eta hura gogoratzeko antolatutako kontzertuan bere omenezko brindisa ere egin zuten. Agertokietara bueltan, Elejaldek eurretakoa izaten jarraitzen du.

"Abestiak eginda daude, ezta? Entseatu, jo eta aurrera", Robledok ondotik. "Ez dugu abesti berririk egin, lehengo abestiekin gabiltza. Baina nahikotxo ditugu, eta, orduan, batzuetan, batzuk sartzen ditugu; beste batzuetan, beste batzuk...", Guerrerok arrapostu. Musika giroa ere ez da askorik aldatu aurreko garaietatik: "Eman ditugun kontzertuetan antzerako giroa egon da, ona, gustura ibili gara".

2016an itzuli zirenetik, ez da kontzertu askorik egiten ari Xementerio, baina batzuk bai: 2018an, etxeko Eguzkierripa Rock jaialdian izan ziren, adibidez, baina Aramaiotik kanpo ere bai; Legazpin, esaterako. Iaz, berriz, Arteak Ireki ekimenaren barruan jo zuten etxean, Musakolako jailetan ere izan ziren, eta baita Gasteizen ere, Hala Bedi tabernan.

Aurrera begira, lotutakorik ez dute; ohikorik ez, behintzat. Gogoia bai, ordea, Robledoren arabera: "Nik, behintzat, bai, hauek ez dakit [Alonso anaiei begira]". Alonsotarrek harrapatu dute mezua: "Indirekta izan da hori". Guerrero, bitartekari: "Denbora gutxi entseatzeko". Baina Robledok: "Baina, azkenean, denbora atera egiten da, nahi izanez gero. Egingo dugu zerbait". Oraingoz, apirilaren 18an, lokaleko taldeek egingo dute kontzertu bat, musika eki-poak berritzeko dirua batzeko, eta han izango da... Xementerio.



ARAMAIOKO BERTSO ESKOLA

Herriko bi taldeak finalerdietan

Kuadrilla Artekoaren ligaxkako azken saioan, Izenbakuek Bazaar Xanmapelezuin taldekoei irabazi, eta finalerdietarako sailkatu ziren; gainera, multzo buruen ostean puntu gehien lortuta. Martxoaren 7an izango dute finalerdia, Sastiñan, Zalduondokoen kontra. Astebetara, Gasteizko Errexala izango dute kontrario Konde Basoko Iluek, Amurrión.



ALAIK

Elejalde eta Kortabarria nagusi

Alaiak erretiratuen elkartean mus txapelketa egin zuten aurreko zapatuan, eta Antonio Elejalde eta Bittor Kortabarria izan ziren nagusi; eurentzat, txapela eta urdaiazpikoa. Ramon Altuna eta Angel Astondoa izan ziren bigarren, eta bakailaoa izan zuten sari. Hirugarrenak Izaskun Ormaetxea eta Jesus Garitaonandia izan ziren, eta gazta irabazi zuten.

Klubn Artekoa etxean eta trinket finalerako sailkapena

Aramaioko frontoiak Euskal Herriko Klubn Arteko Txapelketako partidua hartuko du gaur, 19:00etan. Etxeko pilotariak Zeanuriko Joko Alai klubekoekin kontra ariko dira, eskuz binaka, kadete mailan. Bestetik, trinketeen, eskuz binakako gazteen finalerako sailkatu dira aramaiotarrak. Hilaren 29an izango da, Txukun Lakuaren kontra.

Inauterietan mozorrotzeko eguna bihar, zapatua

Bazkalurrekoak bakoitzaren kontura joango dira aurten, ez dago kalejirarik. Eskolako jangelan sabela bete, eta 17:30ean abiatuko dira mozorroak plaza-ara, lehiaketa, txokolate-jan eta disko festarako. Biharkoaren ostean, martitzen arratsaldean -14:30- egingo dute eskolakoekin Inauteri festa. 17:00etan, berriz, tailerra egingo da ludotekan.



Ibai Zangitu eta kuadrilla, iazko desfilean, *Corriendo* mozorroarekin. IMANOL SORIANO

Mozorro festak eztanda egiteko ezin gogotsuago

Aratuste jaiak berotzen hasteko, musika eskolako dantzariak emanaldia eskainiko dute gaur kiroldegian. Herritarrek mozorroei azken ukituak ematen dihardute egunotan, eta domekan herriko kaleetan sortuko den jai giroaren zain daude

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Leizarra musika eskolako dantzariak –hamar taldetan banatuta– eta txistulariek Egubakoitz Argal ikuskizuna eskainiko dute gaur, egubakoitza, Ibarra kiroldegian (18:00). Mimo jantzita dantza bana egingo du talde bakoitzak, eta bukaeran, elkarrekin beste hiru eskainiko dituzte: polka irlandarra, pasodoble bateko koreografia eta *Txulalai*. Herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara.

Herri bazkari jendetsuak

Domekaren zain daude herritarrek, eta hori antzeman da azken egunotan herrian. "Mozorroa gertatzeko lokaleko gil-

tza barik geratu dira Arkupen, eta jende mordoak dabil han", jakinarazi du Karnabalen Lagunak taldeko Ibai Zangituk. Kuadrillek, baina, isilean dihardute lanean eta inork ez du gura mozorroaren berri eman, ezta Zangituk berak ere.

Horregatik, kuadrillen desfileak ikusmin handia sortuko du eguerdi partean eta jende asko elkartuko da herriaren erdigunean hori gertutik jarraitzeko. Bazkaltzera joko dute gero herritarrek, eta aurten, bi herri bazkari elkartuko dira: kiroldegian ia 600 lagun eta pilotalekuan 400 bueltan. Biak ala biak DJek giroa dituzte, eta, Zangituren esanetan, ohitura bihurtu den

Bailar pegados kantuak ez du hutsik egingo, beste behin.

Nerabeei bereziki eskainitako hainbat ekintza ere izango dira aurten, Udalak antolatuta; besteak beste, *photocall*-a, afari-merienda (norberak eroan behar du jatekoa eta ez dute onartuko alkoholdun edaririk) eta txokolate-jana.

Martitzenean ikasleak

Martitzenean, ostera, ikastetxe-tako neska-mutikoak izango dira protagonista; dantzan egingo dute plazan goiz partean. *Txin*-en hiletarekin agurtuko dituzte Aratusteak, eta, ohi legez, kintoek eroango dute haren zerraldoa erretzera.

Aratuste egunetako egitarauak

Egubakoitza

- **18:00** Egubakoitz Argal jaiak musika eskolako antolatuta, kiroldegian.

Zapatua

- **10:00** Txistularien diana.
- **11:45** Txino dantza.
- **12:00** Kuadrillen desfilea.
- **13:00** Kalejira, Gesalza txarangarekin.
- **14:30** Herri bazkaria kiroldegian, KI DJak giroa.
- **14:30** Herri bazkari *golfoa* pilotalekuan, AZ Gaubelak giroa.
- **17:30** *Photocall*-a plazan.
- **18:00** Kalejira txarangarekin kiroldegitik plazara.
- **18:45** Mozorro lehiaketaren sari banaketa.
- **19:00** Kintoen dantza saioa.
- **19:30** Jon DJaren emanaldia plazan.
- **20:30** Afari merienda nerabeendako komentuan.
- **20:00** Moto DJa plazan.
- **00:00** Txokolate-jana plazan, nerabeendako.

Martitzena

- **10:30** Umeen dantza emanaldia plazan.
- **11:00** Kalejira Irulitxa txarangarekin.
- **17:30** Buruhandien kalejira txarangarekin.
- **20:00** *Txin*-en hileta.



NIRE USTEZ

AINHIZE BARRAINKUA


Kirol femeninoa

Sekula ez dut ulertu kirolaren eta kirol femeninoaren artean egiten den bereizketa; kirola baino emakumeena dela azpimarratzeko behar hori.

Izaki lehiakorrek garen zalantzan jartzen dute oraindik zenbaitek. Gorputza mugaraino eraman eta beste norbanakoen zein geure buruen aurka aritzeko gai izango ez bagina bezala. Bada, bai, gai gara eta gustatzen zaigu. Ez dugu kirola egiten gorputz normatibo bat lortzeko helburuarekin.

Sarri leporatu izan zaie neska kirolari nerabeei, mutilen aldean, ez dutela desiratzen kirolari profesional izaterik. Batzuentzat hobby hutsa besterik ez da izaneren, eta horrek ez du ezer txarrik. Baina, beste batzuei, aukera hori errealeagoa bihurtuko duten ereduak falta zaizkie; ikustea kirolari profesional izatea posible dela, emakume izanik ere. Inplikazio falta edo errealista izatea, patriarkatuaren zein eserlekatatik begiratzen den.

Makina bat emakume aritu dira historian zehar jardun nekaezinean, ekarpen miresgarriak eginez. Orain guri dagokigu bidea urratzen jarraitzea: asfaltoan, belarretan, uretan, lokatzetan, hondarretan... ukatua izan zaigun baina geure-geurea den espazioaz gozatu ahal izateko.



Odontologia estetikoa
Endodontzia
Inplantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Asteheneretik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklinika.eus

Ixadebalde, oraingoan, eguen eta egubakoitzean

Aretxarteko merkatarien elkarteko hainbat kidek hogeigarrenez egingo dute merkealdien azoka, otsailaren 27an eta 28an; komentuan elkartuko dira eta udazkeneko eta neguko generoa eskainiko diete herritarrei, "prezio ezin hobean"

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Ezohiko egunetan antolatu dute oraingoan Aretxarteko kideek Ixadebalde merkealdien azoka, eguenean egun osoz (10:00-14:00 eta 16:30-20:00) eta egubakoitzean goizez bakarrik (10:00-14:00). Mojen komentuan gertatuko dituzte postuak eta han izango dira herritarren zain.

"Orain arte, aste bukaeran egin izan ditugu azokak, baina aurten, eguenean proba egitea erabaki dugu", adierazi dute Aretxarteko kideek, eta gaineratu: "Dagoeneko herritar batzuek esan digute aste barruan ederto datorkiela handik pasatzea, umeak eskolan utzi ostean".



Tak zapata dendako Vanesa Borrego dendaren aurrealdean. MIRARI ALTUBE

Sei arropa eta zapata denda

Sei merkatari elkartuko dira han, azken urteotan legez: Asensio, Belar Meta, Haurrak, Kilima, Tak eta Titare. Guztiek eroango dute udazkeneko eta neguko generoa, eta "prezio ezin hobean" eskaini: "Kalitate oneko generoa da, eta orain, merke-merke izango dugu guztia". Helduendako zein umeendako arropak eta oinetakoak izango dituzte, baita barruko arropak eta osagarri batzuk ere. "Oinetakoak 25 euroren bueltan izango ditut", dio Tak dendako Vanesa Borregok.

Hain zuzen, hainbat dendak erabaki dute kanpora, dendaren aurrealdera, ateratzea genero hori egunotako eguraldi ona aprobetxatuta: "Hala, dendara sartzeko ohiturarik ez dutenak ere arrimatu egiten dira begiratzeraz", dio Kilimako Meritxell Serratok.

50 euroko sei bonu opari

Aretxarteko kideek ohitura duten legez bezeroak sarituko dituzte oraingoan ere. Ixadebaldera gerturatzen direnen artean 50 euroko sei bonu zozketatuko dituzte azoka itxi aurretik.

Su detektagailuak jarriko dituzte adinekoen etxeetan

Bakarrik –edo adin horretako beste pertsona batzuekin batera– bizi diren eta 80 urte beteta dituzten aretxabalarren etxebizitzetan su detektagailuak jarriko ditu Udalak; iazko maiatzean onartu zuen udalbatzak hori. 492 herritarrek dituzte 80 urte baino gehiago Aretxabaletan. Atiempo enpresa arduratuko da horrekin, eta debalde izango da. Horretarako eskaera aurkeztu behar da Gizarte Zerbitzuetan (943 71 18 62), aurrez hitzordua eskatuta.

Zerbitzuak hiru fase ditu. Lehenengoan, teknikariek ikuskapen bat egingo dute etxebizitzek dituzten arriskuak antzemateko. Prebentzioaren eta suteen aurrean zelan jokatu ezagutzak ere emango dizkiete adinekoei. Bigarren fasean suteak antzemateko sistema egokituko dute; soinu-alarma bat edo argi-alarma bat jarriko diete. Eta hirugarrenean, eraikinerako irisgarritasunaren krokis bat egingo da, suhiltzaileei lana errazteko.

ondo pasan!!

EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabalelako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

"Korrika egiten hasteko ez dago adinik"

AINARA URRUTIA MENDI LASTERKARIA

Duela urte eta erdi hasi zen korrika egiten Ainara Urrutia, eta egin dituen probetan maila ederra eman du. Hala ere, erronka handiak ditu denboraldi honetara begira

Imanol Beloki ARETXABALETA

Ainara Urrutia aretxabaletarra duela urte eta erdi hasi zen mendian korrika egiten, eta aurten mendiko lehenengo lasterketa pasa den domekan egin zuen: hain zuzen, Antzuolako 8 Miliak lasterketa. Bikain hasi du denboraldia; izan ere, azkarrena izan zen emakumezkoetan, 1:20:24ko denborarekin, eta, emaitza aparta izan bada ere, ez da denboraldi honetara begira duen erronka bakararra.

Denboraldiko lehena, eta txapela etxera. Emaitza ezin hobea, ezta?

San Silvestre egunean Bergaran egin nuen lasterketa senarrarekin batera, baina esan dezaket



Ainara Urrutia mendi lasterkari aretxabaletarra. AINARA URRUTIA

Pantailen erabileraren inguruko hausnarketa-saioa

Pantailen erabileraren gaineko hausnarketa-saioa izango da datorren egubakoitzean, otsailaren 28an, Kuku Miku Elkarteak antolatuta. Saioa arratsaldeko seietan izango da, elkartearen egoitzan, eta hezkuntzaren eta komunikazioaren alorrean aditu den Amaia Arroyok gidatuko du.

Nola eragiten dute gailu digitalen gure seme-alabengan? Zer inpaktu dute pantailek eurengan? Zer adinekin hasi behar dute haurrek ingurune digital horretara hurbiltzen? Zertarako erabili behar dira pantailak haurrekin? Galdera horiek oinarri hartuta, hezkuntzaren ikuspegitik gai hau hurrengo urteetan zentrala izango delakoan antolatuta dute pantailen erabileraren gaineko solasaldia. Amaia Arroyo izango da bertara doazenei zalantzak argitzen. Urteak daramatza teknologia digitalen erabilera pedagogikoan sakontzen, eta bere asmoa saio dinamiko egitea izango da.



Arene Etxarri eta Garazi Estebez. GOIENA

Garazi Estebez hirugarren, Espainiako pistako txapelketan

Garazi Estebez aretxabaletarra (Gipuzkoa Ogiberri) eta Arene Etxarri (Andoingo) hirugarren sailkatu dira Madison proban Espainiako pistako txapelketan. Euskadiko Federazioaren ordezkari izan dira junior mailan asteburuan Madrilgo Galapagarraren jokatu den txapelketan. Lehenengo sailkatu ziren Madrilgo ordezkariak eta bigarren Balear uharteetakoak.

OHARRAK

'O que arde' filma

Hilaren 27ko zineklubaren barruan emango dute bi Goya sari lortu dituen filma (19:30).

Posta bidezko botoa

Posta bidezko botoa eskatzeko laguntza eskaintzen ari dira batzokian martxoaren 26ra arte: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan (11:00-13:00) eta martitzen eta eguenetan (17:00-18:30).



Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

denboraldiko lehena izan dela Antzuolan egindakoa. Lasterketa polita da, distantziaz ez da luzea, baina aldapa zorrotzak eta jaitsiera teknikoak ditu. Aurreikusitako baino hobeto eginda, disfrutatu egin nuen.

Hala ere, ez daramazu denbora asko mendian korrika egiten, ezta?

Beti izan naiz kirolaria, gaztetan saskibaloian ere aritu nintzen, baina duela urte eta erdi hasi nintzen. 3 eta 5 urteko bi alaba ditut, eta buruak eta gorputzak eskatuta senarra eta biok korrika egiten hasi ginen ahal genuen guztietan. Gero, distantzia laburreko lasterketa batzuetan parte hartzen hasi nintzen, asfaltokoetan, eta irailean, Gasteizko Gaikar taldearekin hasi nintzen. Ilusioz hartu nuen erronka, eta urria aldera senarrarekin mendira joaten hasi nintzen.

Mendiko lasterketa gutxi egin dituzu, baina maila handian aritu zara, ezta?

Maiztasun gehiagorekin entrenatzen hasi nintzen mendian hasi nintzen, eta serioago hartu nuen. Emaitzak onak dira, eta ez soilik azken lasterketakoa.

Distantzia laburreko probak egin ditudan arren, guztietan aritu naiz sailkapeneko goiko postuetan. Hala ere, Antzuolako Debagoienean izanda, ilusio gehien egin didan garaipena izan da.

Hala ere, erronka handiak dituzu denboraldira begira?

Martxo amaieran Gaikar taldekoekin Malagara noa, Taldeko Espainiako Txapelketara. 32 kilometroko lasterketa da hori, distantzia luzekoa, eta erronka handia da niretzat, ez bainago halako probeta luzeetara ohituta. Gero, handik astebetara, Mondrait egiteko gogoa daukat, eta Kantabriara ere joango naiz, apiril amaieran... Helburua disfrutatzea da.

Korrikan hasi nahi duenarentzat mezurik?

Ez naiz goiztiarra, 37 urterekin hasi naiz ni, haurrak izan ostean. Hala ere, ez dago adinik korrika egiteko, nire momentua orain da, eta hori nahi nuke azpimarratu. Geroz eta emakume gehiago ari gara lasterketetan, eta gogoa duenari animatzeko esan nahiko nioke. Ederra baita, ongi eta sasoian sentitzea.

**TAK • BELAR META
TITARE • ASENSIO
HAURRAK • KILIMA**

Aretxabaletako XX. merkaldien azoka

IXADEBALDE

mojetan

OTSAILAK 27
10:00-14:00
16:30-20:00

OTSAILAK 28
10:00-14:00

ZOZKETA
50€
6 BONU

Logo of Aretxabaletako Udala and other sponsors.



Urdelardero eguna ospatu zuten atzo, eguena, Eskoriatzako ikastetxeetako haurrek. IMANOL BELOKI

Urdelardero ospatuta, martxan dira Inauteriak

Atzo, eguena, herriko gaztetxoek Urdelardero eguna ospatuz eman zieten hasiera aurtengo Eskoriatzako Inauteriei. Gaur, Beheko Errota musika eskolako bandaren emanaldia izango da eta egun handia zapatuan izango dute eskoriatzarrek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urdelardero egunarekin, Eguen Gizenean eman zieten hasiera Eskoriatzako Inauteriei herriko haurrek, urtero moduan. Base-rritar jantzita atera ziren kale-ara, ziria eskuetan zutela, eta barruan sagarra, txorizo eta gainerakoak sartuta. Etxez etxe kantuan aritu ziren goizean zehar ikastetxeetako haurrak, eta

leihoetatik botatzen zizkieten gozokiak batzen gustura aritu ziren. Gero, Fernando Eskoriatza plazan batu, eta txistor-jana izan zuten.

Arratsaldean, Trokolo pailazoen saioa izan zen Zaldibar antzokian, eta urteroko txokolate-janarekin batera Inauterietako dantza ugari izan ziren ikusgai plazan.

Bandaren kontzertua gaur

Gaur, egubakoitza, berriz, Beheko Errota musika eskolako bandaren Inauterietako emanaldia izango da. Azken urteotan errotzen ari den emanaldia da, eta musikariek, oholtza gainera mozarrotuta igotzeaz batera, pieza ederrak prestatu dituzte, beste urte batez. Besteak beste, Queen taldearen *Bohemian*

Rhapsody eta Europe taldearen *The Final Countdown* kantuak entzun ahal izango dira Zaldibar antzokian.

Ondo makillatuta desfilera

Zapatuan, 10:00etatik 12:00etara kultura etxean (kalean eguraldi ona badago) bi pertsona egongo dira behar duenari makillatzen laguntzeko. Gainera, hainbat pintura, pintzel eta material egongo dira, nahi duenak makillatzeko erabili dezan. Hala, 13:00etan izango den mozorro desfile lehiaketarako prestatzeko aukera izango dute herritarrek.

Mozorro desfile lehiaketan parte hartu nahi duten taldeek 12:30ean eman beharko dute izena Luis Ezeizako patioan. Aurrean Eskoriatzako trikitilari taldea joango da, gero 16 urtetik beherakoak, eta, azkenik, nagusien kuadrillak joango dira. Herrian zehar ibilbidea egin ostean, sari ugari izango dituzte parte-hartzaileek; horiek, hain zuzen, 18:30ean plazan banatuko dituzte.

Herri bazkaria kiroldegian egingo da, 14:30ean, eta, bazkalostean, Ttakito taldearekin dantzaldia egiteaz batera, zezentxoak eta txikienezako poneyak izango dira Luis Ezeizan eta DJ motorekin dantzaldia plazan, 19:00etan eta 23:00etan.

Inauteri-martitzena

Arizmendiko eta Luis Ezeizako ikasleek dantzak egingo dituzte frontoian, urtero moduan. Arratsaldean, berriz, Eskoriatzan protagonista diren kukumarroak aterako dira, 17:15ean, kultura etxetik, puxikak astintzera, eta amaitzeko, 18:00etan, DJ Tirapurekin dantzaldia izango da plazan.

Inauterietako egitaraua egunez egun

Otsailak 21, egubakoitza

- **20:00** Beheko Errota musika eskolako bandaren Inauterietako kontzertua, Zaldibar antzokian.

Otsailak 22, zapatua

- **13:00** Mozorro desfilea, Luis Ezeizako patioan hasita.
- **14:30** Herri bazkaria, Manuel Muñoz kiroldegian.
- **16:00** Dantzaldia Takkito taldearekin, Manuel Muñoz kiroldegian.
- **17:00** Zezentxoak eta poneyak, Luis Ezeizako patioan.
- **18:30** Mozorro lehiaketako sari banaketa, plazan.
- **18:45** Dantzaldia DJ Motorekin, plazan.
- **23:00** Dantzaldia DJ Motorekin, plazan.

Otsailak 25, martitzena

- **10:30** Umeen jaialdia, Joseba Iñurrategi pilotalekuan.
- **17:15** Kukumarruak, plazan.
- **18:00** DJ tirapu, plazan.

SEKULA BAINO GEHIAGO BATUKO DIRA HERRI BAZKARIAN: GUZTIRA, 456 LAGUN

Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren ordenantza proiektua, jendaurrean

Interesdunek ekarpenak egiteko epea 2020ko martxoaren 4an bukatuko da, eguaztena

I.B. ESKORIATZA

Uraren ziklo osoaren zerbitzua arautzeko Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Ordenantza Proiektua onartu aurreko kontsulta ireki da; hau da, interesdunek proiektua aztertu eta egoki iri-

zitako ekarpenak egiteko aukera dute orain.

Ordenantza honekin, zenbait arazo konpondu gura dira: instalazioak berritzea eta enpresa espezializatuek egitea mantentze-lanak, mantentze-lanen kostua

merkatzea, uraren kostua mantentzea, inbertsio handiagoak egitea eta kudeaketa profesionalizatzea. Hain zuzen, herritarrekin harreman hobea izateko helburuarekin.

Proposatzen den araudi proiektuaren xehetasunak Eskoriatzako udal webgunean kontsultatu daitezke, eta martxoaren 4a izango da ekarpenak egiteko azken eguna. Egun hori baino lehen ez badago iradokizunik, prozedurak aurrera jarraituko du.



"Elurrik ez badago, ezin daiteke disfrutatu"

Pirinean Race lasterketa jokatu da otsailaren 3tik 9ra bitartean. Denboraldi honetako elurretako lehen lasterketa izan da Itoitz Armendariz 'musher' eskoriatzarrarentzat, baina elur faltagatik etapa baten faltan uztea erabaki du, eta etxera bueltatu da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Irailaren amaieran hasten da entrenatzen Itoitz Armendariz *musher* eskoriatzarra. Lehenengo, gurpiletan aritzen da, eta azaro aldera bi lasterketa egin ostean, elurretako probak egitera joaten da. Eremu horretan lehiatzeko gogoz egoten da; izan ere, elurretakoak ditu gogokoago lur gainekoak baino. Hala ere, aurten, ez du eguraldiak lagundu, eta horregatik ezin izan duela disfrutatu adierazi du munduko *mushing* txapeldu-nak.

Otsailaren 3tik 9ra bitartean, Frantziako Pirinioetan jokatu den Pirinean Race lasterketa izan du Armendarizek, elurretan lehiatu den lehenengo lasterketa. "Lur gaineko lasterketatik elurretako lasterketa aldatzean, trantsizio egun batzuk behar dituzte txakurrek, eta aurten, ez dute ohitzerik izan, ez dagoelako elurrik".

Etapa bakarra faltan, erretiratu

Pirinean Race astebeteko proba da, eta sei etapa ditu. Hiru Plateau de Beille estazioan egiten dira, egun bateko atsedena hartzen da, eta ostean beste hiru etapa egiten dira, Capcir estazioan. Hala ere, ez ditu guztiak egin. "Sei etapa izan arren, bost



Itoitz Armendariz eskoriatzarra Pirinean Race proban. ERIC ROUSTAND

EUROPAKO TXAPELKETARAKO SAILKATU ARREN, EZ DU PARTE HARTUKO ARMENDARIZEK

egin ditut. Lehenengo egunean txakur bat lesionatu zitzaidan, hurrengo bi etapetan beste hiru, eta azken etapan ez irteera erabaki nuen. Txakur zaharrak eta gazteak ditut, eta talde ona osatzeko denbora behar dut. He-

mendik bi urtera ondo lehiatzeko egongo naiz; edozelan ere, orduan ere eguraldiak izango du zeresana".

Europakora joan gabe

Asteburu honetan jokatu da Europako txapelketa, Asarnan (Suedia), eta Armendarizek adierazi du sailkatuta dagoen arren ez dela joango: "Lasterketa lekualdatu egin dute elur faltagatik, eta hori Eskandinavian gertatzea ez da ohikoa. Etxean geratuko naiz, egoera kaskarrean ez dudalako lehiatu gura".

Bere zaletasuna nabarmenduz esan diote agur Eder Pagaldairi

Moto istripuan hil zen eskoriatzarraren hileta elizkizun jendetsuan motorrekin pasabidea egin zuten

I.B. ESKORIATZA

Pasa den egubakoitzean, A-3002 errepidean –Uribarri Ganboako urtegia– moto istripuan hil zen Eder Pagaldai 29 urteko eskoriatzarra. Albisteak samina zabaldu zuen herrian, eta horren adierazle izan zen astelehenean Eskoriatzako San Pedro elizan izandako hileta elizkizun jendetsua.

Astelehenean, Pagaldai oso maitatua zela argi geratu zen Eskoriatzako San Pedro elizaren bueltan, azken agurra emateko batu ziren guztien begietan.

Errepidea moztu egin zuen Udaltzaingoak, eta kale guztia motorrez beteta egon zen. Gainera, Jose Aranatik elizara bitartean motorrak jarri zituzten, pasabidea eginda, Pagaldairaren zaletasun gustukoena azpimarratzeko asmoz.

Horrekin batera, elkartasun eta maitasun mezu ugari izan dira egunotan sare sozialetan. Horietako bat da Karmelo Oñate ilustratzaileak "maitasun osoz eta inoiz baino negar gehiago eginda" sortutako marrazkia (*Goiena.eus* webgunean ikusgai).

Hilaren 28an Mendi Tour Film Festivaleko filmen proiektzioak

Eskoriatzako Kirol Elkarteak antolatuta, eta Udalak babestuta, otsailaren 28an eta martxoaren 1ean, Mendi Tour Film Festivaleko azken edizioko film on eta arrakastatsuen proiektatutako dira Zaldibar antzokian.

Otsailaren 28an, 22:00etan, *Treeline* (40 minutu) eta *Climbing Blind* (57 minutu) filmak ikusi ahal izango dira. Martxoaren

1ean, 19:00etan, berriz, *Harría Harría* (7 minutu), *Nebula* (13 minutu) eta *Cholitas* (80 minutu) filmak.

Egun bakoitzeko sarrerak hiru euro balio du eta bi egunerako bonua nahi duenak, berriz, bost euro ordaindu beharko ditu. Sarreraren salmenta alde aurretik egin daiteke, Manuel Muñoz kiroldegira joan eta bertan erositako edo, aretoan lekua egonez gero, proiektzioen egunean bertan antzokiko leihatilan erosteko aukera izango da.



MAKILA ESKUEN ETA IBILI BASUEN

Mazmelako inguruak ezagutzen

Makila eskuen eta ibili basuen egitasmoa partaideen irteera Buztinate elkartekoekin antolatu zuten, pasa den domekan. Alberja zaharretik joan ziren Mazmela aldera, eta bertan, San Bartolomeko ermitarainoko bidea egin zuten, besteak beste. Amaiera Zubiarte labean egin zuten, eta hurrengo irteera antolatzeko makila Eskoriatzako ehiztariek jaso zuten.

Armendariz, Pirinean Race-n

Frantziako Pirinioetan jokatu den Pirinean Race lasterketan, elurraren egoerak eta txakurren lesioek baldintzatuta ezin izan du lasterketa amaitu Armendarizek.

Orain, entrenatzera

Elurretan jarraitzeko asmoa zuen arren, lur gaineko lasterketetan arituko da orain entrenatzen.



Itoitz Armendariz eskoriatzarra Pirinean Race lasterketan. JORGE GARCIA

Aztarna uzteko asmoz sortu den taldea da Nhil

Bailarako zenbait musikaririk osatuta dagoen Nhil musika taldeak zazpi kantuz osatutako 'Aztarnak' izeneko diskoa grabatu berri du, eta martxoaren 6an 22:00etan emango dute ezagutzera, Zaldibar antzokian izango den aurkezpen kontzertuan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Beñat Arrieta gitarra-jole eskoriatzarrak bailarako zenbait musikarirekin batera Nhil izeneko taldea sortu du, eta *Aztarnak* izenburua jarri diote lehenengo diskoari. Arrietarekin batera, honako hauek dira taldea osatzen duten musikariak: Sara Alonso piano-jolea eta abeslaria, Asel Errasti bateria-jolea, Xabi Zuazabeitia baxu-jolea, Lia Garai saxofoi-jolea eta Aitor Ruiz de Austri tronboi-jolea.

Zazpi kanturekin osatuta dagoen lana NecroSound estudioan, Aretxabaletako kuartelean, grabatu dute. Asel Errastik grabatu eta nahastu du, eta masterizazioa Doctor Master-en egin dute. Kopia, berriz, Sarbiden atera dituzte. "Duela bi urte, entseatzen eta sortze prozesuan hasi ginenean, eta geldiduna izan genuen, Txilera joan nintzelako ikastera. Hala ere, handik bueltatu nintzenez taldea desegin da aurkituko nuela pentsatu nuen, baina ni barik lanean jarraitu zuten. Entseguak berriro, eta gero batu dira taldera Lia eta Aitor saxofoi eta tronboiarekin. Pop-funk estilo bezala definitu dezakegu, baina badauka rock estilotik ere zerbait...", adierazi du Beñat Arrieta Nhil taldeko musikariak.



Nhil musika taldea osatzen duten musikariak talde argazkian. NHIL

Lan gogorra diskoaren atzean

Emaitza esku artean, egindako lanarekin gustura geratu diren arren diskoaren atzean lan asko dagoela ere gaineratu gura izan du Beñat Arrietak: "Taldean zenbait lagun gara, herri ezberdinetakoak, eta gaur egun, bi entsegu egiten ditugu; aste barruan bat eta asteburuan beste bat. Hala ere, ez da erraza denok batzea. Laster izango dugu lehenengo kontzertua, eta, ilusioz gaudenez, gehiago batzen gara. Hori horrela, jendeak gustuko izatea espero dugu..."

Estreinaldia, Zaldibar antzokian

Martxoaren 6an 22:00etan egingo dute aurkezpen kontzertua Eskoriatzako Zaldibar antzokian, eta sarrera doakoa izango da. Egun horretan bertan jarriko dituzte diskoak salgai, eta gero, euren asmoa Eskoriatzako Inkernu tabernan, Aretxabaletako Urbaltzen eta Arrasateko Iratin saltzea dela adierazi dute. Horrekin batera, Instagram sare sozialean *Nhilband* taldea jarraituta bertatik ere eskatu daitekeela diskoa adierazi gura izan dute musikariek.

Kalitatezko edukiak, baina erantzuna ez hain ona

Datorren urteko zientzia zikloa antolatzeke orduan zenbait gauza aztertu gura dituzte antolatzaileek

I.B. ESKORIATZA

Zientziaren dibulgazioa helburu izanda, zenbait hitzaldi eta ikuskizun izan dira joan den astetik aste honetara bitartean Eskoriatzan. Egunotan, balorazioa egin dute, eta hitzorduetan eman

den edukia eta eraman diren protagonistak kontuan izanda, aberasgarria den egitasmoa dela adierazi dute antolatzaileek; hala, zientzia zikloa antolatzen jarraitu beharra dagoela azpimarratu dute. "Kalitatezko hi-

tzorduak izan dira, eta esfortzu bat egin dugu halako protagonistak ekartzeko. Edukiarekin asmatu dugun arren, jendearen erantzuna ez dela uste bezain ona esango nuke, nahiz eta hitzordu batzuetan jende dezente izan den. Hala, datorren urteko programazioa antolatzeke orduan kontuan izan beharko dugu hori, eta zer eskaini eta noiz ondo aztertu beharko dugu herritarrengana gehiago gerturatzeko", adierazi du Arantxa Unzueta Kultura teknikariak.



Gatzagako zenbait haur Inauterietarako apaingarriak egiten. AINHOA BARANDIARAN

Mozorroak prestatzeaz batera apaingarriak egiten izan dira

Itsasoarekin zerikusia duten zenbait apaingarri egiten izan dira gaztetxoak herri liburutegian

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Zapatuan ospatuko dituzte Inauteriak Gatzagan, eta mozorroak prest dituzte herritarrek. Aurtun, *Itsasoa* izango da aukeratuak gaia, eta egunotan apaingarriak egiten ari direla adierazi dute Gurel Guraso Elkarte kideek. "Astelehen eta martitzen arratsaldeetan, itsasoarekin lotura duten zenbait mozorro egiten aritu gara herri liburutegian, hori baita aurtengo gaia. Zenbait guraso haurrekin batera aritu gara lanean, eta egunera begira herrian zehar jartzeko apaingarriak egiteko

ere aprobetxatu dugu", adierazi du Ainhoa Barandiaran herritarrek.

Bazkaria, Soran Etxean

Zapatuan, haurrentzako jolasak egiteaz batera, urteroko herri bazkaria Soran Etxean izango da, 14:30ean, eta astean zehar txartel asko saldu ez diren arren, herritarrek azken unean erosi-ko dituztelakoan daude antolatzaileak. Guztira, 60 pertsonako muga jarri dute, eta, txartel guztiak saldu barik, gaur, egubakoitza, izango da horretarako azken eguna.

GORA ETA BEHERA



MIRARI ALTUBE

Kartel informatiboa biribilgunean

Aretxabaletatik Eskoriatzara saihebidetik edo bidegorritik doazenek ikusi dezaten, Aingeru Guardako biribilgunean Leintz Gatzaga herriaren gaineko kartel informatiboa jarri dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Zubieta kalea, martitzen arratsaldean; argazkian ikusten den tartean hasiko lirateke obrak. JOKIN BEREZIARTUA

Zubieta berritzeko lehen fasea, azaroan martxan

Herriko gune degradatuenetako bat den Mugertza, Zubieta eta Masterreka ardatza berriro urbanizatzeko lanak azaroan hasita aurreikusten du Udalak; 2016an idatzitako proiektua esleitu aurretik, bilera irekia egingo dute apirilaren 1ean udaletxean (18:30)

Jokin Bereziartua BERGARA

2019-2023 Udalaren agintaldiko proiektu garrantzitsuenetako bat izango da Mugertza, Zubieta eta Masterreka ardatza eraberritzea. Ardatz hori da gaur egun herriko gune degradatuenetako bat, eta kalea eraberritzeko eskaera aspaldikoa da auzotarren partetik. Horren adibide da iaz elkarte bat sor-

tzekotan ibili zirela, indarrak batzea "ezinbesteko" ikusten zutelako. Batetik, proiektua "edozein forotan" garatzen laguntzeko eta, bestetik, auzoa sufritzen ari den "degradazio urbanistikoa" salatzeko. Zubieta kaleko auzotarren eskaerak hiru oinarri dituzte: irisgarritasuna, babesia eta prebentzioa. Hala, Udalak badu data bat lanen

lehen faseako: 2020ko azaroa. Lehen faseak 2019an eraberritutako zubitik Mugertza kalerainokoa, aurtengo azaroan gauzatzen hasita espero du Udalak, eta aurrekontua 637.000 eurokoa izango litzateke, BEZa barne. 2020ko aurrekontutik 200.000 euroko partida bideratu da eta gainerakoa gerakinetik gehituko litzateke; tarte horretako lanek bost hilabete irautea aurreikusten da. Beste bi faseetarako, kronograma bat zehaztu du Udalak; betiere, aurrekontuak ahalbidetuko balu, 2021eko apirilean zubitik Igartua ziklismo dendarainoko lanak eta 2021eko urrian Masterreka kalearen eraberritzea. Bigarren zatiko lanen aurrekontua 1.068.683 euro da (BEZa barne) eta azken zatiko aurrekontua 605.014 euro

Bilera irekia apirilaren 1ean

Obra adjudikatu aurretik, proiektua herritarrei aurkeztuko die Udalak; auzotarrek eta, oro har, herritar guztiek inoiz herri osoari eragingo diola uste du Hirigintza Sailak bilera irekia egingo dute apirilaren 1ean udaletxean (18:30). Bilera horretan, proiektua zehatz aurkezteaz gain, azken ekarpenak jasoko dituzte; hori bai, Hirigintza Sailak aurreratu du bizilagunen ekarpenek mugak izango dituztela, kalearen zabalera irisgarritasuna bermatu beharko delako eta marjinarik apenas dutelako.

Irisgarritasuna eta segurtasuna

Obraren helburu nagusia oinezkoen irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzea eta trafikoa moteltzea da, eta baita azpiegitura guztiak berritzea ere; 2016an idatzitako proiektua izango da lizitaziora irekiko dena, eta, hain zuzen, fasea exekutatzeko aurreikusten da.

Eraberrituko den lehen zatia, iaz berritu zen zubitik Mugertza kalerainokoa, aurtengo azaroan gauzatzen hasita espero du Udalak, eta aurrekontua 637.000 eurokoa izango litzateke, BEZa barne. 2020ko aurrekontutik 200.000 euroko partida bideratu da eta gainerakoa gerakinetik gehituko litzateke; tarte horretako lanek bost hilabete irautea aurreikusten da. Beste bi faseetarako, kronograma bat zehaztu du Udalak; betiere, aurrekontuak ahalbidetuko balu, 2021eko apirilean zubitik Igartua ziklismo dendarainoko lanak eta 2021eko urrian Masterreka kalearen eraberritzea. Bigarren zatiko lanen aurrekontua 1.068.683 euro da (BEZa barne) eta azken zatiko aurrekontua 605.014 euro

(BEZa barne). Beraz, aurrekontu osoa 2.310.697 euro da, eta ez da dirulaguntzarik aurreikusten.

Obra "berezia eta potoloa"

Proiektuan jasotzen da errepi-dea estutzea, eta kaleko zirkulazioak bi noranzkoko izaten jarraituko du. Obra guztiak sortzen dituzten kalteez harago, Hirigintza Sailak dio obra "bereziki konplikatu" izango dela Zubietakoa eta afekzioak ahalik eta gehien murrizteko alde aurretik dena ondo antolatu beharko dutela. "Zirkulazio itzela duen kalea da; puntako orduetan, bereziki. Obra hau berezia eta potoloa izango da", adierazi du Hirigintza teknikari Edu Alvarezek.

Parkingaren menpe egon daiteke

Udal Gobernuak esku artean duen kronogramak, baliabide ekonomikoez gain, beste oztopo batzuk ere izan ditzake. Izan ere, badira herrian fase horiek baldintzatu ahal dituen proiektuak; Seminarioko parkinga kasu. Lurpeko aparkalekua egingo den ez du erabaki oraindik Udala Gobernuak; azaldu dutenez, aparkaleku beharrene gaineko txostena atzeratu egin da, "analisi gehigarria" eskatu behar izan dutelako. Hain zuzen, txosteneko emaitza esangaritsuenak batzordean aurkeztu dituzte asteon. Aparkalekuen gaineko analisi horren arabera berrituko da, besteak beste, Mugikortasun Plana.

HIRU FASEETARAKO AURREKONTU OSOA 2.310.697 EURO DA, ETA DIRULAGUNTZARIK EZ DA AURREIKUSTEN

Sarituak First Lego League-n

Goiena komunitatea

Mariaren Lagundia / BERGARA

DBHko 4. mailako bi taldek First Lego League lehiaketan hartu zuten parte otsailaren 15ean, eta sari bana irabazi zuten. ML Crew taldeak robotaren diseinurik onenaren saria irabazi zuen eta ML Team-eko ikasleek, berriz, balioen saria. Zorionak gure neska mutilei, lan bikaina egin zuten eta!



MARIAREN LAGUNDIA

OHARRAK

Apirilaren 5eko hauteskunde errolda, ikusgai
Erreklamazioak jarri ahalako dira otsailaren 24ra arte, udaletxean.

EAJ: Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak
Apirilaren 5erako botoa posta bidez emateko aukera dago aste barruan, batzokian: 11:00etatik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

Hitzaldia: 'Adimen gaitasun handiko umeak'
Amaia Agirianoren ahotik; otsailaren 27an, Zabalotegin (18:00).

Erramu Zapatua: talo posturako izen-ematea
Apirilaren 4ko azokan talo postua jartzeko bi gune jarriko dira. Izena emateko, udaletxeko BAZera jo. Azken eguna: martxoak 13.

"Gertuko historiaren zati bat" azaleratzeko taldea

Eratu berri den herriko Ahaztu Barik taldeak 'Egia bat: Bergara ezkertiar eta abertzalearen historia' izeneko dokumentala estreinatuko du Seminarixoan martxoaren 13an (20:00); sarrerak Pol-Pol eta Arrano tabernetan egongo dira salgai, bost eurotan



Astelehenean Olaso dorrean egindako prentsa agerraldia. TXOMIN MADINA

Jokin Bereziartua BERGARA

"Garbi dugu gure historia guk ez badugu kontatzen beste batzuek kontatuko dutela edo ahaztu egingo dela, eta hori ekiditera dator, besteak beste, aurkeztera gatozen dokumentala". Hitz horiekin azaldu du Ahaztu Barik taldeko Maite Aristegik Seminarixoan (20:00) martxoaren 13an estreinatuko duten ikus-entzunezkoa: *Egia bat: Bergara ezkertiar eta abertzalearen historia*. "Egia bat izena jarri diogu, ez delako nahi kontakizun bakar bat ezarri. Adierazpen askatasuna oraindik mugatuta dugun arren, gertuko historiaren parte bat azaleratu nahi dugu".

Belaunaldi berriei begira

Ahaztu Barik, astelehenean Olaso dorrean egindako agerraldian azaldu zutenek, Bergarako memoria historikoa berreskuratzeke sortu den taldea da, bereziki belaunaldi berriei begira: "Agerrikoa da gure borroken trans-

misioa ez dela behar besteko sendoa izan; kontatu ez diren edo kontatu ezin izan diren historiak kontatu nahi ditugu. Ahotsik izan ez dutenena". Sarrera bost euro izango da, eta Arrano eta Pol-Pol tabernetan egongo dira txartelak salgai; irabaziak Harrera elkartearentzat izango dira.

Protagonista guztiak, herrikoak

71 minutu irauten du dokumentalak eta Bergarako "militante ezkertiar eta abertzaleak" dira protagonista: "Mugimendu baten historia agertzen da, Bergarako militanteen ahotik eta Bergara erdigunean jarrita; azken finean, Euskal Herriaren azken hamarkadetakoa kontatzen da". Honako herritar hauek elkarriketatu dituzte: Ane Miren Alberdi, Jose Luis Elkoro, Pello Belastegi, Mila Elorza, Eukene Gracia, Aitor Arantzabal, Agurine Barruso, Ane Jauregi eta Aitzol Gandiaga.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Goiko estazio ingurua "negargarri" dagoela



Herritar batek dio "negargarri" dagoela goiko estazioko gunea. "Zaborra mahaian edo lurrean botata, bertan zaborrontziak egon arren hondakinok sailkatzeko. Izan gaitezen arduratsuak", dio.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Prezio harrigarriak!
Azken Aukerak
Otsailak 28 eta 29



Bergaran bizi, Herrian erosi, Denok irabazi



"Batez ere, talde umila da Bergara Eskubaloia"

JOSETXO MUNIATEGI ESKUBALOIA ENTRENATZAILEA

Debagoieneko Kirol Sarietako Bergarako aitortza jaso zuen Josetxo Muniategi eskubaloi entrenatzaileak urtarrilaren 28an. "Eskertuta" agertu da hura

Jone Olabarria BERGARA

Jokalari moduan ez zen bereziki nabarmendu Josetxo Muniategi, baina oso gazte hasi zen entrenatzaile lanetan. Hala, 80ko hamarkadatik Bergarako eskubaloiaren alde aritu da lanean, bai zuzendaritzan, eta baita entrenatzaile ere. Azken zeregin horiek tartekatu egin ditu lehenengo taldearen eta harrobiaren artean. Hain zuzen ere, urte hauetan guztietan egindako lanari aitortza bezala, Bergara saria jaso zuen Muniategik pasa den urtarrilean Debagoieneko Kirol Sarietan.

Nola harrapatu zintuen aitortzak?

Esango nuke ezuste-koz harrapatu ninduela. Jakinarazi zidatenean, urduritasunez hartu nuen, baina, behin publiko egin zenean, lasaitasunez hartu nuen. Izan ere, aitortza polita dela iruditzen zait.

Hainbat urtean jokalaria izan ostein, zergatik entrenatzaile izateko jauzia?

Kuadrillako hainbat genbiltzan jokalaria talde berean, eta, une batean entrenatzaile falta zela eta, teknikari hasi nintzen. Hasi batean, jokalaria eta entrenatzaile rolak uztartzen saiatu nintzen, baina ikuspuntuak oso ezberdinak dira; jokatzen zaudenean ez duzu dena kanpotik bezala ikusten, zeure jokoan zentratu beharra duzu. Entrenatzaile rolean, ordea, dena kanpotik ikusteko aukera duzu: erasoak, defentsa, jokaldiak... Betidanik erakarri izan ninduen entrenatzaile izateak.

Urte hauetan guztietan hainbat talde pasa dira zure eskuetatik. Zein da talde indartsu baten gakoa?

Hainbat faktore hartu behar dira kontuan. Hasteko, taldeak gaitasun jakin batzuk izan behar ditu: jokalaria indartsuak, altuak, bizkorrak... Dena dela, nire taldeetan talde jokoaren garrantzia izan da beti gakoa; jokalarien artean giro txarrik ez egotea,



Josetxo Muniategi partidu bateko irudian. GOIENA

"GURE KASUAN, EMAITZA POLITAK LORTU DITUGUNEAN DEFENTSAREN LANA IZAN DA BETI GAKOA"

taldean jokatzea, ez soilik norberarentzat. Defentsa lanean bereizi dira nire taldeak beti. Erasoan lan egitearen zalea ez naiz sekula izan; gaitasun bereziak dituzten jokalariek eskatzen dizkizu erasoak, gol asko egiten

dituzten jokalariek izan behar dituzu. Gure kasuan, emaitza politik lortu ditugunean, defentsaren lan handiaren ostein etorri dira beti.

Nola definituko zenute Bergarako eskubaloia?

Batez ere, talde umila gara. Asmo handirik gabeko elkarteak; hau da, inoiz ez dugu hura edo beste nahi izan, inoiz ez ditugu kanpoko jokalariek ekarri emaitzen bila... Etorri diren pertsonak ongi etorriak izan dira beti, baina ez gara joan sekula inoren bila taldea sendotzeko asmotan.

Beste hainbat lekutan saiatzen dira beti jokalaria onak erakartzen; onerako edo txarrerako, guk ez dugu inoiz halakorik egin. Gure nahia beti izan da Bergarako jokalariek eskubaloiari jokatzeo aukera izatea eta horrekin gozatzea. Egia da kanpoko jokalariek izan ditugula eta orain ere baditugula, bere kabuz etorriak; euren taldean arazoak izan dituztenak edota taldeetik kanpo geratu direnak, baina jokatzeo gogoia dutenez gurean hartu ditugunak. Aberasgarria ere bada guretzat beste eskubaloi mota batzuk ikusi, jokalaria horien lana ezagutu eta entrenatzeo beste modu batetik ikasteko.

Harrobiarekin lan handia egin ohi duzue eta azken urteetan fruituak eman ditu; batez ere, nesketan...

Uste dut gizartea orokorrean aldatu egin dela, eta nesken kirolaren inguruko ikuspuntua eta jarrera ere aldatu dela iruditzen zait. Azken lau edo bost urteetan, arrakasta handiagoa izan du eskubaloiak, esaterako, nesken artean Bergaran. Egia da hainbat herritan eskubaloiak indar handia izan duela betidanik eta nesken taldeak ere oso indartsuak izan direla, baina hori ez zen gure kasua. Azken urteetan neskek maila askotan mutirik baino gehiago dabilta eskola kirolean; Gipuzkoan, esaterako, infantiletan neska gehiago daude eskubaloiari jokatzen mutirik baino. Gainera, neskek, orokorrean, mutirik baino konprometituagoak dira. Egun, Bergaran 35 bat jokalaria neska ditugu; aurtan, gazte mailan, baina, ezin izan dugu talderik atera eta zazpi zortzi jokalaria geratu dira jokatu nahi baina ez zinda. Dena den, balorazio positiboa egiten dugu.

Ekintzaz beteta dator Pol Pol taldearen Mendi Astea

Otsailaren 4tik martxoaren 1era bitarte hainbat ekintza antolatu ditu mendizale taldeak

J.O. BERGARA

Otsailaren 24tik martxoaren 1era Mendi Astea antolatu du Pol Pol Mendizale Taldeak aurtan ere, Bergarako Udalarekin batera. Ekintza ugari antolatu dituzten arren, gehienak elkarrearen egoitzan egingo dira, San Pedro kalea 10 behean. Gerturatzera animatu dituzte herritar guztiak.

Datorren astelehen, martitzen eta eguaztenerako, hilak 24, 25 eta 26, hitzaldiak antolatu dituzte. Astelehenean, *BTT Nepal* hitzaldia eskainiko du Raul Diazek; martitzenean, *Groenlandia 60*, eskaladari buruz arituko da Vicente Castro; eta eguaztenean, Ana Zamoranirenekin eskutik *Remoteana: Cordilleras y cámara sobre una bicicleta* egongo da. Egubakoitzean, berriz, otsailak 28, Oihana Azkorbebeitiak hitzaldia eskainiko du, *Ama, emakumea eta kirolaria* izenburupean.

Asteburura begira ere hainbat aukera prestatu gura izan dituzte. Hala, hilaren 29an, boulder txapelketa herrikoia egongo da Labegarrietako rokodromoan, 15:00etan hasita. Domekan, berriz, martxoak 1, *slack line* erakustaldia egingo dute Bideberrin, 13:00etan hasita.

Lehen taldea, azken aurreko postuan

Aurreko asteburuan, azken unean eta gol bakarragatik galdu zuen lehen taldeak Donibaneraren aurka. Azken urteetako lehia "krudelenaren" ostein, azken aurreko postuan daude Muniategiren mutirik, nahiz eta lehen zati "oso txarra" egin ostein partiduari buelta eman. Helburuez galdetuta, "bai edo bai irabaztea" da hemendik aurrerako xedea.



Lehen territorial mailako mutilen taldea. BERGARA ESKUBALOIA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Iazko Aratusteetako kontzertuko irudiak. GOIENA

"Beldurrezko" Aratuste kontzertuaren arrakasta

Eskoziako gaztelu sorgindu batean bergarar familia baten abenturak izango ditu ardatz 'Bildurra nik???' Aratusteetako kontzertuak udal pilotalekuan, 22:30ean hasita. Goiena telebistak osorik emango du hilaren 25ean, 23:00etan

Jone Olabarria BERGARA

Sarrerak agortuta eta ohi duen modura, udal pilotalekua beteko du gaur Aratusteetako kontzertuak, 22:30ean hasita. Aurten, Eskoziako beldurrezko gaztelu batean bergarar familia baten abenturak izango dira ikuskitzuneke ardatz.

Bergarako Musika Bandatik adierazi dutenez, "azken urteetako formatu antzerakoa izango du. Lehenengo, kontzertu erako zatitxo bat, bandak eskainia, eta bigarren zatian abestitik abestira joateko, antzerki baten haria edukiko dugu". Hain zuzen, kontzertuaren bigarren zati horretan, Musika Bandaz gain, Bergarako Orkestra Sinfonikoa,

Aritzeta Abesbatza, Debako Kullunka Dantza Taldea eta beste hainbat lagunek hartuko dute parte.

Egitarau oparoa

Lehen zatiko piezei dagokienez, *Bailables de Carnaval* orain dela 100 urte baino gehiago gonzaletzarrek Tolosatik ekarritako Aratuste doinuak izango dira entzungai, baita *Highlights from Hook* Spielberg-en *Hook* filmeko John Williams maisuak konposaturiko musikaren hautaketa bat eta *Soul Bossanova*, Quincy Jones konpositore amerikarrak sortutako pieza, doinu afroamerikarrak eta latindarrak nahasten dituena.

Bigarren zatiko piezei dagokienez, "sorpresa" izango dira: "Pieza batzuek beldurrezko gaiarekin zerikusia izango dute; beste batzuek, Aratusteekin gehiago".

"Hausnarketarako" kontzertua

Azken urteetako lantaldeak "merzitako" erretiroa hartu duela eta aurten lantaldera jende berria gehitzen dabiltzala azaldu dute; eszena zuzendaritzan Pedro Mujikaren laguntza izan dute, eta argumentua eta gidioa ere elkarlanean egin dutela azaldu dute. Hurrengo urteei begira formatu bera mantenduko duten edo ez erabakitzeke baliatuko dute aurtengo Aratusteetako kontzertua.

Sharon Stoner eta Mocker's taldeak Kartzela Zaharreen

'Egubakoitzak berreskuratzen' ekimenaren baitan, 22:30ean kontzertua eskainiko dute Kartzela Zaharreen

J.O. BERGARA

Kartzela Zaharra rock doinuuz beteko da gaur, Sharon Stoner talde oñatiarraren eta Durangaldetik etorritako Mocker's-en musikarekin. 22:30ean hasita, bost eurotan eskura daiteke sarrera.

Rock doinuak nagusi

Zazpi urteko etenaldiaren ostean, *Erraietatik* izeneko disko berria aurkeztu zuen Sharon Stoner talde oñatiarrak urrian, eta, hain zuzen ere, bertako doinu ugari izango dira entzungai Kartzela Zaharreen. Taldearen azken diskoa, *Puntu bakar batean elkartzen diren hertzak*, 2012an kaleratu zuten. Hemezortzi urte pasa dira 2001ean hiru gazte oñatiarrek Sharon Stoner taldea sortu zutenetik. Ibilbidean zehar, Iñigo Ibarrondo abeslari eta baxu-jotzaileak, Mikel Zarketa



Sharon Stoner, Durangoko Azokan. s.s.

gitarristak eta Egoitz Olalde bateria-jotzaileak hiru disko kaleratu dituzte.

70eko hamarkadako rockaren eraginak dituen talde gaztea da Mocker's, baina, era berean, eskarmentu handiko Durangaldeko hirukotea.

Aratusteak girotzeko bertso saioa Arrano tabernan gaur

Bertso saioa izango da Arrano tabernan gaur gauean, 22:30ean hasita. Taula gainean arituko dira Xabat Illarregi, Ane Zuzubiskar eta Gari Lopez de Munain bertsolariak eta gai-jartzaille lanetan jardungo du Ibon Leibar *Txinbo*-k. Aratusteak girotzeko helburua duen saioak umorea eta polemika uztartuko ditu Arrano tabernan.

'Atopia RPG' rol jokoa Kartzela Zaharreen, otsailaren 29an

Datorren asteke zapatuan, martxoak 1, *Atopia RPG* rol jokoa berri emango dute Kartzela Zaharreen. Hain zuzen, fikziozko Euskal Herrian kokaturiko rol jokoa da, 2019. urtean plazaratua. Bergarako jardunaldietan, 10:00etan, partida laburra egingo dute, ikusleentzat irekia, eta 12:00etan, *Atopia* liburu aurkezpena eta solasaldia izango dira.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraskozuri plaza 8,
943 76 59 54 BERGARA

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Herriarrak iaz, Aratuste-dantzak eskaintzen, Herriko Plazan. GOIENA

180 dantzarik girotuko dituzte Aratusteak, bihar

Lehenengoz, zapatuan ospatuko dituzte antzuolarrek Aratusteak. Herriarren parte hartzea indartzea helburu, 180 lagun inguruk dantza egingo dute bihar eguerdiko saio nagusian. Gaur, ordea, herriko gaztetxoendako mozorro-festa eguna izango da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aratuste-festaren izaera eta parte hartzea indartzeko asmoz, herriarrak aurten lehenengoz, zapatuan ospatuko dituzte Aratusteak. Hala, egitarauak bere osotasunean eutsi dio, eta goizean, 10:30ean, kalera irtengo dira Oinarineko dantzariak Hartza, Tximinoa eta Hezitzailea lagun dituztela. Bi taldetan ba-

natuko dira eta 40 bat lagun ariko dira dantzan. Eguerdiko saio nagusian, aldiz, 180 herritar inguruk dantza egingo du, 12:30ean plazan. Ondoren, herri bazkaria eta musika izango dira protagonista gauerdia arte.

Odol-emaileen elkarteak ohar-tarazi du, urtero lez, eguerdian plazan izango direla herriarren borondatea jasotzeko prest.

Haurrek, gaur

Pausoka elkartearen eskutik, herriko gaztetxoek gaur arratsaldean ospatuko dute mozorro-festa. Arratsaldeko lauretatik aurrera, Pausokako gurasoek prestatutako txokolate beroa eta torradak banatuko dituzte. 17:00etan, umeendako dantzaldia egongo da Zurrategi plazan *Girotu Plaza!* taldearekin.

Etxabe eta Urrutia nagusi

Beñat Etxabe eta Ainara Urrutia izan dira azkarrenak Antzuolan domekan jokatu zen Zortzi Miliak lasterketan. Eguraldia lagun, sekulako giroa izan zen eta bailarako lasterkari askok parte hartu zuen; guztira, 249 parte hartzaile izan zituen lasterketak. Hala, bailarako mendi lasterketen denboraldia ireki berri du A8M lasterketak.



GOIENA

Zergen salbuespen onuradunek eskaera egin dezakete

Antzuolako Udalak jakinarazi duenez, 2020rako indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera hobari edo salbuespen onuradunak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek martxoaren 25era arte dute hauen aplikazioa eskatzeko aukera.

Eskaera asteleheneetik ostiralera egin ahal izango dute udal-texean bertan, goizeko zortzie-

tatik eguerdiko ordu bietara bitartean. Eskaera egitearekin batera, gainera, beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Hobaria edo salbuespen onura jasoko dute, besteak beste, erai-ki berriek, eguzki energia sistemek, familia ugariak eta Bizigune programako erabiltzaileek. Baina baita ere ibilgailu elektrikoak nahiz ibilgailu hibridoak dituztenek.

Eskaera egiteko azken eguna martxoaren 25a da.

Atsedena diaren ostean, Idiazabal izango da Eztalan

Puntu bakarreko aldea dute Antzuola futbol taldeak eta Idiazabalek: 20 puntu ditu talde gorriak eta 19, aldiz, goierriarrek. Bi taldeek bosna partidu irabazi dituzte, eta hogeita batgarren jardunaldiko partidua lehiakorra izango dela aurreratu daiteke. Asteburuko atsedena diaren ostean, Eztalan jokatu dute hilaren 29an, 16:00etan.

Master Cup-eko ezusteko bilakatu dira galeanotarrak

Nagore eta Leire Galeano ahizpek hirugarren kanporaketa gainditu dute Deban. Berako Naiara Trigueros eta Urduñako Ekiñe Otaola bikotea erraz gainditu dute. Antzuolarrek 2-18 nagusitu dira eta aurtengo Master Cup txapelketako ezustekoe-tako bat direla berretsi dute. Asteburuan Berastegin jokatu dute galeanotarrek.

Aratuste-martitzena erretiratuendako

Aurten ere umore fina eta alaitasuna izango dira nagusi Landatxope elkarteak. Izan ere, Aratuste-martitzena herriko erretiratuendako eguna da. 18:30ean hasiko da mozorro festa eta mozorro originalenak saria izango duela aurten ere aurreratu dute Landatxope elkarteak kideek. Horregatik, dei berezia egin diete mozorrotuta parte har dezaten erretiratuei.



Iazko mozorro festako irabazleak. LANDATXOPE

OHARRAK

'Hezkuntza Antzuola'

Iñigo Ramirez de Okarizek Antzuolako hezkuntzaren gaineko historia idatzi du eta otsailaren 27an aurkeztuko du *Hezkuntza Antzuolan* liburua, Olanaren, 18:30ean. Ondoren, batutako argazkiekin osatutako erakusketa inauguratuko da.

Memoria tailerra

Abian da garuna aktibo mantentzeko ikastaroa. Maiatzaren 25era arte astelehenero Landatxopeko lokalean, 10:15ean hasita.

Puntaik Punta jaialdia

Debagoieneko bidezidorren jaialdia aurten Antzuolan ospatuko da, maiatzaren 21etik 24ra.

"Zergatik eta zertarako antolatzen gara?"

IRAITZ AGIRRE ANTROPOLOGOA ETA AHOLKULARIA

Otsailaren 26an eta martxoaren 4an Elgetan izango da. Feminismoaren mugarren errepasoa egin eta gaur egun nora eta zertarako balderei erantzuten saiatuko da

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Emakumeen Nazioarteko Egurenaren aurretik eta Elgetako emakume taldeak Udalarekin elkarlanean antolatuta bi tailer egingo ditu Iraitz Agirrek Elgetan. Hurrengo bi eguaztenetan izango dira saioak, 18:30ean, udaletxeko areto nagusian. Irekiak izango direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Feminismoaren historia ezagutzea izango da lehenengo saioaren xede nagusia, ezta?

Genealogia feministen kontzeptuak zer esan nahi duen azaltzen saiatuko naiz, bai. *Genealogia* kontzeptua erabiltzen dut beste askok egindako lan mordoa ondoz gaudelako gu gauden egoeran eta lekuan. Askotan, ematen du feminismoan hutsetik hasten garela, eta ez da horrela. Uste dut interesgarria dela mendeetan atzera egin, eta feminismoan izan diren eztabaida eta mugarri nagusiak identifikatzea. Egile, testu eta gogoeta esanguratsuenak ezagutu, eta mugimendu feminista ezaugarritu duten olatuak kokatuko ditugu. Modu parte hartzailean, mugimendu feministaren historian jorratu diren gaiak landuko ditugu eta kronologia batean kokatzen saiatuko gara. Denon artean femi-



Iraitz Agirre. EKAITZ ZILARMENDI

"FEMINISMOAREN GENEALOGIA BAT EGINGO DUGU ETA NOR NON KOKATZEN DEN HAUSNARTUKO DUGU"

nismoaren genealogia bat egiten saiatuko gara.

Bigarren saioa martxoaren 4an izango da. Helburua izango da genealogia luze horretan nork bere burua nola kokatzen duen hausnartzea, ezta?

Hausnarketa saio bat izango da gehiago. Ez hainbeste helburuak finkatzeko asmoarekin, baizik eta Euskal Herriko eta Elgetako errealtatean lur hartzeko asmoarekin. Zergatik antolatzen gara? Zertarako antolatzen gara? Askotariko ariketen bidez emakume ginela noiz konturatu ginen eta emakumeen eskubideen alde nola kokatu ginen partekatuko dugu. Baina, batez ere, zergatik antolatzen garen galdetuko diogu gure buruari. Gure asmoak eta nahiak antolatzen eta definitzen saiatuko gara.



Otsailaren 2an Karabietan agertutako lehegaitako bi. HERRIZAINGO SAILA

"Seguru agertuko direla 36ko gerrako lehegailu gehiago"

Lehegailuak Indargabetzeko Unitateko komisarioak dio horrelakorik ikusiz gero 112ra deitu behar dela

L.Z.L. ELGETA

Otsailaren 2an, 36ko gerrako lau lehegailu aurkitu zituzten Intxorta 1937 kultur elkarteko kideek Karabietan. Abisua eman eta dagokion protokoloa martxan jarri ostean, kontrolpeko leheketak egin zituen Ertzaintzak. Ez da lehen aldia gerrako lehegailuak agertzen direla Elgetan.

Lehegailuak Indargabetzeko Unitateko komisario Julian Arruabarrenak azaldu du seguru agertuko direla gehiago. "Urtean, batez beste, 80 bat agertzen dira EAEn. Frontea egonkortu zen eremuetan eta lubakietan

azaltzen dira". Esan du "lasai asko" ibili daitekeela mendian, "normalean lur azpian egoten direlako". Horrelakorik aurkituz gero, dena den, 112 telefonora deitu behar da. "Eta ez dira ez ukitu, ez mugitu behar. Hermetikoki itxita egoten dira, eta ez badira zabaldu karga aktibo egoten da. Erruleta errusiarra da". Azaldu du bildumatzailak ibili ohi direla gerrako material bila, eta horrela aurkitzen dituztela lehegailuak. "Debekatuta dago jasotzea, eta legeak ez du uzten horrelakoak edukitzen; ez lehegailurik, ez piezarik".



MAIDER ARREGI

Teknologia berrietan trebatzen

Elgetako KZgunean hainbat saio egin dituzte, aplikazio digitalei ahalik eta etekin handiena ateratzen ikasteko. KZguneko dinamizatzaile Eneritz Orobengoaren eskutik zazpi eguneko formakuntza jaso dute hainbat elgetarrek. "Beldurra kentzea klabea da", adierazi du Orobengoak. "Aplikazioak probatu behar dira, eta interesekoak zaizkigunak aukeratu".

Martxoaren 8an, elkarretaratzea eta bazkaria

Emakumeen Nazioarteko Egunean elkarretaratzea eta bazkaria egingo dira Elgetan. Elkarretaratzea 13:00etan izango da, eta bazkaria 14:30ean. Menua da: paella – oilaskoarekin zein beganoa–, postrea eta kafea. Prezioa 7 euro da. Txartelak salgai daude, martxoaren 6ra arte, herriko taberna guztietan eta Elkoro botikan.



Martxoaren 8ko bazkaria, iaz, udaletxeko arkupean. ELGETAKO EMAKUME TALDEA



2019ko Aratusteen umeen jaialdia, herriko plazan. IMANOL SORIANO

Mozorroa jantzi eta herria kolorez apaintzeko eguna

Gaur, hilak 21, ospatuko dira Aratustek Elgetan. Herri Eskolako umeak izango dira jaiari hasiera emango dietenak, eta dantzek, abestiek, txokolateak eta, batez ere, giro onak jantziko dute herria hurrengo egunetan

Naroa Urien Berrio ELGETA

Gaur hasiko dira aurtengo Aratustek Elgetan. Herri Eskolako, Herrixa Dantzaneke, Maala Guraso Elkartek, Xalbadorpe Erretiratuen Elkartek eta Udalak bat egin dute gaur hasi eta hurrengo egunetarako egitaraua ekintza dibertigarriekin osatu ahal izateko. Eguraldia lagun

izan arren, airearen kalitatearen neurketek aldaketak eragingo dituzte.

Aratusteen hasiera, gaur

Herri Eskolako neska-mutikoak izango dira Aratuste egunaren lehenengo ekitaldiaren protagonistak. Herriko txikiak Inauteri jaialdia egingo dute,

15:00etan. Eskolak jakinarazi du airearen kalitatea dela eta hartutako prebentzio neurrien ondorioz frontoian izango dela ekitaldi hori. Umeek dantzak prestatu dituzte eta taldeka eskainiko dituzte gurasoen eta senitartekoen aurrean. Amaieran, dantza bateratua ere egingo guztiek. Jarraian, 16:30ean,

Maala guraso elkartek txokolate-jana eskainiko du eta, Udalak antolatuta, euskal musikaz gozatu eta dantza egiteko aukera egongo da, iaz ere herria girotu zuen I&D disko-festaren eskutik. Bukatzeko, 18:30ean, buruhandiak egongo dira.

Herrixa Dantzan, domekan

Inauteri-domekan, *Inauterietako dantzak* saio monografikoa egongo da, 19:00etan, Espaloian. Euskal Herriko hainbat herritako Inauteri ospakizunetan berezko dituzten dantzen ibilalditxoak egingo da: Zuberoako, Lapurdiko, Bizkaiko, Nafarroako eta Gipuzkoako Inauteri dantzak ezagutu, testuinguruan jarri eta dantzatze aukera izango da. Bailarako Inauterietako sorgin dantzak eta kaldereroen dantzak ere leku berezia izango dute. Domekarako prestatutako ekitaldia "ekintza kulturala eta hezitzailea" dela azaldu du Herrixa Dantzaneko arduradun Patxi Monterok. Izan ere, dantzatu baino lehen jatorri eta esanahiak aztertuko dira, laburki. Ekitaldiaren sarrera doakoa izango da eta parte hartzea libre. Bestalde, edatekoak egongo dira eta Maialde jatetxeak esne ekologikoz egindako pellak jarriko ditu herritarren eskura, 2 euroren truke.

Aratuste-martitzena

Urtero bezala, Xalbadorpe erretiratuen elkartek antolatuta,

txokolate-jana eta bingo saioa egongo dira Ozkarbi elkartean, Aratuste-martitzenean, 17:00etan. Hala, Xalbadorpe Elkarteko ki-deek bazkide guztiak gonbidatzen dituzte parte hartzera.

Inauteri jaien ordutegi eta zehaztasunak

Gaur hasi eta hurrengo egunetako ekintzak:

Otsailak 21

- **15:00** Herri Eskolako neska-mutikoen jaialdia, frontoian.
- **16:30** Maala Guraso elkartean eskutik, txokolate-jana.
- **17:00** I&D disko-festa, frontoian.
- **18:30** Buruhandiak.

Otsailak 23

- **19:00** Inauterietako dantzak, Espaloian, Herrixa Dantzan saioaren barruan.

Otsailak 25

- **17:00** Xalbadorpe elkartek antolatuta txokolate-jana eta bingoa, Ozkarbi Elkartean.

GORA ETA BEHERA



J. A. OJANGUREN

Azkonabieta inguruan ere, zaborra lurrian

Paseoan zihoan herritar batek bidalitako argazkia da. "Lotsagarria da, gorago joanda ere zakar gehiago ikusi daiteke. Zer egin honen aurrean?", dio, kexati.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Hautesleen errolda

Apirilaren 5ean izango diren Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeak direla eta, erakusgarri dago udaletxean hautesleen errolda, otsailaren 24a arte.

Mahai-futbola

Gaztelekuak antolatuta, mahai-futbol txapelketa egongo da otsailaren 29an, 18:00etan. Interesatuak aurrez eman behar dute izena, ludotekan. Izena emateko azken eguna otsailaren 26a izango da.

OHZ zerga

Ondasun higiezin (OHZ) eta ibilgailuen zergetan salbuespenak eta hobariak eskatzeko epea zabalik egongo da otsailaren 28ra arte.



LARRAITZ ZEBERIO

Bibliobero zikloa, arrakastatsu

Bibliobero zikloaren barneko *Hile topaketa* hitzaldiak hainbat pertsona bildu zituen barikuan. Erritmo onarekin jarraitzeko asmoz, *Hitzez pitz* irakurketa klubaren saioa otsailaren 27an, 17:30ean, eta Itziar Rekalde kontalariaren *Eros, eroso, ero* izeneko saioa, otsailaren 28an, 22:30ean. Informazio gehiago eta izen emateak, liburutegian eskuragarri.



Hiru ikastetxeetako ikasleak Oñatiko Inauteri Txikia ospatzen atzo, eguna. IBAI ZABALA

Oñatiko Inauteriekin hasi dira aurten Aratusteak

Inoiz baino lehenago hasi dira aurten Aratusteak Oñatin. Atzo, Eguen Gizen egunean, herriko LHko 300 bat ikasle eta irakasle Oñatiko Inauteriez jantzi, eta propio ikasitako abestiak eta dantzak egin zituzten. Bihar, nagusien txanda izango da

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko Inauterietako jantziak soinean zituztela eman diete herriko ikasleek hasiera aurtengo Aratusteei. Unibertsitatean elkartu ziren, atzo, Eguen Gizen eguna, arratsaldean, eta kalejiran ibili ostean plazan elkartu ziren berriz, aurtengo berritasunari kondearen eta kondesararen arteko baltsa dantzatzuz amaiera emateko. Guztira, Lehen Hezkuntzako 300 bat ume eta irakasle izan ziren dantzan, Oñatiko Inauterietako zortzi pertsonaiek lagunduta.

300 gaztetxo elkarrekin

Herriko ikasleekin ekintza bereziren bat egiteko gogoaz bazuen lehendik ere Oñatiko Inauterietako taldeak. Eta pentsatu zuten aurtengo zitekeela unea, Oñatiko dantza taldearen 50. urteurrenean. Herriko hiru ikastetxeekin batera egin dute posible ideia.

Dagokien arropak jantzi ez ezik, ospakizun honetarako kantu eta dantza propioak ere ika-

si dituzte umeek. Eta hor ere ikastetxeek lagundu dute. "Dantza taldekook geure umei erakutsi dizkiegu, batetik, eta modu horretara euren ingurukoei ere bai. Bestalde, irakasleak gonbidatu genituen geure entsegutara etortzeko, eta ikastetxe bakoitzak bere erara landu du", dio Oñatiko Inauterietako taldeko Arkaitz Bengoak.

Konpartsa herrikoia bihar

Zapatuan egingo den ospakizunaren antza zuen atzokoak. Zapatuan ere 300 lagunetik gora aterako dira Oñatiko Inauterietako ospatzera: dantzariak, pertsonaia eta musikariak. 11:30ean aterako dira Olaiturritik, dantzan, eta kalera gerturatu ahala

OSTEGUN GIZEN EGUNEAN HASI ETA MARTITZENEAN BUKATUKO DIRA ARATUSTEAK

pertsonaia batzen joango zaizkie. Sei dantza prestatu dituzte zaturako: "Paganeria eta Ume handia makil-dantzak, Artzaren polka eta Ordu txikitak makilarik gabekoak eta bi kalejira", Nagore Uribarrik azaldu duenez. Guztiek elkarrekin bazkalduko dute eta arratsaldean jarraipena izango du festak. 17:30ean aterako dira Olakua auzotik eta herrigunerantz joango dira, dantzan. Azken ekitaldia plazan izango da, 20:00etan. Zortzigarren urtez, baltsa dantzatzeko dute kondeak eta kondesak, eta herrietik joateko gonbidapena jaso ospakizunean parte hartu dutenen partetik.

Luzaidako dantzak domekan

Domekan, Luzaidako dantzak egingo dituzte Oñatzeko dantzariak herriko kaleetan; 1993an egin zituzten lehen aldiz. Aratusteak martitzenean bukatuko dira, pailazoan ikuskizunarekin, elkartasun txokolate-janarekin eta txorimalo eta erraldoiekin.

Lehen sektorearen diagnostia nola egin ari da aztertzen Udala

Oposizioak "beharrezkoa" ikusten du epe motzeko neurriak hartzea klima aldaketari dagokionez

Oihana Elortza OÑATI

Aurtengo aurrekontuetan jasota du Udalak lehen sektorearen diagnostia egitea, eta hori nola egin ari da aztertzen.

Nekazaritza eta abeltzaintza

EAJren proposamena onartu eta aurrekontuetan sartu zuen udalbatzak asmo hori. Eta alderdi biak ari dira elkarlanean gaia lantzen. "Nekazariak zein behar dituzten, zein arazo dituzten edo zer ikusten duten ondo eta zer gaizki jaso behar genuke, adibidez. Errelebo falta ere badago sektore horretan, eta tresnak topatu behar ditugu arazo horri laguntzeko", dio Andoni Altuna jeltzaleak. Zelaia eta larreak mantentzeko abereak beharrezkoak direla dio Altunak, eta abeltzaintza ere garrantzitsua dela.

Baserriarrei lotuta, landare-osasunerako produktuen inguruko formakuntza-saio bat egitea ere adostu dute alderdi biek, Altunak baieztatu duen moduan: "Zubillagan eta Larrañan, adibidez, egin dira horrelako ikastaroak, baina orain, ikastaro hori herri mailan antolatzea da asmoa".

EH Bilduk egitasmo horien proposamena onartu arren, jeltzaleak kezu dira klima aldaketaren ingurukoa onartu ez zutelako. Altunak uste du "beharrezkoa" dela epe motz, ertain zein luzeko neurriak hartzea horretarako, "ahaztu gabe aztertzea norberak zenbat kutsatzen duen".

Klima aldaketa

EH Bilduk dio presente duela klima aldaketaren arazoa, eta horretarako lan egiten dutela adierazi du Asier Iraeta Ingurumen zinegotziak: "Egitasmo ezberdinak bultzatzen ditugu klima aldaketaren gainekin lotuta, denak titulu bakarraren azpian ez egon arren". Horien artean aipatu ditu: mugikortasuna, energia berriztagarriak, zuhaitzen birlandatzea baso ekonomia jasangarriaren alde eta tokiko agenda 21, besteak beste. Lehen sektorearen diagnostia dagokionez, Iraetak esan du zehaztu egin behar dutela zer-nolako diagnostia egin. Gaineratu du gaia mahai gainean dutela batzordean, eta teknikari zein alde bietako zinegotzien artean landuko dutela.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Desinformazioa

Gaurko mundua ezagutezina izango litzateke dauzkagun aparatua, sare eta konexio guztien faltan. Hango eta hemengo gertaeren informazioa minutuero eskuragarri daukagu, tertuliakide eta zutabegileen iritziak nonahi aurkitu ditzakegu, politikarien saio eta txioen oihartzuna azkar zabaltzen da etxe guztietara...

Aspalditik teknologia berriak prest dauzkagu informaziorako, baina oraindik ere, desinformazioaren aroa nahiago dugula iruditzen zait; bai, behintzat, sasi-politikari eta sasi-kazetari batzuen kasuan. Askotxo dira gezurra egia parea saltzeko ahaleginean egiten dutenak, edo alderdiko interes batzuen arabera errealitatea manipulatzeko saiatzen direnak. Ez al da penagarria bazterrak nahasteko afizioa izatea?

Zer da egia eta zer da gezurra, galdetuko du norbaitek. Egia eta gezurra iritzi eta interes pertsonalaren arabera definitzen al dira, galdetzen dut nik. Subjektibitatea ona da; subjektibismoa, berriz, oso txarra, eta desinformazioa kezkarria.



Txorimaloak Olakua auzoko jaietan. GOIENA

Berdintasuna auzoetako jaietara ere heltzeko deia

Auzoetako jaietan berdintasun ikuspegia txertatu eta eraso sexisten aurrean erreagionatzeko laguntza eta elkarlana eskaini die Udalak auzo jaietako batzordeei. Jai nagusietan egiten den lanketa auzoetakoetan ere egitea da Udalaren nahia

Oihana Elortza OÑATI

Auzoetako jaiak ere parekideak izatea eta indarkeria kasuen aurrean zelaz jokatu jakitea. Bi helburu horiek betetzeko elkarlana proposatu die Udalak auzo jaietako batzordeei.

Bi multzotan banatuta

Puntu horiek nola landu herriko jai nagusien antolaketaren parte da eta auzoetako jaiak antolatzen direnean ere horrela izatea gurako luke Udalak. "Hori azalduz bilera egin genuen aurreko astean hainbat auzotako jai batzordeetako kideekin. Gure proposamena horixe da, bi puntu horiek ere kontuan hartzea auzoko jaiak prestatzerakoan beste hainbat puntu aintzat hartzen diren moduan. Horretan laguntzeko prest gaude eta elkarlana eskaini genien", adierazi du alkateak, Izaro Elortzak.

Hamasei auzo ditu Oñatik, eta herrigunean beste zortzi auzo-jai ere antolatzen dira. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, bere be-

rezitasunak eta beharrak, eta gaia auzo bakoitzak berak lantzea da Udalaren proposamena. Lehen gonbidapen hau herrigunean ospatzen diren jaietako batzordeei egin die Udalak: "Asmoa bada landa auzoetako jaietan ere gai hauek lantzea, baina pentsatu dugu lehenengo herri barruan egiten direnekin hastea". Zortzi horiek dira: San Migel Txikiak, Errekaldeko jaiak, Olakuakoak, Trianakoak, San Lorentzokoak, Bidebarrietakoak, Atzeko kalekoak eta San Martinekoak.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko protokoloa sinatu zuten urtarrilean Oñatiko Udalak, Osakidetzak eta Barne Sai-

HERRI BARRUKO AUZO-JAIETAKO BATZORDEETAKOekin EGIN DU LEHEN BILERA UDALAK

lak. Protokolo hori herri mailan zabaltzeko asmoa du Udalak, eta hau izan daiteke hori egiteko modu bat, alkatearen esanetan.

Laguntzeko prestutasuna

Udalaren proposamena jasota, jai batzordeetako kideek hartuko dute orain ardura gaia jaien antolaketaren barruan sartzeko. "Berdintasun teknikaria prest egongo da edozein zalantza argitu edo laguntza emateko. Jaien barruan Udalak ematen dituen baliabide edo bestelako laguntzez gain, jaiak denendako eta denek disfrutatu ahal dezaten ere laguntzeko gertu gaude".

Maiatzaren lehen Olabarrieta-ko jaiekin hasten da auzoetako jaien egutegia, eta, gutxi gorabehera, irailean amaitu, San Martin auzokoekin. Herri barrukoak antolatzeko 3.000 bat euro ematen dizkio Udalak batzorde bakoitzari; landa auzoetakoekin urte guztirako emandako kopururitik hartzen dute, bakoitzak egokien ikusten duen beste.

Rodriguezek "batera" ikusten ditu Euskal Herria eta Katalunia

Oñatiko EH Bilduk gonbidatuta, Zaldibarko gertaeraren eta apirilko hauteskundearen inguruan egin du berba

Maialen Regueiro OÑATI

Gaurkotasun politikoa izan zuen hizpide eguaztenean, Oñatiko EH Bilgunean, Euskal Herria Bilduko mahai politikoko kide Arkaitz Rodriguezek. Euskal Herriak eta Kataluniak "horma gainditzeko estrategia amankomun bat jarraitu beharraz" gain, Zaldibarko erraustegiaz, apirilko hauteskundeaz eta "azkenaldian eskuinak nazioartean hartu duen indarrak" ere mintzatu zen Rodriguez.

Apirilaren 5ean izango diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak begira, azaldu zuen EAJk eta Podemosen "alde batera" utzi dutela erabakitze eskubidea, eta testuinguru horretan "aukera bakarra" EH Bildu dela aitortu zuen, "bai burujabetzaren bidean aurrera egiteko, baina baita ere ezkerreko politikak egiteko".



Arkaitz Rodriguez, Oñatin. M.R.

Zaldibarko gertaerari dagokionez, aipatu zuen "gutxi bartzuen aberastasuna lehenetsi" dela "gehienek bizitzaren kaltean", eta hori, gaineratu zuen, "zerbitzu publikoak pribatizatzen" direnean pasatzen dela, "hondakinen kudeaketan kasu".

Asteburuan eskainiko dituzte Kantariko Oñatiko saioak

Gaztelekuan grabatu zituzten ordena berean emango dituzte; asteburu honetan, lehenengo hirurak

O.E. OÑATI

Bihar, zapatua, eskainiko dituzte Goiena telebistan Kantariko Oñatiko lehen saioak. Aurten, asteburu bakoitzean hiru saio berri estreinatuko dituzte, eta asteburu honetan hasiko dira, Oñatikoekin. Gaztelekuan urtarriaren 25ean eta 26an grabatu zituzten ordena berean emitituko dituzte; saio bakoitzeko bost talde, han grabatu zituzten modu berean.

Zapatuan emango dituzte estreinakoz: 09:00etan, 09:30etan eta 10:00etan. Eta arratsaldean errepikapenak izango dira: 17:00etan, 17:30etan eta 18:00etan. Domekan, ordutegi berean ikusi ahal izango dira saio berak.

Nork berea ikusteko

Behin saioa telebistan emititu eta gero, hurrengo astean zehar, parte-hartzaile bakoitzak Wha-



Oñatiko gaztetxo batzuk Kantarin. I.S.

tsapp mezu bidez jasoko du parte hartu zuen saioaren bideoa. Bideo horretan, aukera izango dute saio osoa ikusteko, edo soilik taldearen emanaldia. Horrez gain, Goienaren webgunean ere egongo dira saio guztiak eta argazkiak ikusgai.



Txirrindularien eta zuzendarien talde argazkia, domekan egindako aurkezpen ekitaldian. MAIALEN REGUEIRO

Denboraldiari ekiteko prest dira txirrindulariak

Aurtengo denboraldia hastear dagoela eta, domeka eguerdian egin zuten txirrindulari talde guztien aurkezpena; Aloña Mendi Bizipozeko taldeak eta Ulma Aloña Mendikoak izan ziren Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatean, baita taldeetako entrenatzaileak ere

Maialen Santos OÑATI

Laster hasiko da denboraldia Aloña Mendiko txirrindularientzat; domekan aurkeztu zituzten talde guztiak, baita bizikleta gainean arituko direnak ere. Talde bakoitzeko zuzendariak nortzuk izango diren ere eman zuten aditzera aurkezpenean.

Zuzendaritza batzordeko kide Ruper Arkauzek azaldu duenez, aurten "inoiz baino haur gehiago" arituko dira eskolarretan; guztira, 31 txirrindularik osatuko dituzte benjamin, alebin eta infantil mailako taldeak. Kadete mailan bost txirrindulari arituko dira; horietako hiru bigarren urtez arituko dira maila horretan, eta besteek aurten lehendabiziko urtea izango dute. Junior mailan, bestalde, beste bost txirrindulari arituko dira. Arkauzek aurreratu duenez, "itxura ona" du taldeak, baina erorketa eta lesioek denboraldian "eraginik" izan ez dezaten espero du, iaz lesioek nahi baino eragin handiagoa izan zuten eta.

Xabier Murgiondo oñatiarra, bestalde, Lagun Aro taldean lehiatuko da; eta Gaizka Maiztegi, aldiz, La Torren.

Domekako proba, ezbaian

Junior taldeak zabalduko du, berez, aurtengo denboraldia. Halere, domeka honetan egitekoa zen Eibarko lasterketa bertan behera geratzea baloratzen ari dira antolatzaileak, Zaldibarko zabortegeiak airean eragin duen kutsaduragatik. GOIENA aldizkariaren edizioa ixteko orduan, oraindik erabakitzeke dago lasterketa egingo duten edo ez.

Kadeteek, bestalde, hilaren 29an, zapatua, izango dute lehen lasterketa, Donostian, Ibaetan. Azkenik, eskolarrek martxoaren

ESKOLARRETAN INOIZ BAINO HAUR GEHIAGO ARITUKO DIRA AURTEN; GUZTIRA, 31 NESKA-MUTIKO

14an ekingo diote denboraldiari, Oñatin egingo den lasterketan.

Oñatiko lasterketak

Hauk dira herrian egingo diren lasterketa guztiak.

Eskolarrak

- **Martxoak 14** Herrian zeharreko proba.

Kadeteak

- **Ekainak 28** Olakua saria.

Juniorrak

- **Uztailak 4** Arantzazura igoera.
- **Irailak 12** San Miguel Proba.

Afizionatuak

- **Irailak 19** Oñati Saria.



Urko Arregi oñatiarra Ikatz tabernako ohol-tza gainean. GOIENA

'Dizdaitte' bertso txapelketako finala hilaren 29an egingo dute

Hiru oñatiarrek hartu dute parte txapelketan; Arregi anai-arrebak arituko dira Antixena gaztetxeko finalean

M.S. OÑATI

Oñatiko Txinparta bertso eskolak antolatutako bertsolari gazteen *Dizdaitte* txapelketa jokatzeko ari dira hilabete honetan zehar, eta datorren otsailaren 29an Antixeneko gaztetxean emango diote amaiera txapelketari; 19:30ean hasiko da azken saioa.

Bi kanporaketa egin dituzte orain artean: lehena hilaren 8an Pako tabernan eta bigarrena 15ean Ikatzten. Maider Arregi oñatiarra eta Ane Zuazubiskar arrasatearra izan ziren garaile horietan –hurrenez hurren–, eta, beraz, zuzenean sailkatu ziren finalerako. Gainontzeko lau finalistak puntuazioaren arabera erabaki dira: Eli Pagola ereño-tzuarrak lehen kanporaketan jardun zuen bertsoan, eta Urko Arregi oñatiarra, Oihana Arana eskoriatzarra eta Txaber Altube abadiñarra, aldiz, bigarrean aritu –eta sailkatu– ziren.

Anai-arreba oñatiarrak, finalean

Debagoieneko sei bertsolari gaztek hartu dute parte txapelketan; horietako hiru, herrikoak. Aitor Tatiegik ez zuen lehen kanporaketa gainditu, eta, beraz, Maider eta Urko Arregi anai-arreba oñatiarrak izango dira finalean. Egin beharreko lanei dagokienez, orain arteko ariketa antzekoak egingo dituzte, eta ez dute buruz burukorik egingo. Puntuazio altuena duen bertsolariak jantziko du txapela.

Txinparta bertso eskolako kide Gontzal Belategik azaldu duenez, bertsolari gazteen sariketa lehen aldiz egin dute aurten, eta orain arteko saioen balorazioa "oso positiboa" izan da: "Herriak oso harrera ona egin dio txapelketari". Aurreko urteetan oñatiarren arteko txapelketak egin badituzte ere, *Dizdaitte* txapelketak Euskal Herriko bertsolari gazte ezberdinei egin die leku.

Pilota partiduak gaur arratsaldean jokatu dituzte Zubikoan

18:45ean hasiko dira alebinak. Lizarralde eta Perez bikotea Behar Zanaren aurka arituko da. Urdanpilleta eta Sagasta, Ilunperen aurka. Arrazolak eta Azkuek Ataunen aurka jokatu dute. Infantiletan, Barrenak eta Aldeak Tolosa hartuko dute; eta Osese eta Osak, Zumaia. Gazteetan, Garitanok eta Jau-regik Ilunpe hartuko dute.

Sala Bros & Sabin eta Unidad Alavesa gaur gauean ikatzen

Asier eta Igor Sala anaiek eta Sabin Gauresti bilbotarrak osatzen duten Sala Bros & Sabin taldea igoko da lehenengo ohol-tza gainera, 21:30ean hasita. Jarraian, Unidad Alavesa talde ataundarrak eskainiko du kontzertua. Emanaldira joateko sarrerak aurrez eskuratu daitezke Ikatz tabernan bertan, 5 euroren truke.



goiena

ADI!

GOIENA TELEBISTAK, KANAL ALDAKETA

Goiena telebista kanalez aldatu da. Telebista antena bidez ikusten baduzu, zure komunitateko antenan egokitzapenak egin beharko dituzu. Jarri harremanetan zure antena-jartzailearekin.

Informazio gehiago: **943 25 05 05**.



Jabeen erkidegoetan antena-jartzaile batek egin behar du lan hori. **Famili bakarreko etxeetan**, berriz, berriro sintonizatu behar dira telebistak, kanalak ikusteko.

Dirulaguntzak eskatu ditzakezu: Televisioldigital.gob.es.

Informazio gehiago **943 25 05 05**.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Kantari Aretxabaleta: artista txiki handiak, euskal kantuen festan

Aretxabaletako eta Eskoriatzako 160 neska-mutiko inguru izan ziren Zاراia aretoko oholtza gainean kantuan eta dantzan. Bertso bat jaso zuten opari Lekaixoka bertso eskolatik eta Jaiki dantza elkarteko kideak izan ziren gonbidatu berezi



Bost Izarrak taldeko kideak *Gogoak* kantua abestu eta dantzatzen.



Mutila zapia lepoan duela kantuan.



Neska txaloka, abesten eta dantzan.



Txapeldunak taldeko kidea abesten.



Mem 3 taldeko kideak *Beldurrik ez* kantua abestu eta dantzatzen.



Parte-hartzaileak eta aurkezleak, Lekaixoka bertso eskolako kideek opari bidalitako bertsoa taularatzen.



Koloretako loreekin kantuan.



Gautxori taldeko kideak *Euritan* dantzan kantua abestu eta dantzatzen.



Zir taldeko partaideak emanaldi amaieran egindako dorrean. ARGAZKIAK: XABIER MARTIN



Lau Izar taldeko parte-hartzaileak, gitarrekin, *Behar zaitut* kantua abestu eta dantzatzu emanaldiaren une batean.



Aurkezleak eta parte-hartzaileak saio amaierako kantua abestu eta dantzaten.



Atxabaltarrak taldeko parte-hartzaileak koloretako kamisetekin.



Katutxoak taldeko neska abesten.



Nol taldeko hirukotea *Suhiltzaile izan nahi dut* kantua eskaintzen.



Monk taldeko mutila kantuan.



Walking Happy Alaska taldeko partaideak emanaldiaren une batean.



Mikel Laboaren kantu bat oinarri hartuta, Jaiki elkarterko kideak dantza-inprobisazio emanaldiaz ikusleak gozarazten.

7. ALDIA
Kantari
 DEBAGOIENA

Arrasate eta Aramaioko partaideok, eman azken errepassoa abestiari eta koreografiari!

ENTSEGUAK
 Otsailaren 29an eta martxoaren 7an, Kulturaten

IKUSKIZUNA
 Martxoaren 7an eta 8an, Amaia Antzokian.

Animatu eta etorri neska-mutikoekin kantuan eta dantzan egitera!

Informazio gehiago: 943 25 05 05 / 888 69 00 04 / <https://goiena.eus/bereziak/kantari-7-aldia>

goiena



Beñat eta Jokin Etxabe, martitzen arratsaldean, Gorlan. XABIER URZELAI

"Kirolez aldatu dugu, baina ilusioari berdin eusten diogu"

JOKIN ETA BEÑAT ETXABE MENDI LASTERKARIAK

Txirrindularitzak gazi-gozo asko ekarri dizkie anaia bergararrei; profesional izateko ideia baztertuta, mendian dabilta gustura. Eta lasterketak irabazten, gainera

Xabier Urzelai BERGARA

Beñat Etxabe eta Jokin Etxabe (Bergara, 1994) bizikleta gainean egindako ibilbideagatik izan dira albiste duela gutxira arte. Urtebete hartu dute gorputza jarduera berrira moldatzeko, eta txirrindulari zireneko ohi-turak errekuperatu dituztenerako lasterketetan aurrean dira ostera. Aitortu dute sekulako ilusioa egingo liekeela Euskal Selektzioa ordezkatzeko, nahiz eta badakiten horretarako bidea egin behar dutela oraindik.

Bizi osoa Gorko mendateari lotuta, orain ere hemen entrenatzen zarete?

Jokin Etxabe: Lagunek sarri esaten digute: "Gaur ere Gorko?". Eta gure erantzuna: "Gaur be-

"URTEBETE HARTU DUGU GORPUTZA MENDIAN KORRIKA EGITERA OHITZEKO, LASAI IBILI GARA"

han egon gaitxuk, basurdeak, orkatzak eta etxabetarrak".

Mendi lasterketetan diharduzue, baina geratu zaizue arantzarik ziklismoan ibilbide luzeagoa egin ez izanagatik?

J.E.: Bai, niri bai, gauzak diren moduan. Azken batean, bizitzako sei-zazpi urte inbertitu ditut amets horregatik borrokan. Ikusi dut zer den profesional izatea, baina ez dut jarraipenik izan, eta pena ematen du, bai. Azken urtean denetarik ikusi nuen, txirrindularitzako alde

tristeia, eta ez nengoen prest beste urtebete kanpoan egiteko, nahiz eta banuen eskaintza txukunen bat.

Anekdotak eta bizipen horiekin liburu bat idatz zenezake, Jokin.

J.E.: Tristeia da, baina halaxe da. Emandako hitza betetzen ez duten zuzendariak, betetzen ez diren egutegiak, materiala faltan, soldata batzuk zehaztu eta gero ordaindu ez... badut liburu bat idatzeko, bai. Orain, lasaiago bizi gara, lantegian postu egonkorra, eta mendi lasterketak zaletasun modura.

Beñat, zuk zeuk amateur mailako azken urtean (2017) Kantabriako Gomur taldean apenas gozatu zenuen.

Beñat Etxabe: Mononukleosid gaitzak erabat jota utzi ninduen. Pentsa, garaipenengatik lehian ibiltzetik, bi aste lasterketak ez amaitzera pasa nintzen. Lur jota nengoen, txarto pasa nuen. Eta kosta zait errekuperatzea. Orain, mendi lasterketetan nabil, garai bateko sasoi puntua errekuperatzen, ostera ere benetan indartsu sentitzen.

J.E.: Horrek erakusten du elite mailako kirolean zorteak ze garrantzi duen. Azterketa fisikotan datu oso-oso antzerakoak izan ditugu beti. Ni AEBetako Aevolo taldeak fitxatu ninduen, neurri handian, Txekiar Errepublikako Munduko Kopan Cannondaleko arduradun batek ikusi zuelako ze detaile izan nuen Enric Mas-ekin –mendatean igotzen lagundu zion–. Anaiari, berriz, osasun arazo hark eten zion progresioa.

Gaitasun berbera, eta bi kirol ibilbide ezberdin.

B.E.: Bai, halakoa da elite mailako kirola: erorikoak, osasun arazoak edo, beste barik, besteendako lan egin behar izatea. Lizarten, esaterako, talde lan hori izugarri eskertzen dute, baina beti ez da horrela...

J.E.: Gertatu izan zait amateur mailan bigarren egin, jakinda anaiak bakarrik kilometro batzuk lehenago tropela lehertu duela, sekulako lana egin duela. Baina hori ez da sailkapenean ikusten,

"ZIKLISTAK GINENKO DINAMIKA HARTU DUGU BERRIRO: ENTRENAMENDUAK, ELIKADURA ZAINDU..."

ni igo naiz podiumera. Hori ere badu txirrindularitzak.

Mendi lasterketetara salto eginda, denboraldi hasiera ederra egin duzue.

B.E.: Bai, baina zentzuz egin ditugu gauzak, poliki. Iaz hasi ginen lasterketa batzuetan esku hartzen, baina gorputza mendi lasterketetara moldatzeko entrenatzen ibili ginen. Entrenatza baina gehiago, mendian ibiltzera joaten ginen.

Aurten, baina, seriotasunez hartu dituzue mendi lasterketak.

B.E.: Bai, txirrindularitzako metodologia mendi lasterketetara ekarri dugu: oinarria landu, indarra, serieak tartekatu, elikadura zaindu...

Dinamika hori oso barneratuta duzue.

J.E.: Bizi osoa daramagulako horrela, eta gustatu egiten zaigu, gainera. Urtean lauzpabost parranda egiten ditugu, ez nahiko. Domekan biharamunarekin egotea... ez du merezi.

B.E.: Kuadrillan ere kirola egiten duten lagun asko dugu, eta hori oso lagungarria da, bizi estilo antzerakoa daramagulako askok. Julen Irizar –Euskadiko fundazioziko ziklista– ere kuadrillakoa da eta sarritan aipatzen du lagungarri zaiola kuadrillan kirol giro hau izatea.

J.E.: Ingurukoak zapatuero parrandan badituzu... zailagoa da.

Noiz hasi zineten lasterketetan?

J.E.: Iazko Antzuolako 8 Milietan hartu nuen lehenengoz parte mendi lasterketa batean. Gaixorik nengoen, 38,5eko sukarrarekin, baina kuadrillako batek apustua egin zuen, eta joan egin behar! Bizikleta gainean ere ez dut horrenbeste sufritu; kar, kar, kar. Casper baino zuriago iritsi nintzen helmugara.

B.E.: Kar, kar, kar...

Eta dagoeneko lasterketak irabazten, podiumera igotzen...

B.E.: Gustura gabilta. Calpen hirugarren egin nuen, Gabirian bigarren, eta Kobaz Koba eta Antzuolako 8 Miliak irabazi egin ditut. Eta anaia ere podiumaren bueltan ibili da.

J.E.: Hurrengo lasterketak izango dira UZ Trail, Arriaran, Gabiria, Aloñako Igoera eta Segura-Zerain. Eta gero gerokoak. **Elkarrekin entrenatu ahal izatea ere ez da gauza makala...**

J.E.: Sekulako zortea dugu! Ea nork entrena dezakeen maila igual-iguala daukan lagun batekin, ezinezkoa da!



Joan den domekan Mojategin egindako lan-saioaren une bat. XABIER URZELAI

Lan-saio inklusiboak jarraipena izango du

ERRUGBIA Arrasate Rugby Taldeak Atzegirekin elkarlanean antolatutako errugbi saioak arrakasta izan zuen domekan. Klubeko jokalarik gazte eta beteranoak Atzegiko eta Leintz Eskola Kiroleko ordezkariekin entrenatu ziren, eta baita zenbait gurasorekin ere

Xabier Urzelai ARRASATE

Jarraipena izango du, ez da lan-saio bakarrean geratuko. Egunen batean Bultza Ligan parte hartzeko ametsak bere horretan jarraitzen du, ametsean, baina domekan lehenengo pausoak eman zituzten Mojategin batu ziren lagunek. Edo, sikiera, goiz-pasa ederra egin zuten. Eta esperientzia ez da horretan gera-

tuko, pare bat orduz elkar eza-gutzen eta errugbian lehenengo pausoak ematen ibili ziren lagunek bizpahiru aste barru hitzordua errepikatuko dute eta.

Bultza Ligak, hiru urte

Orain hiru urte sortu zuten Bultza Liga, Euskal Herri mailan, eta proiektu aitzindaria izan zen kirol barneratzailean. Egun,

lau taldek osatzen dute liga, eta laurak dira ekimeneko bultzatzaile: Hernani, Getxo, Gaztedi eta Bilboko Unibertsitatea, hain zuzen ere.

Bultza Liga barneratzailearen helburua da aniztasun funtzionala duten pertsonen erabateko inklusioa gizartean, eta, horretarako, errugbiaren balioak aprobetxatzen dituzte.



SUSANA SANTOR
LEK-EKO ORDEZKARIA

"Denok kirola egiteko aukerak izateko ezinbestekoak dira halako ekimenak. Ederto ibili gara, eta, gainera, erantzun ezin hobea izan du lan-saioak".



JULEN BARRUTIA
ART-KO ENTRENATZAILEA

"Oso ondo ibili gara. Gazteak ikusi ditugu entrenamenduan asko inplikatu direla eta talde bateko partaide sentitu dira. Oso garrantzitsua da hori".



BEÑAT BARRUTIA
SAIKO PARTE-HARTZAILEA

"Ederto ibili naiz, anaia Julenek ederto antolatu du dena. Ez da izan lehenengo aldia, Gasteizera ere joan nintzen-eta beste entrenamendu saio batera".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Mutriku-Mondra

Zapatua. 11:30. Mutriku.

Aretxabaleta-Real Uni.

Zapatua. 16:30. Ibarra.

Bergara-Ordizia

Zapatua. 16:30. Agorros.

ERREGIONAL PREFERE.

Atsedena.

OHOREZKO GAZTEAK

Aretxabaleta-Urki

Zapatua. 11:00. Ibarra.

Mondra-Tolosa

Zapatua. 12:30. Mojategi.

Aloña Mendi-Zumaiaiko

Zapatua. 15:30. Azkoag.

Beasain-Bergara

Domeka. 16:00. Loinaz.

EMAKUMEZKOEN OHO.

Leintz Arizm.-Hernani

Zapatua. 10:30. Mojategi

Bergara-Ostadar

Zapatua. 15:30. Ipintza.

EMAKU. PREFERENTEA

Atsedena.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Durango-Eskoriatza

Domeka. 12:00. Landako.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Mondrate-Arcada

Domeka. 18:00. Musak.

Aretxabaleta-Leioa

Zapatua. 18:30. Iturripe.

GIPUZKOAKO SENIORRA

Oiartzun-Mondrate

Gaur. 22:15. Oiartzun.

SENIOR BIG. MAILA

Donipari-Eskoriatza

Gaur. 22:00. Pasaia.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Atsedena.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Muskiz-Ford Mugarri

Zapatua. 16:15. Muskiz.

Deusto-Fagor Industr.

Zapatua. 18:00. Bilbo.

EMAKUMEZ. EUSKADI.

Cons. Aloña-Jarrilleras

Zapatua. 16:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Soraluce Berg.-Usurbil

Zapatua. 13:00. Labegar.

SASKIBALOIA

EBA

Easo-MU

Zapatua. 20:00. Gasca.

EUS. BIGARREN MAILA

Alkideba Oin.-Ibaizab.

Zapatua. 16:00. Iturripe.

Tabirako-Mekalki A.

Zapatua. 16:30. Durango.

EUSKADIKO JUNIOR M.

MU-Fundacion Bilbao

Domeka. 12:00. Musak.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Larramendi-Bergara S.

Zapatua. 16:00. Donosti.

GIP. SENIOR EMAKUME.

Eskoriatza-Zast nesk.

Gaur. 20:15. Eskoriatza.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELK.

ARETXABALETA

Egubakoitza. 18:30ean

hasita sei partidu.

OÑATI

Egubakoitza. 18:45ean

hasita sei partidu.

ANTZUOLA

Egubakoitza, 19:30ean

partidu bat.

ELGETA

Egubakoitza, 19:30ean

hasita hiru partidu.

ARRASATE

Egubakoitza, 20:15ean

hasita partidu bat.

BERGARA

Domeka, 11:45ean hasita

partidu bat.

FUTBOLA Aretxabaletak eta Bergarak etxean dute hitzordua

Asteburu borobila izan zen joan den astekoa, Ohorezko Erregional mailako hiru ordezkariak irabazi egin zuten eta -aipatze-koa Aloña Mendik Azpeitian lortutako 0-1eko-. Hala, UDA bosgarren dago, eta zapatuan, atzealdean dagoen Real Union hartuko dute. Bergarak ere arnasa hartu zuen Euskaldunari irabazita. Bihar, Ordizia dator.

SASKIBALOIA Easok eta Muk gipuzkoarren arteko derbia dute

Solaresi etxean ondo irabazi eta gero, Mondragon Unibertsitateak Donostian jokatu du zapatu iluntzean, Easoren kontra (20:00, Gasca). Hain zuzen, donostiarrak kontrario zuzena dira sailkapenean, arrasatearrek beste puntu dituzte eta (31), nahiz eta zuri-moreek partidu bat gutxiago jokatu duten. MU hirugarren dago sailkapenean.

FUTBOLA Zazpiko txapelketa antolatu dute Aretxabaletan

Ibarrako futbol zelai berrian antolatuko du Arizmendi Kirol Elkarteak zazpiko futbol txapelketa. Ez dituzte dagoeneko federatuta dauden jokalaria onartuko, eta 18 urtetik gorakoendako da. Hala, talde bakoitzean gehienez 16 jokalarik egon ahal izango dira. Martxoaren 14an hasiko dute torneo hori eta lehenengo partiduak liga

erregularrean jokatu dituzte. Hala, onenek finalerdietarako bidea hartuko dute -maiatzak 23-, eta finala maiatzaren 30ean izango da.

Zazpiko futboleko torneoaren izena emateko 50 euro ordaindu behar dira, eta beste 50 euro jarri behar dira finantza modura. Kontu korronte honetan sartu behar da dirua: 3035 0002 12 0020005638. Antolaketa taldeak kirolak@arizmendi.eus helbidean argituko ditu torneoaren gainean egon daitezkeen zalantzak.

"Bizipen hunkigarria eta aberasgarria izan da"

JON MESTRE ARZUAGA PIANO-JOLEA

12 urte ditu Jon Mestre Arzuagak, baina heldu baten maila du pianoa jotzen; hala erakutsi zuen aurreko asteburuan TVE1 katean eskaini zuten 'Prodigos' saioan

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Txiki-txikitatik erakutsi du Jon Mestrek musikarako abilezia handia duela, eta seguru horretan eragina izan duela aita –Jose Ramon– musikari profesionala izateak eta ama –Monika– ere garai baten abeslari egindako ibilbideak. Oñatiko Institutuan ikasten du, baina astean hamai-ka ordu egiten ditu pianoan entseatzen.

Musika tresnak izan dituzu txikitatik jostailu gustukoena; noiz hasi zinen pianoa jotzen?

2 urte nituela hasi nintzen gurasoek oparitu zidaten plastikozko pianoa jolas moduan jotzen. Aita gitarra eta piano irakaslea dut, eta hark irakatsi zizkidan oinarriko lehen pautak; dikta- ketak eta halako ariketak egiten zizkidan. Ganbara Txiki abesbatzan hasi nintzen, 3 urte nituela, eta orduan proposatu genion Miren Gurutze Plazaola zuzendariari nire irakaslea izateko. Bitxia izan zen egin genuen tratua: nire amak aleman eskolak ematen zizkion, eta trukean, berak niri pianokoak; garai hartan ez nintzen pianora heltzen eta irakaslearen altzoan jarrira jotzen nuen. Era berean, aitak ere irakasten zidan; Madrilen bizi da eta Skype bitartez egiten genituen piano-klaseak.



Jon Mestre Arzuaga, etxeko egongelan duen pianoa jotzen. A.A.

"EGUNERO BI ORDU ETA ERDI JOTZEN DUT ETXKO PIANOAN, ETA ASTEBURUETAN ERE BAI; BAINA OSO POZIK"

Harrezkero, goi mailako irakasle gehiago izan dituzu, eta gaur egun Gasteizera joaten zara astean behin.

Kubako ENA eskola garrantzitsuko Maria Dolores Novas piano-jole handiarekin hasi nintzen, 4 urte nituela, eta nire aitaren

ikasle izan zen Iliana Ross kubatarrarekin 8 urte nituela, eta gaur egun Gasteizen bizi den Rossengana joaten naiz astero. **Zenbat ordu egiten dituzu astean pianoa entseatzen?**

Ordu eta erdiko eskola jasotzen dut astean behin Gasteizen, eta egunero, zapatua eta domeka barne, bi ordu eta erdi egiten ditut etxeko pianoaren aurrean; *Prodigos* telebista saiorako prestatzeko, gutxienez bost orduko entseguak egiten nituen. **Zur eta lur utzi zenituen saioeko epaimahaikideak eta ikusleak; ze-**

lan sartu zinen abentura horretan, eta zelan joan zaizu?

Musikari lagun batzuen bitartez *casting*-aren berri izan zuen aitak, eta eskaera egin eta ekainean, 12 urte bete berri, egin nuen proba Madrilgo musika denda dotore batean. 200 lagunek baino gehiagok egin genuen proba hori eta bederatzi aukeratu zituzten; horien artean, ni. Telebistan aurreko asteburuan eskaini zuten arren, urriaren grabatu genuen; zoritxarrez, ez nuen aurrera egiteko aukerarik izan.

Pozik bizitako esperientziarekin?

Jende oso jatorra ezagutu dut eta, orokorrean, asko ikasi dut, baina egia da saioan aurrera egingo ez nuela esan zidatenean, hasieran pena hartu nuela; izan ere, sekulako loreak bota zizkidaten epaileek, eta sorpresa izan zen gero epaia; hala ere, bizipen hunkigarria eta aberasgarria izan da niretzako eta nire gertukoendako; hortaz, irribarre batekin agurtu nituen saioakoak. **Musika lehiaketa gehiagotara aurkezteko asmorik baduzu?**

Telebista saioetara ez dut uste, ez da gure helburua hori; ez, behintzat, momentuz. Hala ere, ez dut baztertzeko piano lehiaketa gehiagotara aurkeztea.

Esku artean proiektu polit bat duzu; zer da hori?

Gazte orkestra batekin kontzertua egingo dut Madrilen maiztzean, eta ni piano-jole bakarlarria izango naiz. Sekulako ahalgina eskatzen dit, baina pozik eta gozatzeko ari naiz lanean.

Etorkizunean musikari profesionala izatea duzu helburu?

Ofizioz, piano-jolea izan nahiko nuke, baina beste zerbait ikasteko asmoa ere badut, ez dakit oraindik zein alorretakoa. Paraleloki bi ikasketak egingo ditut, gaur egun ere hala ari naiz.

'Cavalleria rusticana' opera, Amaia antzokian

Ozenki elkartearen eskutik operako puntako artistek abestuko dute martxoaren 17an, 20:30ean hasita

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Pietro Mascagni konpositore italiarraren *Cavalleria rusticana* opera Amaia antzokian izango da ikusgai, Ozenki elkarteak antolatuta. Mundu osoko antzokietan gehien antzetzu diren hamar operen artean dago lan hori; 1890eko Sizilian kokatutako istorioa da, eta maitasunean eta gorrotoan oinarritutakoa da. Mascagnik idatzitako obran pieza oso ezagunak daudela azaldu du Ozenki elkartearen Manu Gallardok: *"Intermezzo* izenekoa, adibidez, iragarkietan eta filmetan *–El Padrino* eta *Toro Salvaje–* sarritan erabili izan dute".

Arrasateko operazale elkarteak agertoki modernista eta luxuzko abeslariak batzen dituen ekoizpena erango du Amaia antzokira: David Baños, tenorea; Alberto Arrabal, baritonoa; Maria Ruiz, sopranoa; Paula Irigorri, mezzosopranoa; eta Laura Ortiz. Eta horiez gainera, Sasibill abesbatza eta Arkaitz Mendozak zuzentzen duen orkestra liriko ere izango dira.

Sarrerak 30 eurotan eskura daitezke *Arrasate.eus* atarian, Amaia antzokiko leihatilan, eta, bestela, antolatzaileei enkargua eginda, *Ozenkielkarta@hotmail.es* helbidera idatzita.



ARATUSTEETAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA 2020

LAGUNTZAILEAK:




Jon harategiaren eta Hankabeltz urdaitegiaren produktuekin osatutako otarra.

Bidali zure argazkiak eta eskuratu otarre bikain bat!

☎ 688 69 00 07

Parte hartzeko epea: otsailaren 21etik 25era

Zozketa: otsailaren 26a



goiena
Zu hemen zaude.

Jazarritako komikoen omenez, euskal kabareta

Tartean Teatroak 'Simplicissimus kabaret' ikuskizuna eskainiko du gaur, egubakoitza, Oñatiko Santa Ana aretoan, 19:30ean, eta Arrasateko Amaia antzokian izango dira martxoaren 15ean; sarrerak salgai daude 'Oñati.eus' eta 'Arrasate.eus' atarietan

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Hans Jakob Christoffel von Grimmelshausen-ek 1668an idatzi zuen nobela pikareskoa da *Simplicius Simplicissimus*, Alemanian 1618tik 1648ra izan zen *Hogeitamar urtetako gerra*-ren izugarrikeriak umore klabean kontatzen dituena.

Liburuaz gainera, gerrarteko kabaret baten izena ere izan zela azaldu dute Tartean Teatroko kideek: "Lan honen mui-nean gerrarteko Fritz Grunbaum, Kurt Gerron eta Werner Fink hiru komiko alemaniarren bizitza ikaragarri eta ederrak daude jasota. Hiru komiko horien historia nazien terrore eta kontzentrazio esparruekin estuki loturik dago; baina ez dugu naziei buruzko istorio bat kontatu nahi, ez ditugu gertaerak kontatu nahi iraganeko pasadizoak balira bezala, berritoki gertatu daitekeen zerbait bezala baizik. Umorearen inguruko ariketa bat izan nahi du gure ikuskizunak".

Zuzeneko musikarekin

Simplicissimus kabaret ikuskizunak umorearen mugak aztertzen dituela gaineratu dute: "Omenaldi bat da euren lana askatasun osoz egin nahi izateagatik jazarpena sufritu eta



Simplicissimus kabaret laneko une bat. PIO ORTIZ DE PINEDO

sufritzen duten komikoei. Ez ditugu gertaerak kontatu nahi iraganeko pasadizoak balira bezala, berritoki gertatu daitekeen zerbait bezala baizik. Umorearen inguruko ariketa bat izan nahi du gure ikuskizunak".

Patxo Telleriak idatzi du gidoia eta hark zuzendu du gero ikuskizuna, eta, horrez gainera, taularen gainean dago Telleria. Puntako artista gazteekin osatu du lantalde artistikoa: Olatz Ganboa, Getari Etxegarai eta Adrian Garcia de los Ojos izango ditu lagun. Komediaren eta

dramaren artean murgilduta antzetzear gainera, dantza eta abestu ere egiten du laukoteak.

Labetik atera berria

Arriaga antzokian azaroan egin zuten aurrestreinaldia, eta otsailaren 13an Santurtzin abiatu zuten aretoetako bira; Donostian egin zituzten segidan bi emanaldi eta Oñatiko Santa Ana Antzokian egingo dute gaur, laugarrena; eta Barakaldon gaztelarazkoa estreinatu ondoren, Arrasaten euskarazkoa eskainiko dute martxoaren 15ean.

Hiru bloketan banatuta

Fikziozko film, dokumental eta haurrentzako zinema kategorietan sailkatu dute eskaintza.

Plataformaren asmoa da titulu kopurua pixkanaka handitzen joatea. 2017an Generalitatearen laguntzarekin jaio zen FilminCAT da Filmin Euskaraz aurrekaria. Orditik egindako lanari esker, gaur egun, 3.000 izenburu baino gehiago aurki daitezke: katalanez hitz egiten dutenak, bikoiztutakoak eta azpitu-tulua dutenak.

Euskarazko lehen 'streaming' plataforma abiatu du Filmin-ek

'Agur, Etxebeste!', 'Loreak', '80 egunean', 'Amama' eta 'Dantza' filmak dira plataforman ikusgai dauden batzuk

A.A. ARRASATE

Euskarazko, euskaraz bikoiztutako edo euskaraz azpitu-tulutako filmak eskuragarri daude Filmin Euskaraz kanalean. Ordainpeko plataforma astelehenen estreinatu zuten eta 40

euskal pelikula eta dokumental baino gehiago eskaintzen ditu. Filminetik adierazi dutenez, kanalaren helburua da ikusle guztiek "zinema onena beraien ama-hizkuntzan" gozatzeko aukera izatea.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko otsaileko sariak!

Ebook reader

Parte hartzeko sariaren izena: Ebook

EROSKI
ARRASATE



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OÑATI K O B A K

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Fikziozko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Informazioa: LPE 15/1996 legearen arabera, gure web orriaren bidez zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen bitartez automatikoki lortzen ditugu. Zure datu pertsonal horien erabilera zure onarazpenarekin batera egiten dugu. Zure datu pertsonal horien erabilera zure onarazpenarekin batera egiten dugu. Zure datu pertsonal horien erabilera zure onarazpenarekin batera egiten dugu. Zure datu pertsonal horien erabilera zure onarazpenarekin batera egiten dugu.

Irabazi bi lagunendako otordua

HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!

☎ 943 25 05 05 ✉ kluba@goiena.eus

📍 KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri eskerrak

"Koskorot" haur antzokirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Otsailak 29 | 17:00etan

PARTE HARTZEKO: OTSAILAREN 27RA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "Antzokiko" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Informazioa: LPE 15/1996 legearen arabera, gure web orriaren bidez zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen bitartez automatikoki lortzen ditugu. Zure datu pertsonal horien erabilera zure onarazpenarekin batera egiten dugu. Zure datu pertsonal horien erabilera zure onarazpenarekin batera egiten dugu. Zure datu pertsonal horien erabilera zure onarazpenarekin batera egiten dugu.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkidetza: 56€
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus

goienakluba
